GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN MAPA 2024-2030

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onartua 2024ko abenduaren 17an

1. SARRERA: GIZARTE ZERBITZUEN MAPAREN HELBURUA, OINARRIZKO PRINTZIPIOAK, EGITURA ETA METODOLOGIA 3

1.1 Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen helburuak eta oinarrizko printzipioak 3

1.2 Maparen Egitura eta Metodologia 8

1.3 Proposamen nagusien laburpena 9

2. BIGARREN MAILAKO ARRETAKO GIZARTE ZERBITZUEN EGOERA 2018-2023 MAPA AMAITZEAN 13

2.1 Maparen aurreikuspenak 2018-2023 13

2.2 Maparen emaitzak 2018-2023 14

3. GIZARTE-PREMIAK: BILAKAERAREN IKUSPEGIAK 23

3.1 Sarrera 23

3.2 Erradiografia demografikoa: egungo egoera eta joera nagusiak 24

3.3 Gipuzkoak izango duen biztanleriaren estimazioa 2030. urteari begira 32

3.4 Mendekotasun-egoerak: egungo egoera, joerak eta 2030erako proiekzioak 36

3.5 Babesgabetasun-egoerak: egungo egoera, joerak eta 2030erako proiekzioak 40

3.6 Pobrezia, desberdintza, eta gizarte-bazterkeria egoerak: egungo egoera, joerak eta 2030erako proiekzioak 47

3.7 Ondorioak 55

4. GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN SAREA 2030. URTEARI BEGIRA: DEFIZITEN EBALUAZIOA ETA BEHARREZKO BALIABIDEEN PROIEKZIOA 60

4.1 Sarrera 60

4.2 Adin nagusiko pertsonen mendekotasun-autonomiaren esparrua 64

4.3 Desgaitasunaren esparrua 76

4.4 Babesgabetasunaren esparrua 84

4.5 Gizarte-bazterkeriaren esparrua 89

5. LURRALDEAREN ANTOLAKETAN ERABILITAKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK 110

5.1 Lurraldearen antolamendua zehazteko erabilitako irizpideak 110

5.2 Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan proposatzen den lurraldearen egituraketa 115

6. LEHENTASUNEZKO PLAZAK 2024-2030 EPEALDIRAKO GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO GIZARTE ZERBITZUETAKO SARE PUBLIKOAN 121

6.1 Sarrera 121

6.2 Mendekotasun-egoeran dauden adin nagusiko pertsonak. 122

6.3 Esparru soziosanitarioa 127
6.4 Pertsona desgaituak. 129
6.5 Gaixotasun mentala duten pertsonak 130
6.6 Okupazio-zentroak 132
6.7 Bazterkerian dauden pertsonak 133
6.8 Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak 135
6.9 Babesgabetasunean dauden adin txikikoak 136
7. ONDORIOAK 139
7.1 Plazen proposamena 139
8. ESTALDURA ETA DEFIZITEN HELBURUEN KALKULUA KOKAPEN FISIKO JAKINIK BEHAR EZ DUTEN BESTE ZERBITZU ETA PRESTAZIO BATZUETAN ETA JARDUKETEN PROPOSAMENA 141
8.1 Bestelako zerbitzuak eta prestazioak. Mendekotasuna eta desgaitasuna 141
I. ERANSKINA: MEMORIA EKONOMIKOA 147
II. ERANSKINA: MAPAREN EBALUAZIOA ETA BETETZEN DEN IKUSTEKO JARRAIPENA EGITEA 159

1. SARRERA: GIZARTE ZERBITZUEN MAPAREN HELBURUA, OINARRIZKO PRINTZIPIOAK, EGITURA ETA METODOLOGIA

1.1 Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen helburuak eta oinarrizko printzipioak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean (aurrerantzean GZL) gizarte zerbitzuak baliatzeko eta hurbiltasun, oreka eta lurralde-mailako homogeneotasunerako eskubidea ezartzen ditu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako (aurrerantzean GZES) oinarrizko printzipio gisa, zerbitzu eta prestazioetarako sarbidean berdintasuna bermatze aldera.

12/2002 legeko 30. artikuluan ezartzen denez, Foru Diputazioek, foru gizarte zerbitzuen bidez, izango dute, beren lurralde-eremuan, lege honek eta berau garatzeko xedapenetan, GZES sistemaren esparruan, haientzat esleitutako eskumenak gauzatzearen ardura.

Plangintzarako tresna hori GZL legeko 33.3 inkardinatzen da. Hor zehazten denez, foru diputazioek beren berezko plangintza eratu ahal izango dute, erkidego mailan ezarritako plangintza errespetatuz eta garatuz. Ikuspegi horretatik, Mapa honen borondatea da, alde batetik, Gipuzkoan EAE-ren esparruan ezarritako plangintza garatzen jarraitzea, eta epe ertainera, aurreko Mapa amaitu ondoren antolamendurako tresna bat edukitzea.

Eusko Jaurlaritzak 2023ko urriaren 3an onartutako **EAEko gizarte zerbitzuen II. Plan Estrategikoarekin** bat etorriz, GZES sistemaren misioa da, bizi-zikloan zehar pertsona guztien gizarteratzea bultzatzea ahalik eta autonomia handienarekin, prestazio teknikoak eta harremanekin zerikusia duten zerbitzuak zein prestazio teknologiko eta ekonomikoak barne hartzen dituzten laguntzen bidez. Eta berezkoak zaizkion bitartekoetatik abiatuz, beste gizarte-babeserako euskal sistema osatzen duten beste sistema eta politika publiko batzuekin (soziosanitarioa, gizarte eta hezkuntza arloa, gizarte eta bizitegi arloa...) elkarrekintzarako espazioetan kooperatzea, gizarteratzea, kohesioa eta ongizatea xede izanik.

EAEko II. Plan Estrategikoan aurreikusten den plangintzak trantsizio sozial, demografiko eta digitala jorratzeari erreparatzen dio, 2030eko hamarkadari begira, unibertsala eta erantzukizun publikokoa izango den sistema bat bermatuz, erkidegokora gehiago hurbiltzen dena, arreta-piramidea irauliz. Helburu horiekin bat etorriz, Legean GZES sistemaren garapen egokia ziurtatzeko aurreikusten den tresna nagusietako bat **Gizarte Zerbitzuen Mapa** da, II. Plan Estrategikoan txertatua eta honako elementu hauen arabera egituratua:

- **Lurraldearen antolamendu edo egitura**; hots, udalerri, eskualde eta lurraldeak mugapen geografiko homogeneo eta egokietan banatu edota multzokatzea, hurbiltasunaren ikuspegitik, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan zerbitzuen prestaziorako zehaztu diren populazio aldetiko irizpide egokienekin bat etorriz.

- **Mugapen edo mugaketa geografikoak;** hau da, GZES sistemaren lurralde-egitura osatzen duten lurralde- edo geografia-eremuak (oinarrizko zonaldea, eremua, eskualdea, sektorea, etab.), zerbitzu edo prestazio bakoitzerako estaldura-helburuen hartzaile direnak, baliabideen banaketa homogeneoa eta zerbitzu eta prestazio horietarako sarbidean berdintasuna bermatze aldera.

- **Zerbitzu eta prestazio bakoitzaren arretarako zerbitzuak**, zonalde bakoitzean sarbideari dagokionez hurbiltasuna, berdintasuna eta ekitatea eta Legean jasotzen den zerbitzuen eta prestazioen unibertsaltasuna bermatzeko, artatu beharrekoak diren premia potentzial modura ulertuta.

2024-2030 epealdia barne hartzen duen Mapa honetan, gastu publiko arrunta zenbatesteko oinarri gisa erabiltzen diren plazen, pertsona erabiltzaileen eta prestazio ekonomikoen hartzaileen proiekzioak, eta dagozkion estalduren ezarpena, 3 urratsi jarraituz egin dira:

a) agertoki demografikoa finkatzea.

b) lurraldeen arteko konbergentziarako mekanismo bat aplikatzea.

c) Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioaren ondotik identifikatutako irizpideak aplikatzea, zehazki, arreta-piramidea irauli eta zaintza instituzionala indartzera bideratuak, azken horrek familia arlokoarekin alderatuz ageri duen proportzioa areagotuz.

Gipuzkoaren eremuan, **Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen (2018-2021)** indarraldia amaitu egin zen, eta modu ezohikoan, Sailak 2023ra arte luzatzea erabaki zuen. COVID birusaren ondoriozko pandemiak eragin adierazgarria izan zuen Maparen garapenean eta markatutako helburuak betetzeari so, beti kaltetan. Alde batetik, Sailak beste lanketa batzuk hartu behar izan zituelako beregain; beste alde batetik, aurrekontua ezin izan zelako modu arruntean kudeatu. Eta garrantzitsuena, plaza kopurua areagotzeak ez zuen zentzurik aldi berean arreta arloan zeuden arazo larriak aintzat hartuz: eguneko zentroak itxi egin behar izan ziren, egoitza-plazak COVID eremu bilakatu ziren, plaza soziosanitarioak erreferentzia-zentro bilakatu ziren, sarrera berriak eten egin ziren epealdi batzuetan, etab. Gainera, pandemiak eragina izan zuen eskarian. Adin nagusiko pertsonentzako egoitzetan sartzeko itxarote-zerrendak minimo historikoetan egon ziren, premiak murriztu ez baziren ere. Testuinguru horretan, ez zen erraza sarea handitzeko erabakiak hartzea, eta Maparen indarraldia luzatzea ebatzi zen.

Orain agertoki berri baten aurrean gaude; itxarote-zerrendak pandemiaren aurreko mailetara hurbildu dira eta, are, zenbaitetan areagotu egin dira, eta Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa onartu da.

Oraingo **Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan** 2024-2030 epealdirako baliabideen sarea lurralde mailan hedatzearekin lotutako honako helburu estrategiko hauek jasotzen dira:

1. Autonomia. Arreta-piramidea iraultzea, erkidegoko lehen mailako nahiz bigarren mailako arreta indartuz, desgaitasuna duten pertsonen bizitza independentea bultzatzea, eta adin nagusikoentzako egoitza-zentroak eraldatzea.

2. Integrazioa. Inklusio-sarea indartzea, lehen mailako nahiz bigarren mailako arretaren artikulazioan eta jarraikortasunean eta bere deszentralizazioan aurrera eginez, erkidegoko ereduari so, GZES sistematik gizarteratzeko laguntzak bultzatuz eta babes sistemako EAEko gainerako sistemekin kooperazioa barne hartuz.

3. Oreka. Zaintzen gizarte-antolamendua bultzatzea, lidergo publikotik abiatuz, eta instituzio eta familia arloko zaintzaren oreka berria bultzatzea, lehenengoaren mesedetan, zaintzan dihardutenen zaintza instituzionala gaineratuz, zaintza familiako, aske, kritiko eta mugatua bultzatuz eta, horrenbestez, zaintza instituzional eta erantzunkidearekin artikulatua.

4. Artikulazioa. GZES sistemaren kudeaketa eta bere funtzioetako bakoitza bultzatzea, abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 40. artikuluak EAEko Gobernuari esleitzen dizkionak, GZES sistemaren kudeaketa integratu eta elkartuan aurrera eginez.

5. Genero-ikuspegi intersekzionala. Genero, adin, jatorri eta autonomia mailaren ondoriozko diskriminazio-egoerak hautematea eta horiei kontra egitea, eta GZES sistematik arreta aniztasunera egokitzea.

EAEko II. Planak **5 ardatz eta helburu estrategiko** barne hartzen ditu, eta horiek betetzeko proiektu eragile zenbait identifikatzen dira, gizarte zerbitzuen eta GZES sistemaren esparruan. Gainera, beste zenbait jarduketa osagarri aintzatesten dira, beste sistema eta politika publiko batzuekin kooperazioan, eta ikuspegiarekin bat datozenak. Aldi berean, aginte-koadroak, ikuspegia eta helburua eraginkor bihurtzeko, adierazle eta jomugak finkatzen ditu.

Honako hauek dira lotutako 5 ardatz eta helburu estrategikoak:

- **1. ardatza - Autonomia**

  Helburu estrategikoak:

  1.1.-Erkidegoan lehen mailako eta bigarren mailako arreta indartzea kontingentzia guztietarako

  1.2.- Desgaitasuna duten pertsonen bizitza independentearen eredua eta kalitatea bultzatzea

  1.3.- Adin nagusikoentzako egoitza-zentroak egokitzea

- **2. ardatza - Integrazioa**

  Helburu estrategikoak:

  2.1.- Bazterkeria-sarea indartzea

  2.2.- GZES sistematik integraziorako eta gizarteratzerako laguntzak bultzatzea, eta gizarte-babeserako euskal sisteman kooperazioa.

- **3. ardatza - Oreka**

  Helburu estrategikoak:

  3.1.-Zaintzen gizarte antolaketa bultzatzea lidergo publikotik, zaintza instituzionalaren garrantzia areagotuz

  3.2.-Familia-zaintza aukera bat izateko beharrezkoak diren baldintzak bultzatzea

- **4. ardatza - Artikulazioa**

  Helburu estrategikoak:

  4.1.- GZES sistemaren kudeaketa eta bere funtzioetako bakoitza, GZL legeko 40. Artikuluak Eusko Jaurlaritzari esleitzen dizkionak, bultzatzea

  4.2.- GZES sistemaren kudeaketa integratu eta elkartuan aurrera egitea

- **5. Ardatza - Genero-ikuspegi intersekzionala**

Irizpide horiekin bat etorriz, Gipuzkoako Mapa honetan estaldura-helburuak ezartzen dira bigarren mailako arretako zerbitzuei begira esklusiboki. Lehen mailako arreta zerbitzuei dagokienez, Mapa hau GLH banatzean eman diren lurralde-eremu ezberdinen

diagnosia islatzera mugatzen da. Lehen mailako arreta-zerbitzuen estaldurako jomugak, zein horien lurralde mailako egituraketa, Lurralde Historikoko udalek horri dagokionez erdiesten dituzten akordioen bidez ezarriko dira.

Bere irismenari dagokionez, eta kokapen fisiko jakin batekin lotuta, nagusiki hurbiltasun-maila jakin bat eskatzen duten zerbitzuen plangintzara bideratutako tresna bat bada ere, Mapa honetan plaza aldetiko zuzkidura jakin bat eskatzen duten zerbitzuetarako ez ezik, GZL legeko Gizarte Zerbitzuen katalogoko bigarren mailako arretako beste zerbitzu eta prestazio batzuetarako helburuak proposatzen dira. Halaber, Mapa honetan kontingentzia-profil berrietatik eta egungo sareak behar bezala estali gabeko eskarietatik eratorritako arreta-estaldura aintzatesten da.

Azkenik, erkidegoko Mapan jasotzen den eran, Mapa hau Eranskin modura txertatuko da EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan.

1.2 Maparen Egitura eta Metodologia

Behin **Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan 2024-2030** jasotzen diren helburuak eta oinarrizko printzipioak ezarrita, eta Gipuzkoako gizarte zerbitzuen Instituzio arteko mahaian 2023ko maiatzaren 10ean egindako saioan erdietsitako akordioaren ondotik, berau eratzeko jarraitu den prozesua osatu duten lau faseak aipatu behar dira.

1. **FASEA**. Gizarte Zerbitzuen egoera 2018-2021 Mapa eta haren luzapena amaitzean

2. **FASEA**. Lurraldearen antolamendurako erabilitako ezaugarri orokorrak eta oinarrizko irizpideak zehaztea

3. **FASEA**. Gipuzkoako gizarte zerbitzuetako sare publikoaren estaldura-helburuak eta defizitak zehaztea eta lehentasunezko esku-hartzea hautatzea.

4. **FASEA.** Gipuzkoarako hobekuntza-helburuak hautatzea.

Azken emaitza modura, Mapan estaldura-defizitak, proposatutako esku-hartzeak eta bigarren mailako arretako sare publikoak zerbitzu bakoitzerako eta lurralde maila bakoitzerako 2030ean erdietsi asmo dituen hobekuntza-helburuak finkatzen dira.

Helburu horietatik abiatuz, **MEMORIA EKONOMIKOAN** (I. eranskina) hori bete ahal izateko beharrezkoa den gastu arrunt publikoaren zenbatespena egiten da, eta baita Gipuzkoako Lurralde Historikoan aurreikusitako gastuaren inpaktu ekonomikoarena ere.

Mapan, II. eranskin modura **EBALUAZIO PLAN** bat jasotzen da, lehen unetik eta modu objektiboan, ezarritako helburuak betetzen ari diren eta hobekuntzak edo aldaketa sartzea beharrezkoa ote den baloratzeko aukera emango duten adierazle eta gertaerak zehaztuz proposatutako helburu eta neurrien jarraipena, ebaluazioa eta kontrol publikoa egitea ahalbidetzen duena; hori guztiori Mapa etengabe atzeraelikatzeko prozesu gisa hautemanez.

Azkenik, Mapa honen eranskin modura sartu ahal izango dira lehen mailako arretako gizarte zerbitzuetako plangintzak. Edozein kasutan, plangintza-erritmo ezberdinak egon daitezkeenez, sarketa plangintzak egin ahala gauzatu ahal izango da, eta ez da beharrezkoa izango txertatuta izatea Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa 2024-2030 eratutzat jotzeko.

1.3 Proposamen nagusien laburpena

1.3.1 Lehentasunak esparruaren arabera

- **Mendekotasun egoeran dauden adin nagusiko pertsonen esparruan** adin nagusiko pertsonentzako egoitza-zentroak egokitzeko prozesu bat bultzatu nahi da, horiek etxe baten modura aintzatetsi, diseinatu eta kudeatuz gehiago, horien tamaina eta bertan jasotzen diren unitateen tamaina murriztuz, eta horiek dibertsifikatuz, gizarte zein osasun mailako prestazioen intentsitatea zentro bakoitzean eta, oro har,

sarean, pertsona erabiltzaileen premien bilakaerara egokituz, arretaren jarraipen eta pertsonalizazio handiagoa lortze aldera.

Egokitzapen-prozesu hori zentro guztietan gauzatuko da pixkanaka. Proiektatutako zentro berriak eredu berri horren arabera diseinatu dira, logela indibidualeko bizikidetza-unitatetan oinarrituak.

Eskualde defizitarioenetako plazak ituntzearen alde egiten jarraituko dugu, zein eguneko zentroko asteburuko zerbitzua Lurralde Historiko osoan zehar hedatzearen alde.

Halaber, egoitza erako eta eguneko arreta-sarea mendekotasun-egoera larriagoak dituzten pertsonen bilakaerara egokituko ditugu eta, batez ere, narriadura kognitiboa eta bestelako dementziak dituztenentzat bideratuak modu esponentzialean areagotzea aurreikusiz.

Zaintza-eredua eraldatzeko premiaz jabetzen gara, zaintza feminizatzearen joera hori kenduz. Zaintzak profesionalizatzearen alde egiten dugu, LPPE-ak bultzatuz FIZPE-en gainetik, eta zaintzen kalitatea kontrolatzeko mekanismoak ezarriz.

Halaber, zaintzeko tokiko ekosistemen sorrera bultzatuko dugu. Gipuzkoan zaintzeko tokiko 14 ekosistema jarri ditugu martxan, herri-administrazioetako hiru mailetako gizarte- eta osasun-zerbitzuen, lau sektoreen (4S) eta akademia-esparruaren kooperazioa barne hartzen dutenak.

- **Desgaitasunaren esparruan** aurrez aurre dugun erronkarik handiena desgaitasuna duten pertsonen eta, familia-ingurunean, horien zaintzaz arduratzen diren pertsonen zahartzea da; desgaitasun anitzeko prebalentziarekin batera, arreta-intentsitate handiagoa eskatzen dutenak.
  EAEko II.Planean jasotzen den Mapan plazak **% 10** areagotzea proposatzen da, artatu gabeko eskariari eta populazio horretan gizarte-zahartzearen inpaktuari

heltzeko. Halaber, zentro guztietan (% 100) arreta jarraitua bermatzen dugu urte osoan zehar.

EAEko Mapan, era berean, beharrezkotzat jotzen da desgaitasuna duten pertsonen bizitza independentea bultzatzeko zerbitzua sustatzea.

- **Osasun mentalaren esparruan** gure lehentasuna arazo konplexu hori jorratzea da, osasun mentaleko sarearekin eta Osasun zerbitzuekin zein gizarte arloko hirugarren sektoreko erakundeekin lankidetza eta koordinaziorako espazioak ahalbidetuz, eta erkidegoa bera aktibatuz.

  Esparru horretan, EAEko Mapan, hedapenerako irizpide modura, gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzako zerbitzuetan plazak % 15 areagotzea proposatzen da.

- **Esparru soziosanitarioan** balioespen eta orientazio soziosanitarioko Batzordean lan egiten jarraituko dugu eta, era berean, gizarte eta hezkuntza arloko programak areagotzea bultzatuko dugu.

- **Gizarteratzearen esparruan** bazterkeria-egoeran dauden pertsonen arreta-sarea deskontzentratzeko lanean jarraituko dugu, lurraldean barnako banaketa hobetuz, arreta eta haren ondoriozko emaitzak hobetuz, egun Donostialdean ematen den pertsona eta baliabide aldetiko metaketa ekidin eta murriztuz.

  Esparru honetan sarea sendotu eta hedatzea nabarmentzeko, EAEko Mapan, irizpide modura, zerbitzu guztietan plazak**% 15** areagotzea aplikatzen da.

- **Haurrak eta nerabeak babesteari dagokion esparruan** egoitza-harreraren alternatibak bultzatuko ditugu, familia-harrerako, harrera espezializatuko eta laguntza-programa erako formulekin. Adin txikikoen harrera profesionalizatua indartuko dugu, etxean, eredu honen barnean, haur eta nerabeak dituzten familia kopurua 22tik 35era areagotuz.

Halaber, osasun mentaleko sarearekin lankidetza eta koordinaziorako espazioak bultzatuko ditugu, eta programa hezitzaile zein psikosozialak indartuko ditugu.

- **Indarkeria matxistako biktimak babesteari dagokion esparruan** EAEko Mapan, irizpide modura, etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-pisuetako eta emakumeentzako bizitegi-zentroetako plazak **% 10** areagotzea aplikatu dugu.

Bestalde, arreta psikosozial eta soziojuridikoko programa biktimak bizi diren ingurunean eskainiko da. Horrela, arreta psikosozial eta soziojuridikoko programako lantaldea lurralde osoan zehar mugituko da.

- **Azkenik, prestazio ekonomikoen esparruan** pertsona onuradunen kopuruak gora egitea aurreikusten da, Gipuzkoako populazioaren zahartzearekin lotuta; eta etxeko arretan profesionalizazioa bultzatzen jarraituko dugu, mendekotasuna duten eta beren etxetan geratu nahi duten pertsonen baldintzak hobetuz.

2. BIGARREN MAILAKO ARRETAKO GIZARTE ZERBITZUEN EGOERA 2018-2023 MAPA AMAITZEAN

2.1 Maparen aurreikuspenak 2018-2023

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2018-2021 epealdirako Maparekin bat etorriz, bigarren mailako arretako foru plazen defizita **869** zenbakian finkatu zen, atxikitako taulan erakusten den eran.

1 taula. Plazen defizita eta lehentasunezko plazak 2018-2023 Mapan

				2.2. Eguneko zentroak							2.3. GAZ		2.4. Egoitza zentroak												Guztira
				2.2.1. Mendekotasuneko EZ	2.2.1. Mendekotasuneko EZ. Jaiegunak eta asteburuak	2.2.1. Desgaitasuneko EZ	2.2.1. Buruko gaixotasuneko EZ	2.2.1. Adingabekoen EZ	2.2.2. Lanean trebatzeko zentroa	2.2.3. Gizarteratzeko EZ	2.3.1. Mendekotasuneko GAZ	2.3.2. Gizarteratzeko GAZ	2.4.1. Adinekoentzako EZ	EZ soziosanitarioak	2.4.2. Desgaitasuneko EZ	2.4.2.a) Desgaituentzako etxebizitza	2.4.3. Buruko gaixotasuneko EZ	2.4.3.a) Buruko gaixotasuneko etxebizitza	2.4.4. Babesgabetasuneko adingabekoen EZ	2.4.4. Adingabekoen EZ. Larrialdikoak	2.4.5. (1) Bazterketako EZ: kronifikatuak	2.4.5. (2) Gizarteratzeko EZ	2.4.6. (1) BAZ. indarkeria matxistaren emakume bikt.	2.4.6. (2) Indarkeriaren emakume biktimentzako egonaldi E/L	**GUZTIRA**
LH	Lur. Historikoa	**0**	**0**					18				7								5			9		**39**
Sekto	Ekialdea	**1**	**1**			12	8			9				2	3		31				5	5			**75**
	Mendebaldea	**1**	**2**			30	21			25				33	34		26				19	21			**209**
Eskualdea	Bidasoa	**2**	**1**													6			6						**12**
	Oarsoaldea	**2**	**4**													7		1	2						**10**
	Donostia	**2**	**7**																						**0**
	Buruntzaldea	**2**	**2**													11		6	5						**22**
	Debabarrena	**2**	**3**															2							**2**
	Debagoiena	**2**	**5**													4		9							**13**
	Goierri	**2**	**6**													7		5	2						**14**
	Tolosaldea															6		4	6						**16**
	Urola Kosta															10		5	6						**21**
Eremua	Bidasoa	**3**	**1**						1				22												**23**
	Oarsoaldea	**3**	**7**	7	7				4				130												**148**
	Donostia	**3**	**6**		8																				**8**
	Buruntzaldea	**3**	**8**	6					6				117												**129**
	Urola kostaldea	**3**	**14**						2																**2**
	Iraurgi	**3**	**15**						1				2												**3**
	Deba kosta	**3**	**2**		7				4				35												**46**
	Deba erdia	**3**	**3**	2																					**2**
	Debagoiena			5	6				4				26												**41**
	Urola Garaia	**3**	**10**	3									28												**31**
	Oria garaia	**3**	**9**						1																**1**
	Tolosaldea	**3**	**12**						2																**2**
Plazen defizita				**23**	**28**	**42**	**29**	**18**	**25**	**34**	**0**	**7**	**360**	**35**	**37**	**51**	**57**	**32**	**27**	**5**	**24**	**26**	**9**	**0**	**869**

2.2 Maparen emaitzak 2018-2023

EAEko Gizarte Zerbitzuen 2008 Legeko 35. Artikuluan adierazten denez, Lau urtez behin, Eusko Jaurlaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa egingo du, foru-aldundiekin eta udalekin koordinaturik. Eta Plan horretan Gizarte Zerbitzuen Mapa barneratuko da. Duela gutxira arte indarrean egondako Planak 2016-2019 epealdia hartu zuen. 2021ean Eusko Jaurlaritzak bere ebaluazioa aurkeztu zuen, eta EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa 2023-2026 onartu du.

Gipuzkoaren kasuan, Foru Aldundiak badu esperientzia Gizarte Zerbitzuen Mapa eratu eta garatzeari dagokionez. Honako hauek dira orain arte onartu direnak:

I. Mapa: 2002-2005
II. Mapa: 2008-2012
III. Mapa: 2015-2017
IV. Mapa: 2018-2023

Azken Mapa horren ebaluazioa egin aurretik, zera adieraztea komeni da:

a) 2020az geroztik izaten ari garen pandemiak eragin adierazgarria izan du Maparen garapenean eta markatutako helburuak betetzeari so, beti kaltetan. Alde batetik, Sailak bestelako lanketa batzuk hartu behar izan dituelako beregain. Beste alde batetik, aurrekontua ezin izan delako modu arruntean kudeatu. Eta, garrantzitsuagoa dena, plaza kopurua areagotzeak ez zuen zentzurik aldi berean arreta-zerbitzuetan zeuden arazo larriak aintzat hartuz.

b) Gainera, pandemiak eragina izan du eskarian: zerbitzu batzuetako (adin nagusiko pertsonena) itxarote-zerrendak minimo historikoetan daude gaur egun, premiak gutxiagotu ez badira ere. Testuinguru horretan, ez da erraza izan sarea areagotzeko erabakiak hartzea.

Hori dela eta, egoera ezohiko honekin bat etorriz, Sailak Maparen indarraldia 2023ra luzatzea erabaki zuen, eta hurrengo Mapa 2024tik aurrera garatzea, behin Eusko Jaurlaritzak Mapa onartu ondoren.

2.2.1 Maparen emaitzak 2018-2023. Sortutako plazak.

Atal honetan foru zerbitzuetako plazek zer bilakaera izan duten aztertuko dugu. Guztira, Maparen helburuetako bat beste **869** plaza **garbi** sortzea zen. 2023. urtea amaitzean, **1.049 plaza** lortu ditugu, horien artean oinarrizko 975 plaza. Maparen betetze orokorra % 121ekoa izan da.

Zerbitzu eta kolektibo ezberdinen ikuspegitik aztertzen badugu, honako hauek dira emaitzak:

	2018-2023	Helburua	Lorpen %
Eguneko zentroak			
Adinekoak. Lanegunak	57	23	248
Adinekoak. Astebru-jaieg.	74	28	264
Desgaitasuna. Lanegunak	153	42	364
Osasun mentala	5	29	17
Adingabeak	18	18	100
Okupazionalak		25	
Gizarteratzea	67	34	197
Gaueko harrera-zentroak			
Gizarteratzea	4	7	57
Egoitza-zentroak			
Adinekoak	116	360	32
Soziosanitarioak	48	35	137
Desgaitasuna. Egoitzak	38	37	103
Desgaitasuna. Etxebizitzak	115	51	225
Osasun mentala.Egoitzak	88	57	154
Osasun mentala. Etxebiz.	26	32	81
Adingabeak	91	27	337
Adingabeak. Larrialdiak	35	5	700
Bazterkeria. Kronifikatuak	3	24	13
Gizarteratzea. Egoitzak/etxe	86	26	331
Indark. Matx. Bikt.	25	9	278
Guztira	**1049**	**869**	**121**
EZ oinarrizko plazak	**74**	**28**	**264**
Oinarrizko plazak	**975**	**841**	**116**

Laburbilduz, **eguneko zentroetan,** desgaitasunaren esparrukoak dira gehien hazi direnak eta, haatik, gaixotasun mentalaren esparruan, aurreikusitako plazen % 17 baino ez dira exekutatu. Adin nagusiko pertsonen esparruan, asteburuko plazak zein asteguneko zentroetako plazak areagotu ditugu. **Egoitza eta etxebizitzetan** baliabide guztietako helburuak gainditu ditugu, adin nagusiko egoitzen, gaixotasun mentala duten pertsonentzako etxebizitzen eta bazterkeria kronifikatuan dauden pertsonak gizarteratzeko baliabideen kasuan izan ezik.

Emaitza horiekin guztiekin argi dago etorkizunean non egin behar den ahalegin berezia, beste zerbitzu batzuetako hazkundea mugatu gabe, baina hazkunde orekatuagoa lortzen saiatuz. Horretarako, eskariaren bilakaera bereziki kontuan izan behar dugu.

2.2.2 Maparen emaitzak 2018-2023. Nabarmentzeko zenbait proiektu edo jarduera

Mapa honen indarraldian zehar balio kualitatiboko zenbait ekimen edo lan-ildo eman dira, plazak sortzeaz batera. Horien artean, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Eibarren sortutako Zentro Soziosanitario berria (EUSS) Pandemian zehar COVID zentro modura funtzionatu badu ere, Gipuzkoaren mendebaldean zerbitzu hori sortuta, aurretiaz zeuden plazak bikoiztu egiten dira ia, eta lurralde mailako oreka hobetzea ekarri du.

- Adin nagusiko pertsonen esparruan, Usurbilen Egurtzegi zentroa ireki da, mendekotasuna duten adin nagusiko pertsonei zuzendutako lau bizikidetza-unitaterekin, profil psikogeriatrikoa duten pertsonentzako birekin eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako batekin.

- Desgaitasuneko eta gizarteratzeko zerbitzuen deszentralizazioa bultzatu da, oraindik desoreka ageri bada ere. Horren adibide dira Gautenak eta Goyenechek kudeatutako zentro berriak (Azpeitia, Pasaia, Elgoibar).

Halaber, Arrasaten Muxakola eguneko zentroa ireki da, garuneko erasana duten pertsonen errehabilitaziorako 26 plazekin.

- Osasun mentalari dagokionez, Zarautzen espazio aitzindaria ireki dugu desgaitasuna duten pertsonentzat. Espazio horrek 27 plaza dituen eguneko zentro bat eta laguntzaz hornitutako zazpi pertsonentzako etxebizitza bat barne hartzen ditu. Azken horretan profil ezberdineko pertsonak biziko dira. Halaber, Donostian Zubietxe zentroa ireki dugu, 12 plazarekin, osasun mentaleko arazoak dituzten gazteentzat.

- Gizarteratzeari dagokionez, Donostiako San Joan Jainkoaren Ospitalean Osoko Arretako Zentro berria ireki dugu, gizarte-bazterkeria larria duten pertsonentzat.

- Adin txikikoei dagokienez, gure lehenengo eguneko zentroa ireki dugu, eta baita Bizigazte zentroa ere, Arrasateko San Joan Jainkoaren Ospitalean. Azken horretan 10 plaza daude eta arreta pertsonalizatua eta errehabilitaziokoa eskaintzen zaie arreta psikiatriko intentsiboa behar duten konplexutasun eta zaurgarritasun handiko egoeran dauden haur eta nerabeei.

- Indarkeria matxistaren biktimentzat plazak bikoiztu egin ditugu.

2.2.3 Maparen emaitzak 2018-2023. Maparen adierazleak

Gipuzkoako Mapak beste adierazle batzuk ditu, plaza kopurutik harago. Jarraian, datu horien bilakaera aurkezten da, eta ez azken emaitza soilik.

Adierazleak hiru ataletan sailkatu dira; izan ere, zati bakoitza helburu orokor bati dagokio. Modu horretan, irakurketa eta balorazioa errazagoa da.

2.2.3.1 Arretaren estalduraren unibertsalizaziorako urratsak ematea 2023. urterako

Helburu operatiboak	Adierazleak	Mapa 2018-2023		Maparen garapena					
		Hasiera 2017	Helburua 2023	2018	2019	2020	2021	2022	2023
		12	12	12	12	12	12	12	12
1.1 Arretaren estaldura	Estaldura orokorra	3,24	4,10	4,07	4,09	3,98	3,96	3,99	4,17
1.2 Mendekoena	1. mailako artatuak	74,3	74,3	72,5	72,5	72,9	72,8	69,8	69,1
	2. mailako artatuak	89,6	89,6	88,6	88,0	87,2	87,1	85,9	86,2
	3. mailako artatuak	92,3	92,3	93,5	93,2	93,3	93,0	92,4	93,3
1.3 Adinekoena	3. mailako artatuak	92,3	92,3	93,9	93,7	93,7	93,3	92,6	93,7
1.4 Plazak	Plaza berriak	0	869	260	380	466	529	743	983
1.5 Itxarote zerrenda	Adinekoak. Egoitzak	377	200	301	238	330	18	142	320
	Adinekoak. Eguneko z.	0	0	20	69	30	-35	23	160
	Desgaitasuna. Egoitzak	23	20	16	23	39	40	20	8
	Osasun mentala. Egoitzak	31	25	52	56	57	57	44	17
	Gizarteratzea. Eguneko z.	0	15	9	8	24	30	24	21
1.6 Laguntza pertsonala	Laguntza pertsonalaren tasa	35,9	40,0	36,1	38,8	39,9	41,4	42,3	42,6

Datuek erakusten dutenez, epealdi honetan **estaldura orokorrak** gora egin du (populazioaren % 3,24tik % 4,17%ra), eta ezarritako helburuak bete egin dira. Bestalde, helburua maila bakoitzean mendeko pertsonen estaldura mantentzea zen, eta 3. mailako estaldura areagotu dugu (mendeko guztiena zein adin nagusikoena), baina beste mailetan zertxobait murriztu da.

Itxarote-zerrendetan neurtzen duguna egiazko itxarote-zerrendaren eta zerrenda teknikoaren arteko aldea da (erreferentzia modura plazen % 10 hartzen dugu). Ikusten denez, helburuak erraz bete dira adin nagusikoen zerbitzuetan 2021ean eta 2022an, baina argi dago, hori pandemiaren ondorio izan dela. Normaltasunera itzultzean, 2023an zehar, itxarote-zerrenda nabarmen gizendu da, nahiz eta 2017ko zenbakietara iritsi ez. Aitzitik, beste zerbitzu batzuetan, esate baterako, desgaitasunean edo osasun mentalean, helburuak bete egin dira.

Azkenik, **mendekotasunarekin lotutako prestazioetan** LPPE eta FIZPE arteko proportzioa neurtzen dugu, LPPEari dagokion zatia areagotzeko xedez. Eta hori lortu egin dugu, ezarritako helburua gaindituz.

2.2.3.2 Gipuzkoako gizarte zerbitzuetako sare publikoko eskaintza gizarte-beharrizanen bilakaerara egokitu eta bere lurralde-oreka lortzea

Helburu operatiboak	Adierazleak	Mapa 2018-2023		Maparen garapena					
		Hasiera 2017	Helburua 2023	2018	2019	2020	2021	2022	2023
		12	12	12	12	12	12	12	12
2.1 Lurralde desoreka	Lurralde desorekaren indizea	6,68	6,50	6,73	6,80	7,50	7,35	6,99	6,52
2.2 Eraginkortasuna	0/1 mailako adinekoen egoit.	14,6	14,0	14,5	14,1	15,3	15,0	14,3	14,1
2.3 Okupazioa	Adinekoak. Eguneko z.	94,6	94,6	93,7	94,3	78,4	81,8	88,5	92,3
	Zentro okupazionalak	92,5	92,5	95,4	94,2	94,5	95,1	94,3	100,8
	Gizarteratzea. Eguneko z.	88,1	92,5	92,6	94,8	95,4	90,9	87,1	86,1
	Adinekoak. Egoitzak	98,7	98,7	99,0	98,8	87,3	94,4	94,6	97,6
	Desgaitasuna. Egoitzak	99,8	99,0	99,4	99,6	99,1	97,6	98,6	97,4
	Desgaitasuna. Etxebizitzak	97,6	97,6	99,3	98,5	97,4	97,6	95,9	94,8
	Osasun mentala. Egoitzak	98,4	98,0	99,7	96,7	91,1	93,4	95,3	90,0
	Osasun mentala. Etxeb.	98,1	98,0	96,8	85,0	97,3	95,7	92,5	92,1
	Kronifikatuak. Egoitzak	96,3	98,0	98,8	97,4	93,0	89,3	96,8	96,7
	Gizarteratzea. Egoitzak	98,8	94,0	89,4	88,1	87,8	87,8	91,2	91,2
2.4 Erantzukizun publik.	Adinekoak. Egoitzak	83,3	86,0	85,5	86,7	87,3	86,2	87,4	87,9
	Adinekoak. Eguneko z.	89,2	87,0	86,6	85,2	85,5	84,9	85,8	84,4

Atal honetan lurralde-oreka, efizientzia, okupazioa eta erantzukizun publikoa neurtzen ditugu.

Lurralde-orekaren adierazleak adin nagusiko pertsonentzako baliabideak jasotzen ditu, Gipuzkoako zonalde bakoitzean batez besteko estaldura batera iristeko xedez. Zenbat eta gehiago egin behera indizeak, orduan eta hobea da oreka. Ikus daitekeen eran, indizearen balioak behera egin du, eta % 6,52ko estaldura batekin, proposatutako helburura, % 6,5era, iristen gara.

Eraginkortasunak 0 eta 1 mailako mendekotasuna duten pertsonen portzentajea neurtzen du adin nagusiko pertsonen egoitzan. Adierazlea zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta handiagoa da eraginkortasuna, pertsona horiek salbuespena izan beharko bailukete baliabide horietan. Ikusten denez, % 14,1ekin eraginkortasuna hobetu egin dugu, eta proposatutako helburura, % 14ra, iristen gara, doi-doi.

Okupazioari dagokionez, bilakaerari buruzko datuak zuhurtziaz hartu behar dira; izan ere, hemen ere pandemiak bere eragina izan du, eta pandemian zehar hartutako erabakietan bere inpaktuen eragina ikusten da emaitzetan.

Azkenik, **erantzukizun publikoari** dagokionez, plaza publikoen portzentajea neurtzen dugu adin nagusiko pertsonentzako zerbitzuetan dauden plaza guztien gainean, ehunekotan. Gaur egun, eguneko zentroetan portzentajea % 84,4an kokatzen da, eta egoitzetan % 87,9an. Beraz, egoitzetarako proposatutako helburua ia bi puntutan gainditu da, baina ez da gauza bera gertatzen eguneko zentroen kasuan, ez baikara proposatutako helburura iristen.

2.2.3.3 Zerbitzuen eta prestazioen eskaintzaren kalitatea hobetzea pertsonen premietara egokitutako eta bere ingurunetik ahalik eta hurbil kokatutako arreta bermatze aldera.

Helburu operatiboak	Adierazleak	Mapa 2018-2023		Maparen garapena					
		Hasiera 2017	Helburua 2023	2018	2019	2020	2021	2022	2023
		12	12	12	12	12	12	12	12
3.1 Itxarote denbora	Adinekoak. Egoitzak	203	163	185	154	168	143	108	124
	Adinekoak. Eguneko z.	61	45	46	58	108	53	38	54
	Desgaitasuna. Egoitzak	370	333	597	491	420	473	501	367
	Desgaitasuna. Eguneko z.	256	240	352	230	287	280	242	164
	Osasun mentala. Egoitzak	114	114	193	228	274	315	277	320
	Osasun mentala. Eguneko z.	87	87	67	97	102	73	87	57
	Baliabide guztiak	150	120	151	132	156	129	104	114
	3. mailakoak	153	120	149	134	163	131	103	111
	2. mailakoak	163	125	176	142	168	139	112	127
3.2 Jatorrizkotasuna	Guztira	81,0	81,0	80,2	79,1	78,0	77,6	78,2	77,6
	Adinekoak. Eguneko z.	95,5	96,0	96,2	95,8	96,1	95,3	95,0	94,9
	Desgaitasuna. Eguneko z.	89,6	90,0	89,4	89,4	89,5	88,8	87,8	88,6
	Osasun mentala. Eguneko z.	89,2	90,0	89,0	87,6	86,8	87,6	87,9	88,5
	Zentro okupazionalak	72,0	72,0	72,5	71,1	70,2	69,5	69,1	67,0
	Gizarteratzea. Eguneko z.	82,8	83,0	84,8	84,1	82,6	79,7	78,2	80,0
	Adinekoak. Egoitzak	83,5	83,0	81,6	80,8	79,8	79,7	81,0	80,8
	Desgaitasuna. Egoitzak	73,4	75,0	76,4	76,1	75,6	75,5	76,2	76,9
	Desgaitasuna. Etxebizitzak	64,0	64,0	61,0	59,4	60,0	57,6	58,3	54,9
	Osasun mentala. Egoitzak	66,7	70,0	71,0	70,3	69,5	69,3	69,7	71,9
	Osasun mentala. Etxeb.	48,5	50,0	44,1	42,2	42,1	42,5	38,8	38,8
	Adingabeak. Egoitzak	34,9	35,0	35,4	29,8	27,1	30,1	30,9	31,2
	Kronifikatuak. Egoitzak	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	Gizarteratzea. Egoitzak	73,5	74,0	77,7	74,2	74,0	68,1	72,6	68,6
	Emakume biktimak. Egoit.	77,3	80,0	92,9	77,4	80,0	76,0	91,2	73,8
3.3 Adinekoak etxean	>65 urtekoak. Etxeko tasa	76,3	77,0	75,4	75,4	77,2	75,3	74,8	74,8
3.4 Desgait. Egoitzak	365 eguneko eskaintza	41,2	85,0	79,3	82,7	82,7	83,2	85,2	91,6
3.5 Desgaituak etxean	Desgaitasuna. Etxeko tasa	81,3	80,0	81,2	81,0	80,7	80,6	80,1	79,7

Atal honetan kontuan ditugu itxarote-denbora, zentroen kokapena, etxean artatutako pertsonen portzentajea eta urteko egun guztietan desgaitasunerako zerbitzuetan irekitako plazen portzentajea.

Itxarote-zerrendetan pertsonek itxaron beharreko batez besteko denbora, baliabide guztiak kontuan izanik, gutxiagotu egin da (151 egunetik 114 egunera), eta helburu hori bete egin dugu. Azterketa zehatzago bat egiten bada, emaitza onak ageri dira adin nagusiko pertsonentzako egoitzetan eta desgaitasuna eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroetan. Aitzitik, desgaitasuna eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentroetan atzera egin dugu, eta baita adin nagusiko pertsonentzako eguneko zentroetan ere.

Ez dugu hobetu **zentroen jatorrizko lurralde-eremuari** dagokionez, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitzak salbuetsita; gainerako baliabideetan, ez da helburua betetzea lortu.

Etxean artatutako pertsonen tasak behera egin du (% 75,4tik % 74,8ra adin nagusiko pertsonen kasuan eta % 81,2tik % 79,7ra desgaitasuna duten pertsonen kasuan).

Azkenik **urte osoan zehar desgaitasunerako zerbitzuak irekitzea** helburu argia da guretzat. Beraz, esan dezakegu, jauzi handia eman dugula bide horretan; izan ere, urte osoan zeharreko arreta-plazen kopurua ia bikoiztu egin dugu, eta 2023rako helburua erraz lortu dugu.

2.2.3.4 Laburpena

Helburua 2018-2023 epealdian 869 plaza garbi sortzea zen. Eta 2023ko abenduaren 31n 1.049 genituen sortuta; hots, aurreikusitako plazen % 121 egikaritu dugu, baina emaitza ezberdin batekin. Horrela, adin nagusiko pertsonentzako egoitza-zentroetako % 31ko egikaritzea nabarmendu behar da, hein handi batean pandemiak baldintzatua.

Desgaitasunerako, osasun mentaleko, gizarteratzeko eta adin txikikoentzako baliabideen kasuan, egikaritze-portzentajeak aurreikusitako helburuen gainetik daude.

Baina kontuan izanik baliabide batzuetan helburuak gainditu egin direla eta beste batzuetan ere, soilik azken horiek zenbatzen baditugu, **292** faltako lirateke, gehienak adin nagusiko pertsonen egoitzetan, egoitzetako plazen eskaintzan eta eskarian pandemiak izandako eraginaren ondorioz.

FALTA DIREN PLAZEN BANAKETA	
Eguneko zentroak	
Osasun Mentala	24
Gaueko Harrera Zentroak	3
Egoitzak	
Adin nagusikoak	244
Gizarteratzea. Kronifikatuak	21
	292

- Edonola ere, banaketa hori nahiko teorikoa da. Alde batetik, pandemiaren inpaktuak zerbitzu batzuetan eskaria murriztu du. Beste batzuetan, ordea, areagotu egin du. Azkenik, plaza horietako zenbait sortzea lortzeko aldez aurretik inbertsioak eta obrak egin behar dira.

- Adierazleei dagokienez, ondorio modura, honako hauek azpimarratu behar dira:

    - Honako **helburu hauek gainditu egin dira:** arretaren estaldura, LPPE/FIZPE proportzioa, itxarote-zerrendetako batez besteko denbora murriztea, baliabide batzuetako itxarote-zerrendak (ez guztietan ordea) eta desgaitasunerako baliabideak egun gehiagotan irekitzea.
    - Emaitzak helburuetara hurbildu dira lurralde-orekan, eraginkortasunean eta erantzukizun publikoan.
    - Ez dira 2018an planteatutako helburuak erdietsi ez okupazioan, ez jatorrian.

3. GIZARTE-PREMIAK: BILAKAERAREN IKUSPEGIAK

3.1 Sarrera

Atal honetan Gizarte Zerbitzuek estalitako kontingentziekin lotutako gizarte-premien prospekzioari erreparatzen zaio, 2030. urtea jomugatzat hartuta. Azterketa ikuspegi orokor batetik egiten da, 12/2008 Legeak zehaztutako 'funtsezko helburuen' arabera egituratuz. Horiek sistemaren xedea, herritarren gizarte-ongizatea bultzatzea, betetzeko bitarteko modura ezartzen dira. Honako hauek dira 'funtsezko helburuak' (12/2008 Legeko 6.1 artikulua):

- Autonomia pertsonala sustatzea, eta mendekotasunetik eratorritako premia pertsonal eta familiakoen prebentzioa eta arreta.
- Babesgabetasun-egoerek sorrarazitako premien prebentzioa eta arreta.
- Bazterkeria-egoeren prebentzioa eta arreta, eta pertsona, familia eta taldeen gizarteratzea sustatzea.
- Larrialdi-egoerek sorrarazitako premia pertsonal eta familiakoen prebentzioa eta arreta.

Lehendabiziko hiru esparruei begiratuz, jarraian, bakoitzarekin lotutako gizarte-premia nagusien azterketa xumea egiten da. Zehazki, egungo egoera eta gizarte-premia horietan eragina duten joera nagusiak ikertzen dira. Azterketa horretatik abiatuz, hainbat hipotesi planteatzen dira, 2030. urteari begira egoera horien prebalentzia proiektatze aldera.

Lurraldeen gizarte- eta ekonomia-errealitatearen konfigurazioa, eta horrenbestez, lurraldeak aipagai diren gizarte-premiak moldekatzeko gaitasunean zuzeneko eragina duenez, testuinguru demografikoa zehazki aztertzen da, kapitulu honetako azterketa nagusiaren atariko gisa. Lehenik eta behin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ezaugarri diren joera demografiko nagusiak deskribatzen dira, aldi berean, egungo egoeraren ikuspegi bat emanez. Bigarrenik, aintzatetsitako gizarte-premia ezberdinen

prebalentziari aurrea hartzeko funtsezko elementu modura, Gipuzkoan 2030. urterako populazioaren proiekzioen gaineko azterketa labur bat gaineratzen da.

Edozein kasutan, aipatu behar da azterketa honetatik ateratzen diren emaitzek informazio eta orientazio kutsua dutela gehiago; izan ere, sarearen plangintza Gipuzkoarako EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezartzen diren estaldura-helburuen arabera egingo da.

3.2 Erradiografia demografikoa: egungo egoera eta joera nagusiak

Atal honetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ezaugarri diren joera demografiko nagusiak deskribatzen dira, aldi berean, egungo egoeraren ikuspegi bat emanez.

3.2.1 Populazioaren bilakaera azken urteetan

Eustat erakundeak egindako biztanleen udal estatistikako datuen arabera, 2023ko urtarrilaren 1ean, Gipuzkoako Lurralde Historikoan 719.875 biztanle zeuden. Garrantzitsua da adieraztea, biztanleen kopuru osoak bi urtez jarraian behera egin ondotik, 2022-2023 epealdian berriz ere populazioak gora egin duela (3.259 pertsona gehiago). Epe luzeagoko ikuspegi batetik, eskuragarri dauden datuek agerian uzten dutenez, 2020-2022 epealdiaren salbuespenarekin, Lurralde Historikoan biztanle kopuru osoak gora egin du urtez urte modu etengabean 2001az geroztik. Bilakaera horren ondorioz, 2001 eta 2023 bitartean Gipuzkoako biztanlerian 47.441 pertsona gehiago daude.

1. grafikoa. Biztanleria egoiliar osoaren bilakaera eta urtez urteko igoera. Gipuzkoa 2001-2023



Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika

Populazioaren bilakaera Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan (2018-2021) ezarritako eskualdeen araberako banaketa kontuan izanik begiratzen bada, ezberdintasun nabariak ikusten dira. Hazten ari diren eskualdeen artean, bi nabarmentzen dira besteen gainetik. Buruntzaldea eta Urola Kosta. Lurralde Historikoa, orotara hartuta, erregistratzen den % 7,1eko igoeraren aurrean, bi eskualde horietan hazkunde-tasak adierazitako batez bestekoaren gainetik daude nabarmenki. Lurralde Historikoaren biztanleriaren % 21,1a bildu arren, bi eskualde horietan 2001-2023 epealdia igarota Gipuzkoan zenbatzen diren biztanle gehigarrien % 45,3 metatzen dira.

Beste eskualde batzuetan, ordea, bilakaera askoz ere apalagoa izan da. Debabarrenaren kasua esanguratsua da. Hor, gaur egun, biztanleria duela bi hamarkada zegoen mailatik oso hurbil mantentzen da (% 0,3 eskas hazi da). Era berean, Debagoiena (% +2,0) Oarsoaldea (% +4,1) zein Donostian (% +2,5%) biztanleriaren hazkunde-tasak nahikoa baxuak dira aztertutako epealdian.

2. grafikoa. Biztanleria egoiliarraren bilakaera Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako eskualdeetan. 2001-2023



Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika

Saldo begetatiboa, jaiotzen eta heriotzen arteko aldea islatzen duena, eta migrazio-saldoa, immigrazioen eta emigrazioen arteko aldea erakusten duena, lurralde jakin bateko populazioaren tamainan eta osaeran eragina duten fenomeno demografiko gakoak modu laburtuan erregistratzen dituzten bi magnitude dira. Bi magnitude horien portaerak, hein handi batean, aurretiaz deskribatutako biztanleriaren bilakaera azaltzen du.

2013az geroztik, Gipuzkoan saldo begetatibo negatiboak ikusten dira, gainera, gero eta gehiago. Aitzitik, urte horretatik, migrazio-saldoetan hazkundeak oso adierazgarriak dira urtez urte, COVID-19 birusaren ondoriozko pandemiaren urteetako salbuespenarekin.

3. grafikoa. Saldo begetatiboaren, migrazio-saldoaren eta populazio-saldoaren bilakaera (‰). Gipuzkoa 2001-2023



Iturriak: Eustat. Jaiotzen estatistika; Eustat. Heriotzen estatistika; Eustat. Migrazio-mugimenduen estatistika.

Epe labur-ertainera populazioaren bilakaera, nagusiki, migrazioen baitakoa izango da; izan ere, aurreikuspenen arabera, saldo begetatiboa maila negatibotan mantenduko da.

3.2.2 Populazioaren adinaren egitura

Azken hamarkadetan gertatu den eraldaketa demografiko esanguratsuenetako bat populazioaren adinaren egituraren zahartze progresiboa izan da. 2001 eta 2023 bitartean, 48.447 pertsona gehiago daude 65 urte edo gehiagoko biztanleen artean, eta adin-tarte horrek biztanlerian duen garrantzi erlatiboa % 17,8tik % 23,3ra areagotu da. Epealdi berean 80 urte edo gehiagoko biztanleen artean erregistratutako igoera bereziki nabarmena azpimarratu behar da. Termino absolutuei so, igoera 65-79 urte bitarteko biztanleena baino zertxobait txikiagoa bada ere, ikuskera erlatibo batetik, oso esanguratsua da, % 85,5eko hazkunde-tasara iritsiz. Gaur egun, kolektibo horrek ordezkatzen du Lurralde Historikoko biztanleriaren % 7,1a.

Hein handi batean, beren bizi-itxaropen luzeagoaren ondorioz, emakumeak (85,8 urte; gizonen kasuan, gaur egun, 80,2) askoz gehiago dira adin aurreratuagoko herritarren

artean. 65 urte edo gehiagoko pertsonen % 56,8 dira, eta 80 urtetik gorakoen % 64,0 guztira.

2. taula. Populazioaren banaketa sexuaren eta adin-multzo handien arabera. Gipuzkoa 2001, 2012, 2023

		0-17 urte	18-64 urte	65-79 urte	80 urte eta gehiago	Guztira
2001	Emakumeak	51.042	221.216	51.244	19.237	342.739
	Gizonak	54.245	226.375	40.943	8.132	329.695
	Guztira	**105.287**	**447.591**	**92.187**	**27.369**	**672.434**
2012	Emakumeak	58.146	220.704	52.786	28.049	359.685
	Gizonak	61.339	225.938	44.376	14.256	345.909
	Guztira	**119.485**	**446.642**	**97.162**	**42.305**	**705.594**
2023	Emakumeak	58.486	214.670	62.874	32.519	368.549
	Gizonak	62.534	216.182	54.347	18.263	351.326
	Guztira	**121.020**	**430.852**	**117.221**	**50.782**	**719.875**
Δ (%) 2001-2023	Emakumeak	% +14,6	% -3,0	% +22,7	% +69,0	% +7.5
	Gizonak	% +15.3	% -4,5	% +32,7	% +124,6	% +6,6
	Guztira	**% +14,9**	**% -3,7**	**% +27,2**	**% +85,5**	**% +7,1**
Δ (%) 2012-2023	Emakumeak	% 0.6	% -2,7	% +19,1	% +15,9	% 2,5
	Gizonak	% 1.9	% -4,3	% +22,5	% +28,1	% 1.6
	Guztira	**% +1,3**	**% -3,5**	**% +20,6**	**% +20,0**	**% 2.0**

Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika.

Garrantzitsua da adieraztea zahartze-prozesua ez dela modu homogeneoan gertatu Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako eskualde ezberdinetan. Buruntzaldea eta Bidasoa Behea nabarmentzen dira 2001 eta 2023 bitartean 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren garrantzi espezifikoan igoera handiena izan duten eskualdeen artean. Bestalde, 80 urte eta gehiagoko biztanleriaren garrantzi erlatiboari dagokionez, igoera handienak Buruntzaldean eta Oarsoaldean gertatu dira. Edonola ere, egungo populazio-egitura aztertzean ikus daitekeenez, erregistratutako igoera hor badago ere, aipatutako eskualdeak ez daude gehien zahartu direnen artean. Horri dagokionez, hiriburua nabarmentzen da, Donostia. Hor biztanleriaren laurdena baino gehiago (% 25,6) 65 urtetik gorakoa da, eta ia % 8k 80 urte edo gehiago ditu.

4. grafikoa. 65 urtetik gorako eta 80 urtetik gorako biztanleriaren garrantzi espezifikoa Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako eskualdeen arabera. 2001-2023.



Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika.

Egitura populazioaren jatorriaren arabera

Migrazio-fluxuek eta, zehazki, atzerritik datorren immigrazioak, oso eragin adierazgarria izan dute Lurralde Historikoko populazioaren osaeran. Moderazioa nagusi izan den epealdi baten ondotik, 2008-2014 bitartean, non atzerriko migrazio-saldoak mugatuak izan diren (hasiera batean saldo positiboak eta ondoren negatiboak txandakatuz), 2015az geroztik atzerriko immigrazio-fluxuan igoera garrantzitsua ikusten da Gipuzkoarantz. 2020an eta 2021ean COVID-19 birusaren ondoriozko euste-neurriek eraginda jaitsiera izan bazen ere, 2022an serie historikoetako atzerriarekiko migrazio-saldo altuena erregistratu zen, 7.451 pertsonako saldo positibo batekin.

5. grafikoa. Migrazio-saldoaren bilakaera jatorri/jomugaren arabera.

Gipuzkoa 2001-2023



Iturria: Eustat. Migrazio-mugimenduen estatistika.

Oharra: Migrazioetan balio positibo batek adierazten du dagokion eremu geografikoarekiko, izan estatuko gainerako eremuak edo atzerria, migrazio-saldo positiboa dagoela.

Migrazio-fluxuen portaera horrek Gipuzkoan atzerrian jaiotako biztanleria egoiliarraren igoera oso adierazgarria ekarri du. Fokua epealdi gertukoenera ekarriz, datuek erakusten dutenez, 2015 eta 2023 bitartean, atzerrian jaio diren Lurralde Historikoko biztanleen kopurua igo egin da, ia 30.000 pertsona gehiago daudelarik. Horrela, biztanleria horren garrantzi espezifikoa % 8,6tik % 12,6ra igo da adierazitako epealdian zehar.

6. grafikoa. Populazioaren bilakaera jaiolekuaren arabera.

Gipuzkoa 2001-2023



Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika.

Kolektibo horretan, sexuaren araberako banaketa orekatu samarra bada ere (% 52,1 dira emakumeak eta % 47,9 gizonak), azken urteetan emakumeen kopurua gizonena baino bizkorrago igo dela ikusten da. 2011n 787 emakume gehiago zenbatzen ziren, eta 2023ko datuei erreparatuz, arrakala 3.593 pertsonara areagotzen da.

7. grafikoa. Atzerrian jaiotako populazioaren bilakaera sexuaren arabera. Gipuzkoa 2001-2022



Iturria: EIN. Errolda Jarraituaren Estatistika.

Eskualde mailan, atzerrian jaiotako populazioak duen garrantzi espezifikoari dagokionez alde adierazgarriak ageri dira. Bidasoa Behea, % 14,7 batekin, eta Donostia, % 14,0 batekin nabarmentzen dira, tasa altuenak dituzten eskualdeen artean. Kontrako muturrean, Urola Kosta gainerakoetatik distantzia batera kokatzen da, % 10,1eko tasa batekin.

8. grafikoa. Atzerrian jaiotako populazioaren garrantzi espezifikoaren bilakaera. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako eskualdeak, 2001, 2012, 2023.



Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika.

Atzerrian jaiotako biztanleriaren ia erdia Amerikako herrialderen batetik etorritakoa da (% 50,8). Jatorriz Europako herrialderen batekoak diren pertsonena da bigarren talde ugariena (% 22,8), Afrikatik etorritako pertsonen multzoa oso hurbil duela (% 19,4). Garrantzitsua da adieraztea, azken urteetan, Amerika dela gehien hazi den jatorri-kontinentea —en termino absolutuetan—, Erdialdeko Amerikako herrialde ugaritatik etorritako pertsona kopuruaren igoera bereziki nabarmenduz, batez ere, Nikaragua eta Honduras.

3.3 Gipuzkoak izango duen biztanleriaren estimazioa 2030. urteari begira

Gizarte-premien prospekziozko azterketan 2030. urteari begira bilakaera demografikoari dagokionez erabiltzen diren hipotesiak Eustat erakundeak argitaratutako Populazioaren Proiekzioetan oinarritzen dira, 2036. urtera arteko tartea hartzen dutenak. Proiekzio horiek populazioaren tamainan eta osaeran eragiten duten fenomeno nagusien epe ertainerako joerari buruzko suposizio hauetatik abiatuz eratzen dira:

- **Goranzko joera mantentzea bizi-itxaropenean.** Gipuzkoan, 2030ean, jaiotzean bizi-itxaropena emakumeentzat 88,3 urtekoa izatea eta gizonen kasuan 83,4 urtekoa izatea aurreikusten da. Egungo egoerarekin alderatuz, 2,5 eta 3,2

urte gehiago bizitzea suposatuko luke, emakumeen eta gizonen kasuan, hurrenez hurren.

- **Igoera emakumeko seme-alaben kopuruan eta ugalkortasunaren eredu berantiarra mantentzea.** Gipuzkoarako aurreikuspenen arabera, ugalkortasunaren indize sintetikoa modu adierazgarrian areagotuko da 2030erako, emakumeko 1,47 seme-alabetan kokatzeraino. Gaur egun, adierazleak 1,28ko balioa erakusten du. Beraz, 14,9ko igoera suposatuko luke. Bestalde, amatasunaren batez besteko adina 33 urtetan egonkortuta mantentzea espero da.

- **Epealdi osoan zehar migrazio-saldo positiboak mantentzea, populazioaren hazkundea bultzatuz.** 2030. urteari begira, migrazio-fluxuetako patroiak COVID-19 birusaren ondoriozko pandemiaren aurreko urteetan izandakoen oso antzekoak izatea aurreikusten da. Garrantzitsua da adieraztea Gipuzkoako biztanleriarentzat proiektatutako igoera migrazioen bidezko ekarpen garbien ondorio izango dela esklusiboki; izan ere, epealdi osoan zehar hazkunde begetatibo negatiboa espero da.

Erreferentzia modura erabiliko diren proiekzio demografikoen atzean dauden hipotesi nagusiak zehaztuta, jarraian ageri den taulan Gipuzkoarako eskuratzen diren emaitza nagusiak laburbiltzen dira.

3. taula. Populazioaren gainean proiektatutako bilakaera sexuaren eta adin-multzo handien arabera. Gipuzkoa 2023-2030

	Biztanleria guztira (mila pertsona)						Bilakaera 2023-2030 Mila pertsona (%)		
	2023			2030					
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
0-19 urte	66,0	70,5	**136,5**	60,4	63,8	**124,2**	▼**-5,6** *(% -8,4)*	▼**-6,7** *(% -9,6)*	▼**-12,3** *(% -9,0)*
20-64 urte	207,2	208,2	**415,4**	209,6	210,6	**420,2**	▲**+2,4** *(% +1,2)*	▲**+2,4** *(% +1,2)*	▲**+4,8** *(% 1,2)*
65-79 urte	62,9	54,3	**117,2**	68,9	60,8	**129,7**	▲**+6,0** *(% +9,6)*	▲**+6,5** *(% +11,9)*	▲**+12,5** *(% +10,6)*
80 urte edo gehiago	32,5	18,3	**50,8**	39,2	24,5	**63,7**	▲**+6,7** *(% +20,5)*	▲**+6,2** *(% +34,2)*	▲**+12,9** *(% +25,4)*
Guztira	**368,5**	**351,3**	**719,9**	**378,1**	**359,7**	**737,8**	▲**+9,6** *(% +2,6)*	▲**+8,4** *(% +2,4)*	▲**+17,9** *(% +2,5)*

Iturriak: Eustat. Biztanleen udal estatistika; Eustat. Proiekzio demografikoak 2036.

2030. urteari begira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko biztanleria % 2,5 haziko da, 737.8 mila biztanle izateraino. Igoera horrekin batera aldaketa garrantzitsuak gertatuko dira populazioaren adinaren araberako egituran. Adin-multzo handien arabera:

- Aurreikusten denez, **65 urte eta gehiagoko biztanleria** izango da gehien areagotuko dena 2023 eta 2030 bitartean. Adin-tarte horretako pertsona kopurua 168,0 milatik 193,4 milara pasako da; hots, % 15,1eko igoera. Igoera horrek populazio-multzo horren garrantzi espezifikoa modu nabarian areagotzea ekarriko du, eta 2030ean biztanleriaren % 26,2 izatera iristea espero da. Halaber, garrantzitsua da adieraztea igoera handienak adin nagusieneko populazioan emango direla. Horrela, populazioaren 'gehiegizko zahartze' prozesua bizkortu egingo da. Testuinguru horretan, % 25,4ko igoera aurreikusten da 80 urte eta gehiagoko biztanleriarentzat.

- **20-64 urte bitarteko biztanleriari** dagokionez, *oro har* lan egiteko adinean dagoen biztanleria gisa definitu daitekeena, % 1,2 eskas igoko da, gaur egun dauden 415,4 mila pertsonetatik 420,2 mila pertsonara igaroz 2030ean. Haatik,

populazio horren pisua jaitsi egingo da zertxobait, 2023an erregistratutako % 57,7tik 2030ean % 57,0ra igaroz.

- Azkenik, **0-19 urte bitarteko biztanleria** % 9,0 gutxitzea aurreikusten da, 136,5 milatik 124,2 mila pertsonara pasaz 2023-2030 epealdian zehar. Beherakada horren ondorioz, adin-multzo horren garrantzi erlatiboa, biztanleria osoa kontuan izanik, % 16,8ra arte jaitsiko da (2023an % 19koa zen).

Azterketaren fokua sexuaren eta adinaren arteko ebakipuntura eramanez, nabarmendu behar da gizonen bizi-itxaropenean izango diren aurrerapausoen ondorioz sexuen arteko desoreka murriztu egingo da zertxobait, bereziki adin aurreratuenetan. 80 urtetik gorakoen artean, proiekzioen arabera, emakumeen proportzioa % 64,0tik % 61,5era jaitsiko da.

9. grafikoa. Populazioaren piramidetik proiektatutako bilakaera. Gipuzkoa 2023-2030



Iturriak: Eustat. Biztanleen udal estatistika; Eustat. Proiekzio demografikoak 2036.

3.4 Mendekotasun-egoerak: egungo egoera, joerak eta 2030erako proiekzioak

Foru erregistroak mendekotasunezko balorazioa duten pertsona kopuruari buruz emandako informazioak Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasunaren prebalentziari dagokionez hurbilketa sendoa eskaintzen du. Datu horiek mendekotasunezko balorazioren bat jaso duten pertsona kopuruari buruzkoak badira ere — eta, horrenbestez, ez dute zorrozki islatzen kontingentzia horren prebalentzia—, garrantzitsua da adieraztea datu horiek prozesu sendotu baten ondorio direla, 15 urtetik gorako ibilbide batekin.

2023ko abenduaren 31n Gipuzkoan gutxienez I mailako mendekotasuna zuten 29.609 pertsona zeuden eta, puntuaketa txikiagoa jaso arren, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak edota instrumentalak burutzeko gutxienez murriztapenen bat zutela suposatzen

zitzaien 0 mailako beste 8.567 pertsona. Mendekotasun-arriskuan (23 edo 24 punto Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan) 54 pertsona zeuden.

Agerian utzi behar da deskribatutako egoera horietakoren batean dauden pertsonen erdiak 80 urte edo gehiago dituela (% 56,3). Gainera, sexuen araberako desoreka leun bat agertzen da; izan ere, emakumeak dira mendekotasuna izateko arriskuan edo egoera horretan dauden pertsona guztien % 62,1.

4. taula. Mendekotasuna izateko arriskuan edo egoera horretan dauden pertsona kopurua, mailaren, sexuaren eta adin-multzo handien arabera. Gipuzkoa, 2023.

	0-5 urte	6-17 urte	18-64 urte	65-79 urte	80 urte edo gehiago	Guztira
Emakumeak						
Arriskua			7	8	7	22
Mendekotasuna	114	252	2.509	3.220	12.317	18.412
I maila	42	100	1.356	1.645	4.580	7.723
II maila	45	98	693	1.002	4.481	6.319
III. maila	27	54	460	573	3.256	4.370
Guztira	**114**	**252**	**2.516**	**3.228**	**12.324**	**18.434**
Gizonak						
Arriskua		1	11	12	8	32
Mendekotasuna	210	594	3.553	2.467	4.373	11.197
I maila	67	231	2.128	1.191	1.846	5.463
II maila	96	254	913	828	1.556	3.647
III. maila	47	109	512	448	971	2.087
Guztira	**210**	**595**	**3.564**	**2.479**	**4.381**	**11.229**
Guztira						
Arriskua		1	18	20	15	54
Mendekotasuna	324	846	6.062	5.687	16.690	29.609
I maila	109	331	3.484	2.836	6.426	13.186
II maila	141	352	1.606	1.830	6.037	9.966
III. maila	74	163	972	1.021	4.227	6.457
Guztira	**324**	**847**	**6.080**	**5.707**	**16.705**	**29.663**

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Saila. Mendekotasunaren Balorazioaren Baremoarekin (MBB) baloratutako pertsonak abenduaren 31n.

Zenbaki horiek Gipuzkoan bizi diren biztanleekin lotuta aintzatesten badira, Lurralde Historikoko biztanleriaren % 4,1ra iristen den mendekotasunaren prebalentzia eskuratzen da. Edozein kasutan, datuek erakusten dutenez, adin-tarte handiagoetara jo ahala, ateratzen diren tasak altuagoak dira. 65-79 urte bitarteko biztanleriaren kasuan

prebalentzia % 4,8koa da, eta 80 urte edo gehiago dituztenen artean, % 32,7ra igotzen da. Hau da, Gipuzkoan bizi diren 80 urtetik gorako 10 pertsonatik 3 baino gehiago mendekotasuna izateko arriskuan edo egoera horretan dago.

Egoera horien prebalentziarekin zerikusia duen beste alderdi garrantzitsu bat sexuen araberako aldea da, espezifikoki 80 urte edo gehiagoko pertsonen artean ikusten dena. 80 urte edo gehiagoko emakumeen % 37,7 mendekotasuna izateko arriskuan edo egoera horretan dago; adin bereko gizonen kasuan, portzentajea % 23,8koa da. Literatura espezializatuak hainbat faktore aipatzen ditu aurrekoa azaltzeko: Besteak beste:

- Beren bizi-itxaropena dela medio, adin-multzo hori osatzen duten emakumeek, batez beste, gizonek baino adin aurreratuagoa dute. Ondorio horietarako, kontuan izan behar da muga fisiko eta mentalen prebalentziak adinarekin gora egiten duela.

- Emakumeekin alderatuta, gizonek bere zahartzaroaren zati handiagoa igarotzen dute inolako mugarik gabe eta osasun onarekin. Gehien aipatzen den arrazoietako bat zera da, gizonei hilkortasuna eragiten duten gaixotasunek erasaten dien bitartean, emakumeen kasuan hilgarriak ez baina mugatzaileak diren gaixotasun gehiago izaten dituzte.

5. taula. Mendekotasuna-arrisku edo -egoeraren prebalentzia mailaren, sexuaren eta adin-multzo handien arabera. Gipuzkoa, 2023.

	0-5 urte	6-17 urte	18-64 urte	65-79 urte	80 urte edo gehiago	Guztira
Emakumeak						
Arriskua	% 0,00	% 0,00	% 0,003	% 0,01	% 0,02	% 0,01
Mendekotasuna	% 0,75	% 0,59	% 1,15	% 5,07	% 37,64	% 4,95
I maila	% 0,28	% 0,23	% 0,62	% 2,59	% 14,00	% 2,08
II maila	% 0,29	% 0,23	% 0,32	% 1,58	% 13,69	% 1,70
III. maila	% 0,18	% 0,13	% 0,21	% 0,90	% 9,95	% 1,17
Guztira	**% 0,75**	**% 0,59**	**% 1,16**	**% 5,08**	**% 37,66**	**% 4,96**
Gizonak						
Arriskua	% 0,00	% 0,002	% 0,005	% 0,02	% 0,04	% 0,01
Mendekotasuna	% 1,30	% 1,32	% 1,61	% 4,49	% 23,80	% 3,16
I maila	% 0,41	% 0,51	% 0,97	% 2,17	% 10,05	% 1,54
II maila	% 0,59	% 0,57	% 0,41	% 1,51	% 8,47	% 1,03
III. maila	% 0,29	% 0,24	% 0,23	% 0,81	% 5,28	% 0,59
Guztira	**% 1,30**	**% 1,32**	**% 1,62**	**% 4,51**	**% 23,84**	**% 3,17**
Guztira						
Arriskua	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,02	% 0,03	% 0,01
Mendekotasuna	% 1,03	% 0,97	% 1,38	% 4,80	% 32,66	% 4,07
I maila	% 0,35	% 0,38	% 0,80	% 2,39	% 12,58	% 1,81
II maila	% 0,45	% 0,40	% 0,37	% 1,54	% 11,81	% 1,37
III. maila	% 0,24	% 0,19	% 0,22	% 0,86	% 8,27	% 0,89
Guztira	**% 1,03**	**% 0,97**	**% 1,39**	**% 4,82**	**% 32,69**	**% 4,08**

Iturriak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Saila. Mendekotasunaren Balorazioaren Baremoarekin (MBB) baloratutako pertsonak abenduaren 31n. Eustat. Biztanleen udal estatistika.

Literatura espezializatuan ez dago adostasunik adieraztean, bizi-itxaropena areagotuta, morbilitatearen eta mendekotasunaren mailek zahartzaroan jaitsi egingo diren, konstante mantenduko diren ala areagotu egingo diren. Halaber, maila horiekin lotuta, bizi-estiloetako aldaketen eta tratamenduetako hobekuntzen inpaktuei buruz ere ziurgabetasuna da nagusi. Testuinguru horretan, 2030. urteari begira mendekotasun-egoerek izango duten irismena zenbatesteko, hipotesi modura, egungo prebalentzia-tasak mantentzearena aintzatetsi da mendekotasun-egoerei dagokienez.

6 zenbakidun taulan egindako proiekzioetako emaitza nagusiak jasotzen dira. 2030. urterako, Gipuzkoan gutxienez I. mailako mendekotasuna duten pertsona kopuruak egungo 29.609 pertsonatik 32.181 pertsonara areagotuko dela aurreikusten da.

6. taula. Mendekotasuna izateko arriskuan edo egoera horretan dauden pertsona kopuruaren proiekzioa, mailaren, sexuaren eta adin-multzo handien arabera. Gipuzkoa, 2030.

	2030						Bilakaera 2023-2030	
	0-4 urte	5-19 urte	20-64 urte	65-79 urte	80 urte edo gehiago	Guztira	Guztira	
								N
Emakumeak								
Mendekotasuna	85	277	2.377	3.293	14.133	20.165	▲	+1.753
I maila	*31*	*112*	*1.248*	*1.672*	*5.318*	*8.382*	▲	*+659*
II maila	*31*	*100*	*689*	*1.030*	*5.094*	*6.945*	▲	*+626*
III. maila	*22*	*64*	*440*	*591*	*3.720*	*4.837*	▲	*+467*
Guztira	**85**	**277**	**2.377**	**3.293**	**14.133**	**20.165**	▲	**+1.753**
Δ2023-2030	**▼-29**	**▲+25**	**▼-132**	**▲+73**	**▲+1.816**	**▲+1.753**		
Gizonak								
Mendekotasuna	141	595	3.342	2.504	5.434	12.016	▲	+819
I maila	*29*	*227*	*1.964*	*1.194*	*2.251*	*5.664*	▲	*+201*
II maila	*77*	*244*	*875*	*807*	*1.906*	*3.909*	▲	*+262*
III. maila	*35*	*124*	*504*	*503*	*1.277*	*2.443*	▲	*+356*
Guztira	**141**	**595**	**3.342**	**2.504**	**5.434**	**12.016**	▲	**+819**
Δ2023-2030	**▼-69**	**▲+1**	**▼-211**	**▲+37**	**▲+1.061**	**▲+819**		
Guztira								
Mendekotasuna	225	872	5.720	5.797	19.567	32.181	▲	+2.572
I maila	*60*	*339*	*3.212*	*2.866*	*7.569*	*14.047*	▲	*+861*
II maila	*108*	*344*	*1.564*	*1.837*	*7.001*	*10.854*	▲	*+888*
III. maila	*57*	*188*	*944*	*1.094*	*4.997*	*7.280*	▲	*+823*
Guztira	**225**	**872**	**5.720**	**5.797**	**19.567**	**32.181**	▲	**+2.572**
Δ2023-2030	**▼-99**	**▲+26**	**▼-342**	**▲+110**	**▲+2.877**	**▲+2.572**		

Iturriak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Saila. Mendekotasunaren Balorazioaren Baremoarekin baloratutako pertsonak abenduaren 31n. Eustat. Proiekzio demografikoak 2036.

3.5 Babesgabetasun-egoerak: egungo egoera, joerak eta 2030erako proiekzioak

Babesgabetasunaren esparruan, egungo egoeraren eta gizarte-premien bilakaerari buruzko aurreikuspenen azterketa bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen aldetik arreta bolumen handiagoa eskatzen duten kontingentzien kasuan jorratuko da: adin txikikoen babesgabetasuna eta indarkeria matxista.

3.5.1.-Babesgabetasun-arriskuan eta -egoeran dauden adin txikiko pertsonak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Sailaren datuek oinarri sendoa ematen dute adin txikikoen artean larritasun handieneko babesgabetasun-egoeren prebalentzia zein den jakiteko.

Datu horiek agerian uzten dutenez, 2022an zehar babesgabetasun-egoera balizkoekin lotutako adin txikikoen gaineko 822 jakinarazpen jaso ziren. Guztiaren % 44,8 familia-erreferente bat duten adin txikikoekin lotzen da, % 29,4 bidaiderik gabeko adin txikiko atzerritarrekin (BGAT), % 14,7 adin txikiko arau-hausleekin eta, azkenik, % 11,1 Ukrainian lehiatzen den gerraren ondorioz Gipuzkoara iritsitako adin txikiko pertsonekin.

Bestalde, datuek erakusten dutenez, 2022ko abenduaren 31n, guztira, 766 haur eta nerabe zeuden harreran, nahikoa modu berdintsuan banatuta egoitza-harrera (% 50,3) eta familia-harrera (% 49,7) artean. Bilakaerari so, eta pandemiaren urteei dagozkion zenbakiak bazter utzita, harreran dauden adin txikikoen kopuruak zertxobait gora egin duela ikusten da, 2018an eta 2019an baino 22 eta 46 pertsona gehiago zenbatzen direlarik, hurrenez hurren.

7. taula. Babesgabetasun-egoeran eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuak artatuta dauden adin txikiko populazioen bilakaera. Gipuzkoa, 2018-2022.

Urtean zehar babesgabetasunarekin lotuta jasotako jakinarazpenak	2018	2019	2020	2021	2022	Bilakaera 2018-22	
Guztira	**1.195**	**959**	**491**	**666**	**822**	▼	**% -31,2**
- Familia-erreferentearekin	325	347	274	331	368	▲	% +13,2
- Adin txikiko arau-hausleak	171	204	81	124	121	▼	% -29,2
- BGAT	699	408	136	211	242	▼	% -65,4
- Ukrainiako iritsitako adin txikikoak	-	-	-	-	91	-	-
Harreran dauden adin-txikikoak abenduaren 31n							
Guztira	**744**	**720**	**665**	**676**	**766**	▲	**% 3,0**
- Egoitza-harrera	376	374	336	348	385	▲	% 2,4
- Familia-harrera	368	346	329	328	381	▲	% 3,5
- Espezializatua	*357*	*334*	*315*	*310*	*362*	▲	% 1,4
- Ez espezializatua	*11*	*12*	*14*	*18*	*19*	▲	% +72,7
Urtean zehar gizarte eta hezkuntza esku-hartzean zein esku-hartze psikosozialeko programetan parte hartu duten adin txikikoak	**1.010**	**980**	**995**	**1.001**	**1.002**	▼	**% -0,8**
Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuak irekitako espedientea izan duten adin txikikoak guztira	**d.g.**	**d.g.**	**1.956**	**1.986**	**2.241**	▲	**% +14,6** (2020-22)

Iturriak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Sailaren Memoriak, 2018-2022.

Zenbaki horietatik abiatuz, eta horiekin Gipuzkoan bizi diren adin txikikoen populazioarekin lotuz ikusten denez, larritasun handieneko babesgabetasun-egoeran Lurralde Historikoko haur eta nerabeen % 1,852a daude.

8. taula. Babesgabetasun-egoeran eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuak artatuta dauden adin txikikoen tasaren bilakaera (kasuak 18 urtetik beherako 100 pertsonako). Gipuzkoa, 2018-2022.

Urtean zehar babesgabetasunarekin lotuta jasotako jakinarazpenak	2018	2019	2020	2021	2022	Bilakaera 2018-22
Guztira	**% 0,963**	**% 0,779**	**% 0,402**	**% 0,559**	**% 0,679**	▼ **% -29,5**
- Familia-erreferentearekin	% 0,262	% 0,282	% 0,224	% 0,278	% 0,304	▲ % +16,1
- Adin txikiko arau-hausleak	% 0,138	% 0,166	% 0,066	% 0,104	% 0,100	▼ % -27,4
- BGAT	% 0,563	% 0,331	% 0,111	% 0,177	% 0,200	▼ % -64,5
- Ukrainiako iritsitako adin txikikoak	-	-	-	-	% 0,075	- -
Harreran dauden adin-txikikoak abenduaren 31n						
Guztira	**% 0,600**	**% 0,585**	**% 0,544**	**% 0,567**	**% 0,633**	▲ **% 5.6**
- Egoitza-harrera	% 0,303	% 0,304	% 0,275	% 0,292	% 0,318	▲ % 5,0
- Familia-harrera	% 0,297	% 0,281	% 0,269	% 0,275	% 0,315	▲ % 6.2
- *Espezializatua*	% 0,009	% 0,010	% 0,011	% 0,015	% 0,016	▲ % +4,0
- *Ez espezializatua*	% 0,288	% 0,271	% 0,258	% 0,260	% 0,299	▲ % +77,1
Urtean zehar gizarte eta hezkuntza esku-hartzean zein esku-hartze psikosozialeko programetan parte hartu duten adin txikikoak	**% 0,814**	**% 0,796**	**% 0,814**	**% 0,840**	**% 0,828**	▲ **% 1,7**
Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuak irekitako espedientea izan duten adin txikikoak guztira	**Daturik gabe**	**Daturik gabe**	**% 1,601**	**% 1,667**	**% 1,852**	▲ **% +15,7** (2020-22)

Iturriak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Saila. Urteko memoriak, 2018-2022. Eustat. Eustat. Biztanleen udal estatistika.

Egoera horiek alde batera utzita, badira babesgabetasun-kasu arin-neurrizkoak, eta baita hautematen ez diren, edo, udalerri mailan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez artatzen diren babesgabetasuneko arrisku-egoerak. Beste egoera horien irismena zenbatesten saiatzeko, Gizarte Premien Inkesta (GPI) erabilgarri daudenen arteko iturri sendoenetako bat da.

Inkestako emaitzetatik abiatuz kalkulatzen denez, 2022an Gipuzkoan, guztira, 3.273 haur eta nerabe egongo lirateke babesgabetasun arrisku-egoeran edo babesgabetasun arin-neurrizkoan; hots, Lurralde Historikoko adin txikiko populazioaren % 2,747. Aurreko edizioetako emaitzekin alderatuz, agerian geratzen da egoera horien prebalentzian goranzko joera nabaria dagoela.

9. taula. Babesgabetasun arrisku-egoera bat edo babesgabetasun arin edo neurrizkoa dagoela adierazten duten problematika ezberdinen bilakaera. Gipuzkoa, 2014-2022.

	Intzidentzia EAEn Gizarte Premien Inkestaren arabera			Gipuzkoan eragindako adin txikiko pertsona kopuruaren zenbatespena[1]			Bilakaera 2014-2022 (%)	
	2014	2018	2022	2014	2018	2022	Intzidentziak	Adin txikikoak guztira
Absentismoa edo 2 urte edo gehiagoko eskola-atzerapena (tasa x 6 urtetik beherako - 16 urteko 100 adin txikiko)	% 0,402	% 0,641	% 0,255	298	510	202	▼% -36,6	▼% -32,1
Eskolan integrazio-arazo larriren bat (tasa x 6-16 urte bitarteko 100 adin txikiko)	% 0,729	% 1,117	% 2,496	540	889	1.979	▲% +242,4	▲% +266,6
Portaera edo jarrera arazoak								
Tasa x 6-14 urte bitarteko 100 adin txikiko	% 0,613	% 0,423	% 0,985	379	280	634	▲% +60,7	▲% +67,5
Tasa x 15-17 urte bitarteko 100 adin txikiko	% 0,894	% 0,039	% 0,470	163	8	105	▼% -47,4	▼% -35,6
Familian arretarik ezarekin / ukazioarekin lotutako arazoak, edo maltratu, jazarpen edo indarkeriakoak								
Tasa x 6-14 urte bitarteko 100 adin txikiko	% 0,146	% 0,582	% 0,444	90	385	286	▲% +204,1	▲% +216,9
Tasa x 15-17 urte bitarteko 100 adin txikiko	% 0,223	% 0,312	% 0,301	41	63	67	▲% +35,0	▲% +65,3
Arrisku edo babesgabetasun arin / neurrizkoa guztira (Estimazioa)	**% 1,233**	**% 1,716**	**% 2,747**	**1.510**	**2.135**	**3.273**	**▲% +122,7**	**▲% +116,8**

Iturriak: EOE. Gizarte Premien Inkesta (GPI), 2014, 2018, 2022. Eustat. Eustat. Eustat. Biztanleen udal estatistika.

Edozein kasutan, haurren babesgabetasun-egoerek epe ertainera izango duen bilakaera proiektatzeak zailtasun bikoitza dakar berekin. Alde batetik, arazoaren izaera bera kontuan izanik, oso faktore anitz eta aldakorrek eragin baitezakete; eta, beste alde batetik, bidaiderik gabeko adin txikiko pertsona atzerritarren iritsiera nahiko zaila delako aurretik iragartzen.

Babesgabetasun-egoeren prebalentziari dagokionez eta, zehazki, arin edo neurrizkoak direnen kasuan, garrantzitsua da zenbait faktore kontuan izatea, iradokitzen dutenak, epe

labur-ertainera bederen, babesgabetasun-arriskuan dauden haurren eta nerabeen proportzioak ez duela behera egingo. Zehazki:

- Guraso bakarreko amadun familiak areagotzea.
- Atzerriko jatorria duten herritar kopurua areagotzea, oro har, laguntza informaleko sare ahulekin eta egoera sozioekonomiko kaskarrago batekin.
- Pobrezia-egoerak beren ardurapean seme-alabak dituzten dituztenen etxeetan metatzea.

Deskribatutakoa kontuan izanik, ez dirudi oso litekeena denik haurren babesgabetasun-egoeren prebalentziak behera egitea 2030. urtera begira. Egindako proiekzioen arabera, kasu honetarako, prebalentzia denboran egonkor mantenduko da. Hurrengo taulan jasotzen diren emaitzek azaleratzen dutenez, prebalentzia mantendu arren, babesgabetasun-egoeran dauden adin txikikoen kopuru osoak behera egitea espero da, adin txikiko populazioarentzat aurreikusten den konpresio demografikoa dela medio.

10. taula. Adin txikiko pertsonen arteko babesgabetasun-egoeren bilakaeraren proiekzioa, Gipuzkoa 2030.

	2022		2030		Bilakaera 2022-2030
	Tasa	Kopurua	Tasa	Kopurua	
Arrisku edo babesgabetasun arin / neurrizkoa	% 2,747	3.273	% 2,747	2.995	▼ -278 (% -8,5)
Babesgabetasun larria	% 1,852	2.241	% 1,852	2.019	▼ -222 (% -9,9)
Guztira	**% 4,599**	**5.514**	**% 4,599**	**5.013**	▼ **-501 (% -9,1)**

Iturriak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Saila. Urteko memoriak, 2018-2022. Eustat. Biztanleen udal estatistika. Eustat. Proiekzio demografikoak 2036.

3.5.2 Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak

Ertzaintzak emakumeen aurkako indarkeriaren biktimizazio eta biktimei buruz berriki emandako datuek adierazten dutenez, 2022an, Gipuzkoan bizi ziren emakumeen % 0,428 indarkeria matxistaren delituren bat pairatuko zukeen. Erregistro horretan islatzen denez, bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriarekin lotutako delituak dira maizen ematen direnak (1.088 guztira, 2022an), eta familia barneko indarkeriarekin

(315) eta askatasun sexualaren aurkakoekin (168) lotutakoak askoz ere gutxiago dira. Bilakaeraren ikuspegi batetik, 2018 eta 2022 bitartean delitu horien biktima diren emakume kopurua nabarmen areagotu zela ikusten da. 287 kasu gehiago erregistratzen dira, % 22,4ko igoeraren baliokide dena.

Edozein kasutan, garrantzitsua da adieraztea aurreko datuek ez dutela hurbilketa perfektu bat eskaintzen Lurralde Historikoan, ez indarkeria matxistako egoeren prebalentziari so ezta bere bilakaerari so ere. Alde batetik, argitu behar da erregistroak ez duela islatzen une jakin batean dagoen biktima kopuru osoa, eta urte jakin batean zehar izandako gertakarietatik eratorritako biktima kopuruari egiten dio erreferentzia. Bestela esanda, aurreko urteetan biktima izandako eta indarkeria horren ondorioak pairatzen jarraitzen duten emakumeak ez dira datu horietan islatzen.

11. taula. Indarkeria matxistaren prebalentziaren bilakaera. Gipuzkoa, 2018-2022.

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima kopurua	2018	2019	2020	2021	2022	Bilakaera 2018-22
Guztira	**1.282**	**1.343**	**1.238**	**1.361**	**1.569**	▲ **% +22,4**
-Bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeria.	892	938	855	898	1.088	▲ % +22,0
-Familia barneko indarkeria (bikoteak edo bikote ohiak eragindako salbuetsita).	257	271	270	293	315	▲ % +22,6
-Askatasun sexuala	133	134	113	170	166	▲ % +24,8
Tasa 100 emakumeko						
Guztira	**% 0,351**	**% 0,366**	**% 0,336**	**% 0,370**	**% 0,428**	▲ **% +22,0**
-Bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeria.	% 0,244	% 0,256	% 0,232	% 0,244	% 0,297	▲ % +21,6
-Familia barneko indarkeria (bikoteak edo bikote ohiak eragindako salbuetsita).	% 0,070	% 0,074	% 0,073	% 0,080	% 0,086	▲ % +22,2
-Askatasun sexuala	% 0,036	% 0,037	% 0,031	% 0,046	% 0,045	▲ % +24,4

Iturriak: Ertzaintza. Delitu-estatistikak. Eustat. Biztanleen udal estatistika.

Bestalde, kontuan izan behar da erregistro ofizialetako datuek arazoaren zati bat baino ez dutela islatzen; izan ere, salaketa ipintzera edo laguntza eskatzera instituzioetara urreratzen ez diren emakumeak ez dira horietan ageri. Haatik, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen (2018-2021) irizpideari jarraituz, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako Gizarte Zerbitzuetako eskarien proiekzioa Ertzaintzak

emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen inguruan ematen dituen datuetan oinarritzen dira.

Esparru horretan Gizarte Zerbitzuetako etorkizuneko eskariari eragingo dion ziurgabetasun-faktore bat indarkeria matxistaren biktima diren emakume etorkinak eta errefuxiatuak dira, inolako zalantzarik gabe. Bere egoera ekonomiko, administratibo eta sozial kaskarraren ondorioz, kolektibo hori bereziki zaurgarria da arazo horren aurrean. Edonola ere, egoera espezifiko horien bilakaera, hein handi batean, ezin da aurrez iragarri, eta neurri handi batean migrazio-fluxuen baitakoa izango da.

Ildo horretatik, deskribatutakoaren eta azken epealdian erregistratutako bilakaeraren arabera, ez da espero indarkeria matxistaren egoeren prebalentzia murriztea 2030. urteari begira. Proiekzioak, ikuspuntu kontserbatzaile bat hartuz, prebalentzia mantenduko dela aintzatetsiz egin dira, eta horrek emakume biktimen kopurua zertxobait igotzea izango luke ondorio gisa.

12. taula. Indarkeria matxistaren prebalentziaren bilakaeraren proiekzioa. Gipuzkoa 2030.

	2022		2030		Bilakaera 2022-2030
	Tasa	Kopurua	Tasa	Kopurua	
Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak	% 0,428	1.569	% 0,428	1.618	▲ +49 (% +3,1)

Iturriak: Ertzaintza. Delitu-estatistikak. Eustat. Biztanleen udal estatistika. Eustat. Proiekzio demografikoak 2036.

Oharra: prebalentzia-tasak emakumeen populazio osoarekiko kalkulatzen dira.

3.6 Pobrezia, desberdintza, eta gizarte-bazterkeria egoerak: egungo egoera, joerak eta 2030erako proiekzioak

Gipuzkoako pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren 4. inkestako emaitzek Lurralde Historikoan pobreziaren, desberdintzaren eta gizarte-bazterkeriaren egoeren irismenari eta bilakaerari dagokienez bost ondorio nagusi uzten dituzte:

1. Bilakaeraren ikuspegi batetik, datuek erakusten dutenez, pobreziarekin, desberdintzarekin eta gizarte-bazterkeriarekin lotutako adierazle gehienak hobetu egin dira Gipuzkoan 2018. urtearekin alderatuz (ikus 12. taula).

2. Aurrekoa alde batera utzita, adierazi behar da adierazle espezifiko batzuek okerrera egin dutela, esate baterako, pobrezia larriarenak, % 5,3tik % 5,9ra igo baita, egoera horrek eraginda 4.300 pertsona gehiago daudelarik.

3. Pobreziaren eta bazterkeriaren egoerek modu desproportzionatuan eragiten dute talde soziodemografiko jakinetan, bereziki, haurren eta nerabeengan, eta nazionalitate atzerritarra duten pertsonengan. Adin txikikoei dagokienez, populazio osoaren % 16,3 soilik izan arren, Gipuzkoan pobrezia larrian dauden pertsona guztien herena dira ia. Nazionalitate atzerritarra duten pertsonen kasuan, desabantaila-egoera are nabarmenagoa da. Populazioaren % 10,3 izan arren, Lurralde Historikoan pobrezia larrian dauden pertsona guztien % 49 dira.

4. Lurraldekako alderaketa eginez, estatuan zein nazioartean, Gipuzkoak oso egoera positiboa agertzen du pobreziaaren eta bazterkeriaren adierazle gehienei dagokienez. Haatik, alderaketa eginez Gipuzkoak duen egoera mesedegarria populazio osoari dagokio, baina ez da egoera hori ematen, ezinbestean, talde soziodemografiko guztietan.

5. Jatorri atzerritarreko pertsonak eta haur eta nerabeak ez ezik, pobreziaren eta bazterkeriaren egoeren aurrean zaurgarritasun handiagoa duen beste talde soziodemografiko bat guraso bakarreko etxeetakoa da. Etxe horietan gehienetan, seme-alabak dituen emakume bakar bat bizi da eta, horregatik, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren atzerritartasun kutsu horrekin batera, feminizazioari ere erreparatu zaio.

Garrantzitsua da adieraztea, sarritan, aipatu kolektiboak gainjarri egiten direla, aurre egin behar dituzten egiturazko desberdintzak areagotuz. Horri dagokionez, haurren pobrezia aztertzeko garaian, agerikoa da bereziki zaurgarriak diren gainerako profilekin

duen lotura estua; izan ere, modu desproportzionatuan eragiten die jatorri atzerritako haur eta nerabeei, eta baita guraso bakarreko etxeetakoak direnei.

13. taula Pobreziaren eta desberdintzaren adierazle nagusien bilakaera. Gipuzkoa 2018-2022.

		2018		2022		Bilakaera 2017-2022		
		Tasa	Kopurua	Tasa	Kopurua		Kopurua	pertsonak (%)
EU-SILC adierazleak	Pobreziaren edo diru-sarrera baxuen arriskua (% 60 ertaina)	% 16,4	117.157	% 14.4	102.360	▼	-14.797	% -12,6
	Pobrezia larria (% 40 ertaina)	% 5.3	37.838	% 5.9	42.214	▲	+4.376	% +11,6
	Gabezia material eta sozial larria	% 6,9	49.110	% 2,5	17.862	▼	-31.248	% -63,6
	Lan-intentsitate txikia	% 5.7	40.375	% 5.4	26.276	▼	-14.099	% -34,9
	Pobreziaren eta bazterkeriaren arriskua (AROPE)[1]	% 19.2	137.051	% +15,9	113.245	▼	-23.806	% -17,4
	Populazio okupatuaren pobrezia-arriskua	% 10.0	29.445	% 7,0	20.350	▼	-9.095	% -30,9
	Pobrezia-arriskua gizarte-transferentzien aurretik	% 20,1	143.114	% 17,9	127.356	▼	-15.758	% -11,0
	Pobrezia larria gizarte-transferentzien aurretik	% 9,4	67.073	% 9,0	64.023	▼	-3.050	% -4,5
FOESSA adierazleak	Integrazio osoa	% 56,9	406.341	% 59,0	419.939	▲	+13.598	% +3,3
	Integrazio prekarioa	% 29,3	209.071	% 24,9	176.928	▼	-32.143	% -15,4
	Neurrizko bazterkeria	% 9,1	64.852	% 6,4	45.653	▼	-19.199	% -29,6
	Bazterkeria larria	% 4,7	33.273	% 9,7	68.925	▲	+35.652	% +107,1
Desberdintza-adierazleak	Giniren koefizientea	25,3		23,0		▼	-2,3	% -8,9
	S80/S20	3,8		3,5		▼	-0,3	% -7,4
	Txiroagoa den % 10aren diru-sarreren portzentajea	3,7		3,4		▼	-0,3	% -8,1

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Saila. Gipuzkoako pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren 3. eta 4. inkesta.

Beste alde batetik, azken urteetan gizarte-bazterkeria eta pobrezia prozesuetan garrantzi handiagoa hartu duten dimentsioetako bat bizitegi-bazterkeriarena eta etxebizitza eskuratu, mantendu edo galtzearekin lotutako arazoena da. Etxebizitza eskuratu eta mantentzeko prezioak areagotzeari, alderaketa eginez, laneko errenten igoera mugatua gaineratuta, errentaren gainean etxebizitzaren kostuen gehiegizko karga ageri da, etxebizitza bat eskuratzea zailduz eta pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren prozesuetan eragin zuzena duten zailtasun ekonomikoko egoerak sorraraziz.

Arazo horrek bereziki eragiten du gazteenen artean, lan-prekarietateari eta etxebizitzaren merkatuan sartzeko ezintasunari aurre egin behar dietenak; eta horren isla da emantzipazio-adina atzeratu egiten dela. Halaber, nazionalitatea bizitegi-bazterkeriaren arrisku handiago baterako ezaugarri erabakigarri modura konfiguratzen da.

Bizitegi-bazterkeriako egoera larrienei dagokienez, *EAEko Bizitegi-bazterkeria larrian dauden pertsonei buruzko VI. azterlanak (2022)* aukera ematen du arazo horiek azken urteetan zer bilakaera izan duten aztertzeko. 2018-2022 bitartean, Gipuzkoan, bizitegi-bazterkeria larrian dauden pertsonen kopuru osoak % 50,7 egin du gora, eta 455 pertsona gehiago identifikatu dira egoera horretan. Igoera handiena, termino absolutuetan, gizarteratzeko beste baliabide batzuetan gertatu da (295 pertsona gehiago). Orotara, egoera horretan identifikatutako 10 pertsona gehigarritatik ia 7 baliabide horietan edo indarkeria matxistari dagokionean kokatzen ziren. Horrek esanahi du erregistratutako igoera, funtsean, gizarte-babeserako sistemaren arretarako gaitasun handiagoaren ondorio dela.

‘Aterperik gabeko’ pertsonei, hots, kalean edo aterpe eta gaueko harrera-zentrotan dauden pertsonei dagokienez, erregistratutako bilakaera ezberdina da aintzatetsitako egoeraren arabera. Kalean dauden pertsonen kopurua oso modu esanguratsuan igo da, 2018. urtearekin alderatuz kopurua ia bikoiztuz (140tik 276ra igaroz 2018 eta 2022 bitartean). Aitzitik, aterpetan eta harrera-zentrotan dagoen pertsona kopurua egonkor mantendu da gehienbat.

14. taula. Gaurko kontaketetan identifikatutako bizitegi-bazterkeria larrian dauden pertsonen kopuruaren bilakaera. Donostia eta Gipuzkoa, 2018-2022.

	Donostia				Gipuzkoa			
	2018	2020	2022	Bilakaera 2018-2022	2018	2020	2022	Bilakaera 2018-2022
Kalea	101	79	218	+117 (% +115,8)	140	49	276	+136 (% +97,1)
Aterpeak eta gaueko harrera-zentroak	142	72	108	-34 (% -23,9)	172	106	174	+2 (% +1,2)
Indarkeria matxistaren baliabideak	19	48	20	+1 (% +5,3)	33	57	55	+22 (% +66,7)
Gizarteratzearekin lotutako beste zenbait baliabide	270	261	304	+34 (% +12,6)	552	511	847	+295 (% +53,4)
COVID-19 baliabide bereziak	-	128	-	-	-	234	-	-
Guztira	**532**	**588**	**650**	**+118 (% +22,2)**	**897**	**957**	**1.352**	**+455 (% 50,7)**

Iturria: EAEn bizitegi-bazterkeria larrian dauden pertsonen egoerei buruzko ikerketa-sorta, 2018ko, 2020ko eta 2022ko edizioak.

Pertsona horien profilean dauden aldaketei erreparatuz, azterlanak adierazten duenez, pertsona gazteenen garrantzi espezifikoa zertxobait areagotu da, eta baita jatorri atzerritarreko pertsonena ere.

Gizarte-bazterkeriaren balioespen eta diagnosirako Zerbitzuak balioetsitako pertsonei buruzko datuek iturri sendoa ematen dute Gipuzkoan gizarte-bazterkeriaren prebalentzia kuantifikatzen saiatzeko. 2019-2022 bitartean, guztira 1.333 ebazpen eman dira gizarte-bazterkeria edo pairatzeko arriskua adierazten duen irizpen batekin. Gutxi gorabeherako adierazle gisa, zifra horrek, modu ez-perfektuan, isla lezake egoera horien prebalentzia gaur egun, % 0,221eko tasa erakutsiz 18 urte eta gehiagoko biztanleriarekin lotuta.

Urteko bilakaerari erreparatzen bazaio, 2019 eta 2022 bitartean, gizarte-bazterkeria edo pairatzeko arriskua adierazten duen balioespen kopurua zertxobait areagotu dela ikusten da. Edonola ere, azpimarragarriena da, epealdi honetan zehar, gizarte-bazterkeriaren balioespena adierazten duten ebazpenek modu adierazgarrian areagotu direla, eta gizarte-bazterkeria izateko arriskuari buruzkoak modu nabarian murriztu dira.

15. taula. Gizarte-bazterkeria arriskuaren eta gizarte-bazterkeriaren gaineko irizpenen bilakaera gizarte-bazterkeriaren balioespena eta diagnosia egiteko Zerbitzuak egindako bazterkeriaren balioespenetan. 2019-2022

Irizpen kopurua							
	2019	2020	2021	2022	Bilakaera 2019/22		∑ 2019/22
Gizarte-bazterkeriaren arriskua	**144**	**86**	**76**	**45**	▼	**-99**	**351**
Gizarte-bazterkeria arina	68	87	152	158	▲	+90	465
Neurrizko gizarte-bazterkeria	84	77	135	128	▲	+44	424
Gizarte-bazterkeria larria	15	16	24	38	▲	+23	93
Gizarte-bazterkeria	**167**	**180**	**311**	**324**	▲	**+157**	**982**
GUZTIRA	**311**	**266**	**387**	**369**	▲	**+58**	**1.333**

Banaketa (%)							
	2019	2020	2021	2022	Bilakaera 2019/22		∑ 2019/22
Gizarte-bazterkeriaren arriskua	**% 46,3**	**% 32,3**	**% 19,6**	**% 12,2**	▼	**% -18,6**	**% 26,3**
Gizarte-bazterkeria arina	% 21,9	% +32,7	% 39,3	% 42,8	▲	% +6,7	% 34,9
Neurrizko gizarte-bazterkeria	% 27,0	% 28,9	% 34,9	% 34,7	▲	% 9.9	% 31,8
Gizarte-bazterkeria larria	% 4,8	% 6.0	% 6.2	% 10.3	▲	% 16,0	% 7,0
Gizarte-bazterkeria	**% 53,7**	**% 67,7**	**% 80.4**	**% 87,8**	▲	**% +8,9**	**% 73,7**
GUZTIRA	**% 100,0**	**% 100,0**	**% 100,0**	**% 100,0**			**% 100,0**

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Saila.

Laburki, 2019-2022 bitartean gizarte-bazterkeria arriskuaren edo gizarte-bazterkeriako balioespena jaso duten pertsonen ezaugarri soziodemografikoei dagokienez, zera ondorioztatzen da (ikus 10 zenbakidun grafikoa).

- Gizonezkoak dira herena baino gehiago (% 75,6).
- Ia 10etik 6k 40 urte baino gutxiago ditu (% 59,4).
- Ia 10etik 7 atzerrian jaio dira, eta ia bi heren Europaz kanpoko herrialdetatik datoz.

Halako arazoen izaera bereziki konplexua dela medio, oso zaila da epe labur-ertainera begira gizarte-bazterkeriako egoeren bilakaerari buruzko pronostiko bat egitea. Egungo

prebalentzia-tasa mantentzearekin lotutako proiekzioa egiten bada —aurretiaz zehaztutako irizpideen arabera kalkulatuta— zera ondorioztatzen da: 2030ean, guztira 1.371 pertsona egongo dira gizarte-bazterkerian edo izateko arriskuan, gaur egun baino zertxobait gehiago. Edozein kasutan, hainbat faktorek iradokitzen dutenez, gizarte-bazterkeriako egoeren prebalentzia handiagoa izan liteke 2030. urteari begira. Alde batetik, atzerriko immigrazio-fluxuen iraunkortasun proiektatua dago. Bestalde, ez da ahantzi behar kalean dauden pertsona kopuruan erregistratutako igoera; izan ere, horrek, era berean, epe labur eta ertainean behinik behin, kolektibo horretara baliabide gehiago bideratzea eragingo du.

10. grafikoa Gizarte-bazterkeriaren eta izateko arriskuaren irizpen kopurua eta banaketan bazterkeriaren balioespenetan sexuaren, adinaren eta jaioterriaren arabera. Bilakaera eta datu gehituak. 2019-2022



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Saila.

3.7 Ondorioak

3.7.1 Populazioaren estimazioa 2030era begira

Populazioaren hazkundean eragiten duten fenomeno demografikoei dagokienez, azaleratu denez, azken epealdian zehar, Gipuzkoan agertoki berri bat ageri da, saldo begetatibo negatiboekin eta migrazio-saldo positibo nabarmenekin. Erreferentzia modura erabilitako populazioaren proiekzioek 2030. urteari begira dinamika horiek mantendu egingo direla aurreikusten dute. Proiekzio horien pronostikoen arabera, Lurralde Historikoko populazioan % 2,5 haziko da, 737.800 biztanle inguruan kokatu arte. Igoera, hori, migrazioen bidezko ekarpen garbien ondorio izango dira esklusiboki.

Populazioaren igoera horrekin batera, aldaketa handiak egongo dira adin-egituran. Adin-multzo handien arabera, aurreikusten denez, 65 urte eta gehiagoko biztanlerian egongo da igoera handiena (% +15,1), Gipuzkoako populazio osoaren laurdena izateraino 2030ean (% 26,2). Kolektibo horren barruan, hazkunde handienak adin nagusieneko populazioan gertatzea espero da. Horrela, populazioaren 'gehiegizko zahartze' prozesua bizkortu egingo da.

0-19 urte bitarteko populazioari dagokionez, % 9ko igoera aurreikusten da. Horren ondorioz, talde horren garrantzi espezifikoa populazioaren % 19,0tik % 16,8ra pasako da.

3.7.2 Mendekotasun-egoeren estimazioa 2030. urteari begira

Datu berrienen arabera, mendekotasunaren prebalentzia populazioaren % 5,0ra iritsiko da. Tasa horiek, ordea, igo egiten dira adinean aurrera egin ahala. 65-79 urte bitarteko biztanleriaren kasuan prebalentzia % 6,4koa da, eta 80 urte edo gehiago dituzten pertsonen artean, % 39,2ra igotzen da.

80 urte eta gehiagoko biztanlerian egoera horren prebalentziari dagokionez sexuen arabera dagoen aldea azpimarratu behar da. Adin horretako emakumeen % 44 mendekotasuna izateko arriskuan edo egoera horretan dago; adin bereko gizonen kasuan,

portzentajea % 29,6koa da. Alde hori azaltzen duen faktoreetako bat adin-talde honen barnean emakumeen batez besteko adin aurreratuagoa da. Beste faktore bat emakumeek, hilgarriak ez, baina desgaitasuna eragin dezaketen gaixotasunak pairatzeko joera handiagoarekin lotzen da.

Hipotesi modura, prebalentziari dagokionez gaur egungo tasak mantenduko direla aintzatetsiz, 2030. urteari begira, Gipuzkoan gutxienez I. mailako mendekotasuna duten pertsona kopuruak egungo 27.951 pertsonatik 32.181 pertsonara areagotuko dela aurreikusten da. Bestalde, mendekotasunezko arrisku-egoera batean dauden herritarren kopurua 8.353 pertsonatik 9.625 pertsonara igoko dela espero da. Orotara, proiekzioen arabera, aintzatetsitako egoeraren batean 5.502 pertsona gehiago egongo dira.

Halaber, narriadura kognitiborekin, gaixotasun mentalarekin edo adikzioekin lotutako arazoak dituzten gizarte zerbitzuetako balizko erabiltzaile kopuruak gora egiten duela ikusten da.

3.7.3 Babesgabetasun-egoeren estimazioa 2030. urteari begira

Babesgabetasun-arriskuan eta -egoeran dauden adin txikiko pertsonak

Babesgabetasun-egoera larrienei dagokienez, estimazioen arabera, Gipuzkoan bizi diren haur eta nerabeen % 1,852ri eragiten die, guztira 2.241 kasurekin. Gainera, agerian geratu da arazo horien joaera gorantz doala azken urteotan, eta arreta-zerbitzu guztietan eskaria handitu egin da, baita horietan esku hartzeko behar den denbora ere.

Aurretiaz aipatutakoak alde batera utzita, babesgabetasun-egoera arin-neurrizkoak ere badira, eta baita babesgabetasun-arriskua. Gipuzkoan arazo horien prebalentzia hurbiltzeko asmoz, kalkulatzen denez, 18 urtetik beherako 3.273 pertsonei eragiten die, hots, Lurralde Historikoan bizi den adin txikikoen % 2,747. Larritasun handiagoko egoerekin gertatzen den eran, egoera horien prebalentziak ere igoera nabaria izango luke.

Prospekzioko ikuspegi batetik, babesgabetasun-egoeren prebalentzia epe labur-ertainera so ez dela jaitsiko iradokitzen duten faktore ugari daudela ikusi da. Aurrekoarekin lotuta, gero eta adin txikiko pertsona gehiago eta denbora gehiagoan artatzeak ere, antzeko egoera iradokitzen du.

Egoera horien prebalentzia 2030. urteari begira maila berdinetan mantenduko dela aintzatetsiz, egindako estimazioek erakusten dutenez, arazo horietakoren batek eragindako haur eta nerabeen kopuru osoak behera egingo du. Jaitsiera hori adin-tarte horretarako proiektatutako konpresio demografikoak azaltzen du, eta kalkulatzen denez, halako arazo motek eragindako adin txikiko 500 pertsona gutxiago egongo dira gutxi gorabehera.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak

Azterketan erreferentzia modura erabilitako iturriekin bat etorriz, 2022an, Gipuzkoan bizi diren emakumeen % 0,428 indarkeria matxistako delituren baten biktima izango litzateke (guztira, 1.569). Azken urteetan, delitu horien biktima diren emakumeen kopurua modu nabarian areagotu dela ikusten da, % 22,4ko igoera erregistratuz, 287 kasu gehiagorekin. Edozein kasutan, garrantzitsua da adieraztea, hainbat arrazoi direla medio, neurri horrek indarkeria matxistaren egoeren prebalentziaren gaineko hurbilketa ez-perfektua eskaintzen duela, eta baita bere bilakaeraren inguruan ere.

Esparru horretan Gizarte Zerbitzuetako etorkizuneko eskariari eragingo dion ziurgabetasun-faktore bat indarkeria matxistaren biktima diren emakume etorkinak eta errefuxiatuak dira, inolako zalantzarik gabe. Bere egoera ekonomiko, administratibo eta sozial kaskarraren ondorioz, kolektibo hori bereziki zaurgarria da arazo horren aurrean. Litekeena da horrek, 2030. urteari begirako proiekzio demografikoetan aurreikusten diren immigrazio-fluxuen iraunkortasuna gaineratuta, egoera espezifiko horien igoera ekartzea.

Ikuspegi kontserbadoreago bat hartuz, 2030erako proiekzioak premisa bati jarraituz egin dira, hots, egoera horien prebalentzia konstante mantenduko dela. Eskuratutako

emaitzaren arabera, emakume biktima kopurua zertxobait areagotuko da, azken zifra 1.600 emakumetik gora igoz.

3.7.4 Gizarte-bazterkeriako egoeren estimazioa 2030. urteari begira

Gipuzkoan pobreziari, desberdintzari eta gizarte-bazterkeriari buruzko adierazle nagusienek utzi dituzten azken emaitzek hobekuntza orokorra erakusten dute. Haatik, adierazle horiek, era berean, erakusten dute pobrezia- eta bazterkeria-egoerek modu desproportzionatuan eragiten dutela talde soziodemografiko jakin batzuetan; zehazki, nazionalitate atzerritarra duten pertsonengan, haurrengan eta nerabeengan, eta guraso bakarreko familiengan. Sarritan, kolektibo horiek gainjarri egiten dira, aurre egin behar dituzten egiturazko desberdintzak areagotuz.

Azken urteetan gizarte-bazterkeria eta pobrezia prozesuetan garrantzi handiagoa hartu duten dimentsioetako bat bizitegi-bazterkeriarena eta etxebizitza eskuratu, mantendu edo galtzearekin lotutako arazoena da. Bizitegi-bazterkeria egoera larrienei erreparatuz, datuek erakusten dutenez, egoera horretan dauden pertsona kopuru osoa % 50,7 areagotu da 2018. eta 2022 artean, Gipuzkoan egoera horretan 455 pertsona gehiago identifikatuz. Igoera hori, funtsean, gizarte-babeserako sistemaren arretarako gaitasun handiagoaren ondorio da. Edonola ere, adierazi behar da kalean dagoen pertsona kopurua modu adierazgarrian areagotu dela, 2018. urtearekin alderatuz kopurua ia bikoiztuz.

Gizarte-bazterkeriaren arriskuaren eta gizarte-bazterkeriaren egoeren prebalentzia zehaztu eta dagokion prospekzio-azterketa egiteko, Gizarte Bazterkeriaren Balioespen eta Diagnosia egiteko Zerbitzuak emandako informaziora jo da. Gizarte-bazterkeria arriskuaren edo gizarte-bazterkeriaren irizpena agertzen duten ebazpenen kopuru osoa gutxi gorabeherako adierazle modura hartuta, Gipuzkoan, 2019-2022 artean, % 0,221eko prebalentzia lortzen da, guztira 1.333 kasurekin.

2030. urteari so, egungo prebalentzia-tasa mantenduko dela proiektatzen bada, zera lortzen da: gutxi gorabehera, 1.370 pertsona egongo dira bazterkeria izateko arriskuan edo egoera horretan; gaur egungoa baino zifra zertxobait handiagoa Edozein kasutan, hainbat faktorek iradokitzen dutenez, gizarte-bazterkeriako egoeren prebalentzia

handiagoa izan liteke 2030. urteari begira. Adierazgarriena, atzerriko immigrazio-fluxuen iraunkortasun proiektatuarekin lotuta dago.

4. GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN SAREA 2030. URTEARI BEGIRA: DEFIZITEN EBALUAZIOA ETA BEHARREZKO BALIABIDEEN PROIEKZIOA

4.1 Sarrera

EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Mapan, 2030. urteari begira, eta Lurralde Historikoko mailan GZES sistema osatzen duten zerbitzu eta prestazio bakoitzari dagokionez, estaldurarekin eta plaza kopuruarekin zerikusia duten proposamen espezifikoak ezartzen dira. Kapitulu honetan, alde batez, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen sareak estaldura-proposamen horiei dagokienez duen egoera aztertzen da, eta beste alde batetik, epe ertainera proiektatutako premiei erantzuteko sarearen beraren egokitasuna ebaluatzen da. Bi kasuetan, ikerketari lurralde ikuspegi bikoitz batetik heltzen zaio: lehenik eta behin, Lurralde Historiko mailan egoera orokorra zein den azaltzen da laburki eta, jarraian, xehetasun handiagoko azterketa bat egiten da zerbitzu ezberdinak hedatzeko aintzatetsitako 'lurralde- edo geografia-eremuen' arabera. Kapitulu honen ekarpen nagusia Gizarte Zerbitzuen sareak duen egungo egoeraren eta etorkizunean izango dituen premien banaketa geografikoa egitea da. Aitzitik, Lurralde Historikoa bere osotasunean hartzen duen erradiografia EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Mapa barne hartzen duen ariketa da. Edonola ere, kontuan izanik azterketa hau egiteko erreferentziazko informazioa 2023. urteari dagokiona, eta Mapan 2019. urtea hartzen dela abiapuntu, dokumentu honetan jasotako emaitzen ikuspegi eguneratu bat ematen duela uler daiteke.

Azterketak Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen sarea hedatzeko plangintzaren ikuspegitik, garrantzitsuenetzat jotzen diren zerbitzu eta prestazio ekonomikoei erreparatzen die. Horiek 16 zenbakidun taulan zehazten dira, hedapenerako dagokion geografia-eremuarekin batera. Horren harira, zehaztu behar da banaketarako aintzatetsi den maila maximoa gizarte zerbitzuen Eremuena dela. Horrenbestez, hurbiltasun-maila handiagoa esleituta duten zerbitzuen kasuan —zehazki, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzurako, zeinaren geografia-eremua gizarte zerbitzuetako Oinarrizko Zerbitzua baita—, azterketa esparru mailan gauzatu da.

Gizarte Zerbitzuen sareak 2030. urteari begira finkatutako estaldura-proposamenen ikuspuntutik ebaluatzeari dagokionez, azterketan, nagusiki, aintzatetsitako zerbitzu ezberdinekin lotzen diren zentroetan dagoen plaza kopuruari buruzko datuak hartu dira oinarritzat. Plaza kopurua neurgarria ez den zerbitzuen kasuan, bestelako neurketa modu batzuk hartzen dira, esate baterako, arreta-ordu kopurua edo urtean zeharreko pertsona erabiltzaile kopuru osoa edo abenduaren 31ra artekoa. Laburbilduz, azterketa Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen sarearen egungo zuzkidurari buruzko informaziotik abiatuz (plazak, arreta-orduak, pertsona erabiltzaileak) egiten da. Gainera, modu osagarrian, ahal den heinean, aztertutako zerbitzuetan dauden itxarote-zerrendekin lotuta eskuragarri dauden datuak erabiltzen dira. Datu horiek zenbait murriztapen badituzte ere, soilik bigarren mailako arretarako baitaude eskuragarri, zerbitzu horiek gaur egun duten egoera aztertzeko ikuspegi zabalago bat lortzeko erabil daitezke.

16. taula. Katalogoko zerbitzu nagusiei esleitutako lurralde-eremua

Zerbitzu/prestazio ekonomikoa	Lurralde-eremua
MENDEKOTASUNA ETA ADIN NAGUSIKO PERTSONAK	
Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua – ELZ (1.2)	Oinarrizko Zonaldea
Adin nagusikoentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.1)	Eremua
Adin nagusikoentzako alojamendu-zerbitzua (1.9.3, 1.9.4)	Eremua
Autonomiarekin zerikusia duten murriztapenetatik eratorritako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa (2.2.1.1)	Eremua
Adin nagusikoentzako egoitza-zentroak (2.4.1)	Eremua
DESGAITASUNA	
Autonomiarekin zerikusia duten murriztapenetatik eratorritako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa pertsona desgaituentzat (2.2.1.2/3)	Sektorea
Autonomiarekin zerikusia duten murriztapenetatik eratorritako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzat (2.2.1.4)	Sektorea
Okupazio-zerbitzu edo -zentroa (2.2.2)	Eremua
Pertsona desgaituentzako egoitza-zentroak (2.4.2)	Sektorea
Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.3)	Sektorea
Arreta Goiztiarreko esku-hartze Sozialeko Zerbitzua (2.7.4)	Lurralde Historikoa
BABESGABETASUNA	
Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-pisua (1.9.1.2)	Eremua
Adin txikikoentzako egoitza-zentroak (2.4.4)	Eskualdea
Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste zenbait bizitegi-zerbitzu (2.4.6)	Sektorea
GIZARTE-BAZTERKERIA	
Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.2)	Eskualdea
Gaueko harrera-zerbitzua (1.8)	Eskualdea
Gizarte larrialdi-egoerak artatzeko harrera-pisua (1.9.1.1)	Eskualdea
Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako babespeko etxebizitza (1.9.2)	Eskualdea
Gizarteratzearekin lotutako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa (2.2.3)	Sektorea
Gizarteratzearekin lotutako premiak artatzeko gaueko harrera-zentroa (2.3.2)	Lurralde Historikoa
Bazterkeria- edo marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.5)	Sektorea

Ebaluazio horrekin batera, 2030. urteari begira finkatutako estaldura-proposamenak erdiesteko beharrezkoak diren baliabideen (plazak, arreta-orduak, etab.) prospekziozko azterketa bat ematen da. Berau eratzeko, egun estaldurari dagokionez dauden datuez gai, ezinbestekoa da zerbitzu bakoitzeko populazio-talde hartzaileen bilakaera demografikoari buruzko aurreikuspenak izatea. Biztanleriaren gainean erabilitako datuak EUSTAT erakundeak egindako Proiekzio Demografikoetatik hartu dira.

Eranskineko 25 zenbakidun taulan 2030. urteari begirako biztanleria-proiektuak jasotzen dira, aztertutako zerbitzu eta prestazio ekonomikoetako hartzaile diren populazio-talde ezberdinei dagokienez.

Edonola ere, garrantzitsua da adieraztea EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Mapan 2030. urteari begira zehaztutako estaldura-proposamenek eta, horrenbestez, sarean helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren baliabideei buruz egindako proiekzioek, izaera orientagarria baino ez dutela. Horrela, lurraldean beren eskumeneko zerbitzuak ezartzeko ardura duten erakundeek kontuan hartu beharreko jarraibide adierazgarri gisa hartzen dira. Irizpide horiez gain, sarearen plangintzan zein hedapenean, eskumeneko instituzioek baliabideak modu osokoan, arrazoizkoan eta eraginkorrean antolatu eta aprobetxatzeko printzipioa bete beharko dute. Hau da, erabilgarri dauden baliabideak modu malgu eta konbinatuan (formalak-ez formalak, publikoak-pribatuak, etab.) erabiltzen ahaleginduko dira, horiek modu eraginkorragoan aplikatzea bermatzeko.

Azalpena GZES sistemaren estalduraren xede diren lau kontingentzien arabera antolatzen da (mendekotasuna, desgaitasuna, babesgabetasuna eta bazterkeria). Kontingentzia horietako bakoitzari erantzutera begira dauden zerbitzu eta prestazio guztietarako, egungo egoeraren ebaluazioari buruzko azterketak eta 2030. urteari begira beharrezkoak diren baliabideen proiekzioaren azterketak egiten dira, modu bereizian.

4.2 Adin nagusiko pertsonen mendekotasun-autonomiaren esparrua

4.2.1 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ikuspegi orokorra

Gipuzkoa osoa barne hartzen duten datuek erakusten dutenez, mendekotasunaren esparruko zerbitzu eta prestazio ekonomiko gehienek, gaur egun, EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Mapan Gipuzkoan 2030. urteari begira proposatutako mailak gainditzen dituzten edo horietara modu esanguratsuan hurbiltzen diren estaldurak dituzte. Haatik, zerbitzu eta prestazio ekonomiko jakin batzuetan arrakala adierazgarriak ikusten dira. Zehazki, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari (ELZ) eta LPPE prestazioari dagokienez.

Abiapuntuko egoera nahiko ona bada ere, 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren kasuan proiektatzen den hazkunde garrantzitsuak plaza kopuruak, arreta-orduak zein 2030. urteari begirako estalduraren planteamenduetara iristeko beharrezkoak diren prestazioak areagotzea ekarriko du. Baliabide gehigarrien premia zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztientzako izango dira oro har, baina zenbait kasutan, egungo zuzkiduraren eta 2030. urteari begirako proiektatzen denaren arteko aldea bereziki nabarmena da:

- ELZ zerbitzuan, 400.000 arreta-ordu gehiago beharko dira.
- FIZPE eta LPPE prestazioei dagokienez 700 eta 1.400 prestazio gehiago onartuko beharko dira, hurrenez hurren.
- Adin nagusikoentzako egoitza-zentroetan 800 plaza gehigarri baino zertxobait gehiago beharko dira (2.4.1). Bestalde, eguneko zentroko zentroetan (2.2.1) 315 gehiago beharko dira.

17. taula. Estaldura-arrakalak eta EAEko GZ Mapako proposamenera iristeko beharrezkoak diren baliabideen proiekzioa. Mendekotasunaren esparrua. 2023-2030.

	Estaldura		Plazak/orduak/prestazioak			
	2023	Proposamena 2030. urteari begira	2023	Proiekzioa 2030[1]	Distantzia[2]	Defizita
ELZ (1.2) [Orduak]	7,556	8,432	1.269.506	1.666.973	% 76	-397.468
Adin nagusikoentzako EZ (1.7.1) [Plazak]	% 0,339	% 0,316	569	626	% 91	-57
Adin nagusikoen alojamendua (1.9.3, 1.9.4) [Plazak]	% 0,388	% 0,334	652	661	% 99	-9
Mendekotasuna duten adin nagusikoentzako EZ (2.2.1.1) [Plazak]	% 0,951	% 0,967	1.597	1.912	% 84	-315
Adin nagusikoentzako egoitzak (2.4.1) [Plazak][3]	% 2,834	% 2,828	4.762	5.590	% 85	-828
LPPE (3.1.1)[4] [Pertsona onuradunak abenduaren 31n]]	% 3,788	% 3,920	6.364	7.751	% 82	-1.387
FIZPE (3.2.1)[4] [Pertsona onuradunak abenduaren 31n]	% 5,101	% 4,683	8.570	9.258	% 93	-688

Oharrak:

(1) 2030ean estaldura-proposamenak lortzeko beharrezkoak den plaza kopurua adierazten du. Balioa EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan erabilitako metodologiarekin bat etorriz eskuratzen da.

(2) 2023ko plaza/ordu kopuruaren eta 2030era begira guztira proiektatzen denaren arteko aldea neurtzen du. 2030. urteari begira proiektatzen diren plaza/ordu/prestazioei dagokienez, gaur egun zer proportzio estaltzen den adierazten duen portzentaje gisa ematen da. Adibidez, distantzia edo aldea % 80koa bada, esanahi du gaur egungo gaitasuna 2030. urteari begira proiektatutako plaza/orduen % 80aren baliokide dela.

(3) Adin nagusikoen egoitzen kasuan (2.4.1), EAEko GZ Mapan estaldurari so finkatutako helburuak erantzukizun publikoko eta ZLPE prestazioko plazen baturarako ezartzen dira. Edonola ere, kontuan izanik 39/2006 Legearekin bat etorriz izaera iragankorra duen prestazioa dela, kalkuluak egitea ez da kontuan izan ZLPE prestazioa. Horrela, egindako proiekzioak zerbitzua guztiz txertatuta egon dadin 2030. urteari begira plaza kopuruan dagoen premia erakusten du. 2023ko abenduaren 31ri dagokion azken datuaren arabera, zerbitzu horretan sartzeko ZLPE prestazioaren onuradun dira guztira 319 pertsona.

(4) Garrantzitsua da adieraztea EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Mapan ez direla prestazio ekonomiko horiek mendekotasunaren kategorian sartzen, baizik eta zeharkako zerbitzuen kategorian. Kategoria horrek multzokatzen ditu kontingentzia baino lojamendua gehiagori erantzuten dien edo herritar guztiei zuzenduak diren GZES sistemako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak.

Puntu honetan azpimarratu behar da adin nagusikoentzako egoitza-zentroetako (2.4.1) eskaria, hein batean, gaur egun, ZLPE prestazioaren bidez asetzen dela. 2023ko abenduaren 31n, zerbitzu horretan sartzeko ZLPE prestazioaren onuradun dira guztira 319 pertsona.

Zerbitzu horietako itxarote-zerrendei buruz eskuragarri dagoen informazioak erakusten duenez, estaldura-mailak nahiko altuak badira ere, asebetetzen ez den eskaria dago. 2023ko abenduaren 31ri dagozkion datuekin bat etorriz, itxarote-zerrendan zeuden pertsonen portzentajea % 22,5 eta % 18,0koa zen, eguneko zentroetako (2.2.1.1) eta adin nagusikoentzako egoitza-zentroetako (2.4.1) plazetan. Hurrengo taulak erakusten duenez, 2023. urtearen amaieran, itxarote-zerrendan dauden pertsonen proportzioa, plaza kopuruarekiko, handiagoa da 2019. urtearen amaieran baino, bi zerbitzuen kasuan.

18. taula. Itxarote-zerrendak mendekotasunaren esparruko zerbitzu eta prestazioetan. Egungo egoera eta bilakaera 2019-2023.

	Itxarote-zerrendan dauden pertsonak (2023/12/31)	Plazak 2023/12/31	Ratioa 2023 (%) [itxarote-zerrenda/ plazak]	Ratioaren bilakaera 2019-2023 (p.p.)[1]	
Mendekotasuna duten adin nagusikoentzako EZ (2.2.1.1)	359	1.597	% +22,5	▲	+8,1 p.p.
Adin nagusikoentzako egoitzak (2.4.1)	856	4.762	% 18,0	▲	+3,0 p.p.

Iturriak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Saila.

Oharra: (1) bilakaera portzentajezko puntutan adierazten da.

4.2.2.- Mendekotasunaren esparruko zerbitzu eta prestazio ekonomikoen banaketa lurraldearen arabera

Aurretiaz, adierazi behar da azterketa honetan aintzatetsitako zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztien hedapenerako lurralde-eremua Gizarte Zerbitzuen Eremua dela. Azterketa hori berresten duen informazio oro xehetasunez jasotzen da Eranskineko 26 zenbakidun taulan.

Emaitzak modu antolatuan eta, ahalik eta era sistematikoenean aurkezteko asmoz, GZES sisteman sartuta dauden zerbitzuetarako ezarritako egituraketaren arabera antolatu da aurkezpena. Lehenik eta behin, lehen mailako arreta-zerbitzuetarako eskuratutako emaitzak aztertzen dira eta, ondoren, bigarren mailako arreta-zerbitzuei

buruzkoak aztertzen dira. Modu gehigarrien, azalpen argiago bat emateko, prestazio ekonomikoak modu bereizian jorratzen dira.

Lehen mailako arreta-zerbitzuak

Guztira, hiru dira azterketan sartzen diren mendekotasunaren esparruko lehen mailako arreta-zerbitzuak:

1) Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua – ELZ (1.2)
2) Adin Nagusikoentzako Eguneko Arreta Zerbitzua (1.7.1)
3) Adin nagusikoentzako alojamendu-zerbitzuak (1.9.3 eta 1.9.4)

Zeharkako ikuspegi batetik, lurraldean hedapena nabarmenki ezberdina dela ikus daiteke. Zenbait eremutan, zehazki, Bidasoaldean, Deba Erdian eta Deba Kostan, zerbitzu horien garapena eskasa da. Hala, gaur egungo estaldurak 2030. urteari begira egindako proposamenetatik oso urrun daude. Aitzitik, Iraurgin eta Tolosaldean hedapena oso nabarmena da, eta aztergai diren hiru zerbitzuetan 2030. urteari begirako proposamenak erruz gainditzen dituzten estaldura mailak erdiesten dira.

Aztertutako lehen mailako arreta-zerbitzuen artean, arestian aipatu den eran, ELZ da arrakala handiena agertzen duena 2030. urteari begirako estaldura-proposamenarekiko, eta zerbitzu horretan dago baliabide aldetiko premia gehien denbora-tarte horretan.

Jarraian txertatzen den grafikoak Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetako eremu ezberdinetan hiru zerbitzu horiek gaur egun duten egoera erakusten du. Zehazki, ELZ zerbitzuaren kasuari erreparatuz ikusten denez, alde batetik, 2023an, 13 eremuetako soilik 5etan dago 2030. urteari begira proposatutako estaldura-maila bera edo handiagoa. Beste alde batetik, 2030. urtean xede estaldurara iristeko asmoz, proiekzioen arabera, eremu guztietan areagotu beharko da ELZ zerbitzuko arreta-ordu kopurua. Beharrezkoak diren ordu kopuruari dagokionez aldeak handiak dira; horrela, Bergaraldean 491 ordu gehiago beharko lirateke, eta Bidasoaldean 105.015 ordu gehiago.

11. grafikoa. 2023an aztertutako mendekotasunaren esparruko lehen mailako arreta-zerbitzuen estaldura eta 2030ean estaldura-proposamena erdiesteko horietako ordu/plaza kopuruaren egokitzapena. Gipuzkoako gizarte zerbitzuen Eremuak.



Oharra: egokitzapenak zerbitzu baterako eremu jakin batean behar diren arreta-orduak edo plaza gehigarriak adierazten ditu, 2030. urteari begira ezarritako estaldura-proposamenetara iristeko xedez. Balio positibo batek baliabide gehiago behar direla adierazten du, eta balio negatibo batek adierazten du gaur egungo zuzkidura nahikoa dela dagokion helburua betetzeko.

Bigarren mailako arreta-zerbitzuak

Bestalde, bi dira aintzatesten diren bigarren mailako arreta-zerbitzuak: eguneko zentroak (2.2.1.1) eta adin nagusikoentzako egoitza-zentroak (2.4.1).

Lehendabiziko zerbitzuari dagokionez ikusten denez, 13 eremuetako 10etan gaur egungo estaldura-mailekin 2030. urteari begirako proposamenak betetzen dira edo gainditu egiten dira. Estaldura apalenak dituzten eremuen artean daude Deba erdia eta Bidasoaldea.

2030ean estaldura-proposamenak betetzeko plaza kopuruaren egokitzapen-premiak aintzat hartuz, garrantzitsua da nabarmentzea eremu batzuetan, gaur egun, 2030erako proposatzen direnak baino plaza gehiago daudela. Hori da Bergaraldea, Urola Garaia, Iraurgi eta Deba Kostaren kasua. Bestalde, Oria Garaia, Oarsoaldea eta Urola Kostan, gaur egun dagoen plaza kopurua dezente hurbiltzen da estaldura-proposamenak betetzeko behar diren kopuruetara, eta horietako kasu bakar batean ere ez dira 8 plaza gehigarri baino gehiago behar. Gainerako eremuen kasuan, proiekzioen arabera, Tolosaldean 20 plaza beharko lirateke, eta Bidasoaldean eta Donostian, 111 eta 128 hurrenez hurren.

Adin nagusikoentzako egoitza-zentroen (2.4.1) egungo estaldurari dagokionez, eremu erdien baino zertxobait gutxiagoan (13tik 5) dago 2030era begira finkatutako proposamena gainditzen duen estaldura, eta beste 8 eremutan mailak apalagoak dira. Azken horien artan, Deba Kostak estaldura bereziki baxua agertzen du.

2030. urteari begira egindako estaldura-proposamena berdintzeko beharrezkoak diren plaza kopuruaren proiekzioari dagokionez, berriz ere hainbat eremutan (Deba Erdia, Iraurgi), gaur egun dagoen plaza kopuruarekin aintzatetsitako premiak gainditzen dira.

Hurrengo grafikoan erakusten den eran, 'soberakin' hori 20 plazakoa da Iraurgin eta 45 plazakoa Deba Erdian. Beren plaza-eskaintza areagotu behar duten eremuen artean, termino absolututan, igoera handiena Buruntzaldean (146 plaza gehiago), Bidasoaldean eta Oarsoaldean (143 plaza gehiago bakoitzean) proiektatzen da.

Zerbitzu horietako itxaron-zerrendei buruzko informazioa gizarte-zerbitzuen arloen arabera banatzeak, bestalde, aukera ematen du zerrenda horien lurralde-hedapena zehatzago aztertzeko. Datu xehatuak Eranskineko 27 zenbakidun taulan jasotzen dira. Edozein kasutan, azpimarratu behar da zerbitzu horien itxarote-zerrenden bolumena ez dagoela soilik estaldura-mailak baldintzatuta. Beste faktore batzuek ere eragiten dute bolumen horretan, esate baterako, lurralde espezifiko batean zerbitzu horiekin lotzen diren gizarte-premia handiagoak, edo gizarte-premia jakin bat asetzeko zerbitzu zehatz batekiko lehentasuna. Horrenbestez, datu horiek aztertzerakoan, funtsezkoa da beharrezkoa den zuhurtziaz jokatzea.

Alde batetik, Deba Erdian eta Bidasoaldean, bi kasuetan alderaketa eginez estaldura baxua dutenak eguneko zentroei dagokienez (2.2.1.1), itxarote-zerrendaren bolumena Lurralde Historikoko batez bestekoa baino dezente handiagoa da. 2023ko abenduaren 31n, Deba Erdian, itxarote-zerrendan zeuden pertsonen portzentajea % 60koa zen plazekiko, eta Bidasoaldean portzentaje hori % 30a baino zertxobait baxuagoa zen. Horrenbestez, ezin da esan, eremu horietan, alderaketa eginez, mugatua den estaldura, zerbitzu horien eskaririk ez izatearen ondorio denik.

Eguneko zentroetan itxarote-zerrenden azterketarekin jarraituz (2.2.1.1), erabilgarri dauden plazekiko itxarote-zerrendan dauden pertsonen portzentaje handiena Urola Kostaldean ematen dela ikusten da (% 63,6). Neurri txikiagoan izan arren, Buruntzaldean ere, alderaketa eginez, portzentaje handia ageri da (% 34,6).

12. grafikoa. 2023an aztertutako mendekotasunaren esparruko bigarren mailako arreta-zerbitzuen estaldura eta 2030ean estaldura-proposamena erdiesteko horietako plaza kopuruaren egokitzapena. Gipuzkoako gizarte zerbitzuen Eremuak.



Oharrak:

(1) Adin nagusikoentzako egoitza-zentroetako plazen banaketa geografikoa bi maila ezberdinen arabera egiten da: plaza soziosanitarioak Sektore mailan (ekialdea, mendebaldea) zehazten dira, eta oinarrizko plazak eta psikogeriatrikoak Eremu mailan esleitzen dira. Bestalde, 2030. urteari begirako estaldura-proposamena kalkulatzeko hiru plaza motak batzen dira. Eremu bakoitzean dauden defizitak ebaluatzeko, bakoitzari plaza soziosanitario kopuru bat esleitzea erabaki da, gaur egun, beren gizarte zerbitzuetako Sektorean dagoen plazen estalduraren arabera. Horrek esanahi du estaldura-mailak eta plaza aldetiko premiak zehazteko ez dela oinarritzat hartzen eremu bakoitzean plaza soziosanitarioen egungo kokapena. Horren ordez, eremu bakoitzari plaza kopuru bat esleitzen zaio, aintzatetsiz horiek modu proportzionalean banatzen direla sektore berdina osatzen duten eremu ezberdinen artean.

(2) egokitzapenak zerbitzu baterako eremu jakin batean behar diren plaza gehigarriak adierazten ditu, 2030. urteari begira ezarritako estaldura-proposamenetara iristeko xedez. Balio positibo batek baliabide gehiago behar direla adierazten du, eta balio negatibo batek adierazten du gaur egungo zuzkidura nahikoa dela dagokion helburua betetzeko.

Adin nagusikoentzako egoitza-zentroei dagokienez (2.4.1), plaza kopuruarekiko itxarote-zerrendan pertsona kopuru osoaren adierazlean balio handiena erakusten duten

eremuak Urola Kostaldea (% 26,6), Bergaraldea (% 23,2), Oarsoaldea (% 22,5) eta Urola Garaia (% 21,4) dira. Eguneko zentroekin alderatuz (2.2.1.1), zerbitzu horri dagokionez itxarote-zerrenden bolumenean lurraldearen arabera ikusten diren aldeak ez dira horren nabariak. Horri dagokionez, Iraurgi (% 9,8), Deba Erdia (% 12,1) eta Leintz Ibarra (% 12,2) dira itxarote-zerrenda laburrenak dituzten eremuak.

Azkenik, ezinbestekoa da egoitza-arretako eta eguneko arretako zerbitzu horiek narriadura kognitiboak edo bestelako dementziak eragindako mendekotasun-egoera larriagoak dituzten adin nagusiko pertsonen eskari gero eta handiagoaren arretara begira espezializatzea. Baliabide berri horien estaldura ezin da atal honetan adin nagusikoen egoitza-zentroetako eta eguneko zentroetako plazen defizit teorikoak zehazteko erabilitako lurralde-eremuekin parekatu.

13. grafikoa Mendekotasunaren esparruko bigarren mailako arreta-zerbitzuetako itxarote-zerrendetako ratioaren (pertsonak/plazak) eta estalduraren arteko erlazioa 2023ko abenduaren 31n. Gipuzkoako gizarte zerbitzuen Eremuak[1].

Autonomiarekin zerikusia duten murriztapenetatik eratorritako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa (2.2.1.1)



Adin nagusikoentzako egoitza-zentroak (2.4.1)[2]



Oharrak:

(1) Puntudun lerro horizontalak itxarote-zerrendan dauden pertsona kopuruaren eta aipagai dugun zerbitzurako Gipuzkoa osoan erabilgarri dauden plaza kopuru osoaren arteko ratioa irudikatzen du. Bestalde, puntudun lerro bertikalak zerbitzu horrek Lurralde Historiko osoan duen estaldura islatzen du. Bi lerroek lau koadrantetan banatzen duten grafikoa, gizarte zerbitzuen eremu bakoitzak itxarote-zerrendei eta aztergai diren zerbitzuen estaldurari dagokienez duen egoera deskribatzen lagunduz. Adibidez, goiko koadrantean, ezkerraldean, Lurralde Historikoko itxarote-zerrendaren ratioa gainditzen duten eta estaldura baxuagoa duten eskualdeak kokatzen dira.

(2) Adin nagusikoentzako egoitza-zentroetako plazen banaketa geografikoa bi maila ezberdinen arabera egiten da: plaza soziosanitarioak Sektore mailan (ekialdea, mendebaldea) zehazten dira, eta oinarrizko plazak eta psikogeriatrikoak Eremu mailan esleitzen dira. Bestalde, 2030. urteari begirako estaldura-proposamena kalkulatzeko hiru plaza motak batzen dira. Eremu bakoitzean dauden defizitak ebaluatzeko, bakoitzari plaza soziosanitario kopuru bat esleitzea erabaki da, gaur egun, beren gizarte zerbitzuetako Sektorean dagoen plazen estalduraren arabera. Horrek esanahi du estaldura-mailak eta plaza aldetiko premiak zehazteko ez dela oinarritzat hartzen eremu bakoitzean plaza soziosanitarioen egungo kokapena. Horren ordez, eremu bakoitzari plaza kopuru bat esleitzen zaio, aintzatetsiz horiek modu proportzionalean banatzen direla sektore berdina osatzen duten eremu ezberdinen artean.

Prestazio ekonomikoak

Azkenik, Autonomia Pertsonalaren Sustapenari eta Mendekotasuna duten Pertsonentzako Laguntzari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean arautzen diren prestazio ekonomikoen artean, espezifikoki aztertzen dira FIZPE eta LPPE prestazioak. Bi prestazioen arteko alderaketan agerian geratzen denez, FIZPE prestazioaren kasuan, eremu gehiago dira 2030. urteari begira zehaztutako proposameneko estaldura, edo are, handiagoa dutenak. Bidasoaldea eta Donostia salbuetsita, gainerako eremu guztiek erreferentziako estaldura berdindu edo gainditzen dute. LPPE prestazioaren kasuan, ordea, egoera hori 5 eremutan baino ez da ematen.

2030. urterako planteatutako estaldura-mailetara iristeko beharrezkoak diren prestazioen bolumenari dagokionez, aintzatetsitako prestazioaren arabera egoera oso ezberdina da. FIZPE prestazioaren kasuan, prestazio gehigarrien premia Donostia eta Bidasoako eremuetan kokatzen da bereziki, eta neurri txikiagoan, Oarsoaldean eta Deba Erdian. Gainerako eremuetarako, egungo prestazio kopurua murriztu edo mantentzeko premia ikusten da. Aitzitik, LPPE prestazioari dagokionez, prestazio kopurua areagotzeko eskakizunak eremu gehiagori eragiten die, nahiz eta proiekzioen arabera, eremu batzuetan egungo prestazio kopurua murrizteko zein mantentzeko premia identifikatzen den.

14. grafikoa. LPPE eta FIZPE prestazioen estaldura 2023an eta 2030ean estaldura-proposamena erdiesteko horietako prestazio kopuruaren egokitzapena. Gipuzkoako gizarte zerbitzuen Eremuak.



Oharra: egokitzapenak zerbitzu baterako eremu jakin batean behar diren plaza gehigarriak adierazten ditu, 2030. urteari begira ezarritako estaldura-proposamenetara iristeko xedez. Balio positibo batek baliabide gehiago behar direla adierazten du, eta balio negatibo batek adierazten du gaur egungo bolumena nahikoa dela dagokion helburua betetzeko.

4.3 Desgaitasunaren esparrua

4.3.1 Gipuzkoako Lurralde Historikorako ikuspegi orokorra

Mendekotasunaren esparruko zerbitzu eta prestazio ekonomikoetarako, aurretiaz aztertu den eran, 2030. urteari begira proiektatutako baliabide gehigarrien zuzkidura populazio hartzaileari dagokionez aurreikusten den hazkunde demografikoaren ondorio da gehienbat. Aitzitik, desgaitasunarekin lotutako premiak jorratzera bideratutako zerbitzuen kasuan, erreferentziako proiekzio demografikoen arabera, populazio hartzailearen bilakaera ez da faktore erabakigarria izango, ez bederen 2030. urteari so. Kasu honetan, 2030erako proposatzen den plaza gehigarrien premia estaldurari gagozkiola abiapuntuko nahiko egoera kaskar batean oinarritzen da. 19 zenbakidun taulak erakusten duen eran, aintzatetsitako zerbitzu bakar batek ere ez du agertzen EAEko II. Mapan 2030erako zehaztutako proposamenaren berdina edo handiagoa den estaldura.

Nabarmendu behar da, hurrengo taulan islatzen denaren arabera, gaur egungo plaza kopuruaren eta 2030ean planteatutako estaldura-mailak erdiesteko beharko direnen arteko arrakala handiena gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroetan (2.2.1.4) ageri dela, termino erlatiboetan, behinik behin. Bestalde, arrakala horri termino absolututan erreparatuz, eta Arreta Goiztiarreko esku-hartze Sozialeko Zerbitzua (2.7.4) alde batera utzita, alde handiena pertsona desgaituentzako eguneko zentroetan (2.2.1.2/3) ikusten da.

19. taula. Estaldura-arrakalak eta EAEko GZ Mapako proposamenetara iristeko beharrezkoak diren baliabideen proiekzioa. Desgaitasunaren esparrua. 2023-2030.

	Estaldura		Plazak/orduak/prestazioak			
	2023	Proposamena 2030. urteari begira	2023	Proiekzioa 2030[1]	Distantzia[2]	Defizita
Desgaitasun EZ (2.2.1.2 / 2.2.1.3) [Plazak]	% 0,193	% 0,219	833	937	% 89	-104
Gaixotasun mental kronikoko EZ (2.2.1.4) [Plazak]	% 0,055	% 0,071	239	302	% 79	-63
OZ(2.2.2) [Plazak][3]	% 238	% 0,260	1.024	1.116	% 92	-92
Desgaituentzako egoitzak (2.4.2) [Plazak][3]	% 0,228	% 0,247	984	1.058	% 93	-74
Gaixotasun mentaletarako egoitzak (2.4.3) [Plazak]	% 0,080	% 0,096	343	411	% 84	-68
Arreta goiztiarrerako esku-hartze zerbitzua (2.7.4) [Erabiltzaile/urte]	% 4,306	% 4,824	1.648	2.031	% 81	-383

Oharrak:

(1) 2030ean estaldura-proposamenak lortzeko beharrezkoak den plaza kopurua adierazten du. Balioa EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan erabilitako metodologiarekin bat etorriz eskuratzen da.

(2) 2023ko plaza/ordu kopuruaren eta 2030era begira guztira proiektatzen denaren arteko aldea neurtzen du. 2030. urteari begira proiektatzen diren plazei dagokienez, gaur egun zer proportzio estaltzen den adierazten duen portzentaje gisa ematen da. Adibidez, distantzia edo aldea % 80koa bada, esanahi du gaur egungo gaitasuna 2030. urteari begira proiektatutako plaza/orduen % 80aren baliokide dela.

(3) 2023ko abenduaren 31n, guztira, 8 plaza zeuden erabilgarri Gipuzkoatik kanpo kokatuta. Horiek ez dira azterketan sartu.

Arreta Goiztiarreko esku-hartze Sozialeko Zerbitzua (2.7.4) aipatuta, garrantzitsua da bere izaera berezia azpimarratzea, bereziki, aztertutako gainerako zerbitzuekin alderatuz. Bere kasuan, aipagai dugun arrakala ez litzateke izango finkatutako proposamenarekiko bere estalduran egun dagoen aldearen ondorio soilik, baizik eta baita zerbitzu horren hartzaile den populazioan 2023 eta 2030 bitartean proiektatutako igoeraren ondorio ere —0 eta 6 urte bitarteko haurrak—. Gainera, garrantzitsua da agerian jartzea zerbitzu horren estalduran erregistratutako hazkunde azkarra. EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Mapak agerian uzten duen moduan, zerbitzu horretarako 2019an estaldura % 1,647koa zen, 2023an erregistratutako % 4,306koa baino portzentaje dezente baxuagoa.

Bestalde, ikusten denez, estalduraren egungo defizitekin batera, zenbaitetan, tamaina adierazgarria duten itxarote-zerrendak agertzen dira. Balio handienak bizitegi-

zerbitzuetarako erregistratzen dira. 2013ko abenduaren 31ko datuekin bat etorriz, gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroetan (2.4.3) zerrendak % 14,9ra igotzen ziren plazekiko. Pertsona desgaituentzako zentroen kasuan (2.4.2) proportzio hori % 11,0ra mugatu zen. Aipatutako zerbitzuetako lehenaren kasuan, ordea, ez da ahaztu behar 2019. urtearekin alderatuz hobekuntza esanguratsua izan dela; izan ere, orduan itxarote-zerrendak, batez beste, % 32,4ra iristen ziren, plazekiko.

20. taula. Itxarote-zerrendak desgaitasunaren esparruko zerbitzu eta prestazioetan. Egungo egoera eta bilakaera 2019-2023.

	Itxarote-zerrendan dauden pertsonak (2023/12/31)	Plazak 2023/12/31	Ratioa 2023 (%) [itxarote-zerrenda/ plazak]	Ratioaren bilakaera 2019-2023 (p.p.)[1]	
Desgaitasun EZ (2.2.1.2 / 2.2.1.3)	37	833	% 4,4	▼	% -1,1
Gaixotasun mental kronikoko EZ (2.2.1.4)	7	239	% 2,9	▼	% -3,1
OZ (2.2.2)	10	1.031	% 1,0	▲	% 0,9
Desgaituentzako egoitzak (2.4.2)	108	984	% 11.0	▼	% -1,7
Gaixotasun mentaletarako egoitzak (2.4.3)	51	343	% +14,9	▼	% -17,5

Iturriak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Saila.

Oharra: (1) bilakaera portzentajezko puntutan adierazten da.

4.3.2.- Desgaitasunaren esparruko zerbitzuen banaketa lurraldearen arabera

Atal honetan aztertutako zerbitzuen hedapenerako esleitutako lurralde-eremua aldakorra da. Pertsona desgaituei eta gaixotasun mentala duten pertsonei zuzendutako eguneko zentroak zein egoitza-zentroak gizarte zerbitzuen sektorea duten esleituta. Bestalde, okupazio-zentroetarako (2.2.2), gizarte zerbitzuen eremua ezartzen da, eta Arreta Goiztiarreko esku-hartze Sozialeko Zerbitzurako (2.7.4) Lurralde Historikoa aintzatesten da. 36-38 tauletan eta 1 eta 2 Mapetan lurralde-eremu horien osaera zehazten da. Halaber, azterketa hori berresten duen informazio oro xehetasunez jasotzen da Eranskineko 28 zenbakidun taulan.

Azalpena, kasu honetan, zerbitzu horiek hedatzeko aintzatetsitako lurralde maila ezberdinen arabera antolatzen da.

Sektore-esparruko zerbitzuak

Hurrengo orrialdeko grafikoan modu bisualean irudikatzen dira gizarte zerbitzuen sektoreka antolatzen diren desgaitasunaren zerbitzuen hedapenean dauden lurralde-asimetriak. Zerbitzua zer kolektibori bideratzen zaion kontuan izanik —pertsona desgaituak, edo gaixotasun mentala dutenak—, ondoriozko irakurketa oso ezberdina da.

Alde batetik, pertsona desgaituen premiak artatzera bideratutako zerbitzuen kasuan, lurralde arteko ezberdinak oso esanguratsuak dira. Erabilgarri dauden baliabideak, ekialdeko sektorean metatzen dira bereziki. Hor, egungo estaldura-mailak EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Mapan ezarritako proposamenak adierazten dituzten balioetara iristen dira, are zenbaitetan gainditutz. Horrela, plazen egungo zuzkidura, hala eguneko zentroetan (2.2.1.2 / 2.2.1.3) nola egoitza-zentroetan (2.4.2), behar bestekoa da 2030. urteari begira planteatutako estaldura-mailetara egokitzeko. Mendebaldeko sektorean, ordea, estaldurari dagokionez arrakala adierazgarriak ikusten dira. Horrek 2030ean estaldura-proposamen horietara iristeko beharrezkoak diren plazen kopurua modu adierazgarrian areagotzea dakar. Horri dagokionez, azpimarratu behar da 109 eta 201 plaza beharko direla, hurrenez hurren, eguneko zentroetan (2.2.1.2 / 2.2.1.3) eta egoitza-zentroetan (2.4.2).

Aitzitik, gaixotasun mentala duten pertsonetara zuzendutako zerbitzuen hedapena homogeneoa da lurraldeari dagokionez. Oro har, eguneko zentroetako (2.2.1.4) eta egoitza-zentroetako plazei dagozkion estaldura-mailak alderagarriak dira bi sektoretan. Gauza bera esan daiteke 2030. urtera begirako estalduraren helburuak betetzeko beharrezkoak diren plazen proiekzioekin.

15. grafikoa. 2023an gizarte zerbitzuen sektore mailan planifikatutako desgaitasunaren esparruko gizarte zerbitzuen estaldura eta 2030ean estaldura-proposamenetara iristeko bere plaza kopuruen egokitzapena.



Oharra: egokitzapenak zerbitzu baterako eremu jakin batean behar diren plaza gehigarriak adierazten ditu, 2030. urteari begira ezarritako estaldura-proposamenetara iristeko xedez. Balio positibo batek baliabide gehiago behar direla adierazten du, eta balio negatibo batek adierazten du gaur egungo zuzkidura nahikoa dela dagokion helburua betetzeko.

Zerbitzu horiei dagozkion itxarote-zerrenden lurraldearen araberako informazioak —29 zenbakidun taulan xehetasunez jasotzen dena—, zenbait gauza interesgarri adierazten ditu. Lehenik eta behin, pertsona desgaituentzako zerbitzuetarako estaldurari dagokionez ikusitako alde nabarien aurrean (2.2.1.2/3 eta 2.4.2, espezifikoki), nabarmentzekoa da itxarote-zerrenden bolumena ia berdina dela gizarte zerbitzuen bi sektoretan. Puntu horretan, komeni da errepikatzea, zerbitzuaren estaldura-maila ez ezik, beste zenbait faktorek ere eragiten dutela, itxarote-zerrenden tamaina baldintzatuz.

Adibidez, lurralde jakin batean zerbitzu horiekin lotuta egon daitezkeen gizarte-premia handiagoak, edo gizarte-premia horiek asetzeko zerbitzu zehatz batekiko lehentasuna.

Haatik, gaixotasun mentala duten pertsonei zuzendutako zerbitzuei erreparatzen badiegu eta, zehazki, egoitza-zentroei (2.4.3), aldeak nabarmenagoak dira, nahiz eta bi sektoreen estaldura antzekoa izan. Ekialdeko sektorean, 2023ko abenduaren 31n itxarote-zerrendan zeuden pertsonen portzentajea % 17,8koa zen plazekiko, eta mendebaldeko sektorean, % 11,0ra mugatzen zen portzentaje hori.

16. grafikoa. Desgaitasunaren esparruko bigarren mailako arreta-zerbitzuetako itxarote-zerrendetako ratioaren (pertsonak/plazak) eta estalduraren arteko erlazioa 2023ko abenduaren 31n. Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sektoreak



Zerbitzuak eremuka

Ezeren gainetik, garrantzitsua da adieraztea okupazio-zentroetako (2.2.2) plazei dagokienez ematen den lurraldekako informazioa zenbait berezitasunekin lotuta dagoela, kontuan izan behar direnak datuak interpretatzeko garaian. Bereziki behar zen zerbitzua zen, zentro bakoitzerako gutxieneko eta gehienezko plaza kopurua ezarriz, zenbaki zehatzik finkatu gabe. Hasiera batean, zentro bakoitzari plaza kopuru bat esleitzen bazaio ere bere okupazioarekin koherentzian, ohikoa izaten da zentro bateko plaza kopurua areagotu/murriztu behar izatea egonaldi berri bati alta/baja eman ahal izateko. Aurrekoa kontuan izanik, zerbitzu horren azterketa, gizarte zerbitzuen eremuka, plazen hastapeneko esleipenarekin bat etorriz egiten da.

Datuek erakusten dutenez, Gipuzkoan, gizarte zerbitzuen 13 eremuetako soilik 4k betetzen dituzte, gaur egun, 2030. urteari begira finkatutako estaldura-proposamena (Donostia, Deba Erdia, Bergaraldea eta Leintz Ibarra). Estaldura atalase horren azpitik duten eremuetan, Deba Kostaren kasua aipatu behar da, bertan ez baitago plaza bakar bat ere zerbitzu horretarako.

Emaitzek adierazten dutenez, era berean, estaldura handiagoa duten 4 eskualde horietan, 2030ean estaldura-proposamena betetzeko proiektatutako plaza kopurua dago jadanik, edo are, gainditu egiten da. Adibidez, Donostian, 'soberakin' hori 151 plazakoa da. Aitzitik, gainerako eremuek zuzkidura gehigarria beharko lukete, besteak beste, Urola Garaiaren kasuan 9 plaza eta Buruntzaldearen kasuan 75.

17. grafikoa. Okupazio-zerbitzu edo -zentroaren (2.2.2) estaldura 2023an, eta 2030ean estaldura-proposamena erdiesteko horietako plaza kopuruaren egokitzapena.



Oharra: egokitzapenak zerbitzu horretarako eremu jakin batean behar diren plaza gehigarriak adierazten ditu, 2030. urteari begira ezarritako estaldura-proposamenetara iristeko xedez. Balio positibo batek baliabide gehiago behar direla adierazten du, eta balio negatibo batek adierazten du gaur egungo zuzkidura nahikoa dela dagokion helburua betetzeko.

Azkenik, zerbitzu honetarako itxarote-zerrendari buruzko lurraldearen araberako informazioak erakusten duenez, ia ez dago itxarote-zerrendarik. Horri buruzko datuak Eranskineko 29 zenbakidun taulan beha daitezke.

4.4 Babesgabetasunaren esparrua

4.1 Lurralde Historikorako ikuspegi orokorra

Babesgabetasunaren esparruko zerbitzu gehienetan Gipuzkoa osorako erakusten dituzten estaldura-mailak 2030. urteari begira EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Mapan ezartzen diren estaldura-proposamenetako balioen berdinak dira ia.

Familia Harrera Zerbitzuaren (2.7.6.1) salbuespenarekin, 2030. urterako proiekzioek ez dute aurreikusten zerbitzu horietarako baliabide gehigarri adierazgarriren premiarik. Gainera, adin txikikoen egoitzen (2.4.4) kasuan, gaur egungo zuzkidurarekin 25 plazako 'soberakina' egongo litzateke 2030. urteari begirako estaldura-proposamenak betetzeko. Zerbitzu horrek egun duen estaldura planteatutako mailaren azpitik kokatzen bada ere doi-doi, populazio hartzailerako —0 eta 17 urte bitarteko populazioa— aurreikusten den konpresio demografikoak plazen marjina gehigarri hori ematea espero da.

21. taula. Estaldura-arrakalak eta EAEko GZ Mapako proposamenetara iristeko beharrezkoak diren baliabideen proiekzioa. Babesgabetasunaren esparrua. 2023-2030.

	Estaldura		Plazak/orduak/prestazioak			
	2023	Proposamena 2030. urteari begira	2023	Proiekzioa 2030[1]	Distantzia[2]	Defizita
Etxeko indarkeriaren ondoriozko harrera-pisua (1.9.1.2) [Plazak]	% 0,031	% 0,031	96	99	% 97	-3
Adin txikikoentzako egoitzak (2.4.4) [Plazak]	% 0,356	% 0,362	431	406	% 106	+25
Emakumeentzako egoitzak (2.4.6) [Plazak]	% 0,015	% 0,016	45	52	% 87	-7
Familia Harrera Zerbitzua (2.7.6.1) [Erabiltzaile/urte]	% 0,047	% 0,068	341	504	% 68	-163

Oharrak:

(1) 2030ean estaldura-proposamenak lortzeko beharrezkoak den plaza kopurua adierazten du. Balioa EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan erabilitako metodologiarekin bat etorriz eskuratzen da.

(2) 2023ko plaza/ordu kopuruaren eta 2030era begira guztira proiektatzen denaren arteko aldea neurtzen du. 2030. urteari begira proiektatzen diren plazei dagokienez, gaur egun zer proportzio estaltzen den adierazten duen portzentaje gisa ematen da. Adibidez, distantzia edo aldea % 80koa bada, esanahi du gaur egungo gaitasuna 2030. urteari begira proiektatutako plaza/orduen % 80aren baliokide dela.

Bestalde, itxarote-zerrendei dagokion informazioak, emakumeentzako egoitza-zentroetarako (2.4.6) soilik eskuragarri, adierazten du, 2023an ez zela pertsona bakar bat ere erregistratu egoera horretan.

4.4.2.- Babesgabetasunaren esparruko zerbitzuen banaketa lurraldearen arabera

Babesgabetasun arloan aztertutako lau zerbitzuetako bakoitzak hedapenerako lurralde-eremu ezberdina du esleitua. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen harrera-pisuak (1.9.2.1) gizarte zerbitzuen eremuekin lotzen dira; adin txikikoentzako egoitza-zentroak (2.4.4) gizarte zerbitzuen eskualdeen arabera zedarritzen dira eta, azkenik, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako zentroak (2.4.6) gizarte zerbitzuen sektore mailan hedatzen dira. Familia-harreraren sustapen eta laguntza teknikorako Zerbitzuari (2.7.6.1) dagokionez, ezarritako erreferentziako lurralde-eremua Lurralde Historikoa da.

36-38 tauletan eta 1 eta 2 Mapetan lurralde-eremu horien osaera zehazten da. Halaber, Eranskineko 30 zenbakidun taulan azterketa hori berresten duen informazio oro jasotzen da.

Azalpena zerbitzu horiek hedatzeko aintzatetsitako lurralde maila ezberdinen arabera antolatzen da.

Sektore-esparruko zerbitzuak

Emaitzek erakusten dutenez, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroetan (2.4.6) plazen estaldura ez da berdina sektoreen arabera. Ekialdeko sektoreko estaldura-mailak 2030erako finkatutako proposamena gainditzen du doi-doi, eta mendebaldeko sektoreari dagokion estaldura proposamenaren azpitik dago. Estaldura-mailak proposamenean adierazten diren mailetara egokitzeko, 2030. urteari begira, 9 plaza gehiago beharko lirateke mendebaldeko sektorean, eta ekialdeko

sektorean, egungo plaza kopuruarekin aski izango litzateke —2 plazako 'soberakina' identifikatzen da—.

18. grafikoa Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroetako eta emakumeentzako beste zenbait bizitegi-zerbitzuetako (2.4.6) estaldura 2023an, eta 2030ean estaldura-proposamena erdiesteko horietako plaza kopuruaren egokitzapena.



Oharra:

(1) Tratu txarren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroetako plazen banaketa geografikoa bi maila ezberdinen arabera egiten da: egonaldi laburretarako plazak Lurralde Historiko mailan zehazten dira, eta iraupen ertaineko plazak sektore mailan esleitzen dira. Bestalde, 2030. urteari begirako estaldura-proposamena kalkulatzeko bi plaza mota horiek batzen dira. Sektore bakoitzean dauden defizitak ebaluatzeko, bakoitzari egonaldi laburreko plaza kopuru bat esleitzea erabaki da, gaur egun, Lurralde Historiko osoan plaza horiei dagokienez dagoen estalduraren arabera. Horrek esanahi du estaldura-mailak eta plaza aldetiko premiak zehazteko ez dela oinarritzat hartzen sektore bakoitzean egonaldi laburreko plazen egungo kokapena. Horren ordez, sektore bakoitzari plaza kopuru bat esleitzen zaio, aintzatetsiz horiek modu proportzionalean banatzen direla Lurralde Historikoa osatzen duten bi sektoreen artean.

(2) egokitzapenak zerbitzu horretarako eremu jakin batean behar diren plaza gehigarriak adierazten ditu, 2030. urteari begira ezarritako estaldura-proposamenetara iristeko xedez. Balio positibo batek baliabide gehiago behar direla adierazten du, eta balio negatibo batek adierazten du gaur egungo zuzkidura nahikoa dela dagokion helburua betetzeko.

Eskualde-esparruko zerbitzuak

Hurrengo grafikoan islatzen den eran, adin txikikoentzako egoitza-zentroetako (2.4.4) plazen estaldura-mailari dagokionez ezberdintasun nabarmenak dauden eskualdearen arabera. Ongien kokatutako eskualdeak Goierri, Donostia eta Buruntzaldea dira,

2030erako proposamenean zehaztutako estaldura-mailak gainditutz. Debagoienan, Urola Kostan eta Oarsoaldean, Mapan planteatzen dena baino estaldura zertxobait apalagoa izan arren, tarteko posizio batean kokatzen dira. Bestelakoan, gainerako eskualdeetan, atalasearekiko distantzia bereziki nabaria da.

2030ean estaldura-proposamena erdiesteko plaza kopuruaren egokitzapenari dagokionez, proiekzioek adierazten dutenez, eskualde bakoitzaren abiapuntuko egoeraren arabera egoera oso ezberdina da. Jadanik ezarritako proposamenera iristen diren estaldura-maila dutenen kasuan ikusten denez, gaur egun dagoen plaza kopuruarekin aski da 2030ean helburu hori, nahikoa bermez, betetzen jarraitzeko. Adierazi behar da, egungo zuzkidurarekin, Donostiak eta Goierrik 53 eta 26 plazako 'soberakina' dutela, hurrenez hurren. 'Tarteko' egoera bat agertzen duten eskualdeetan, gaur egun erabilgarri dagoen zuzkidura ere, hein batean, behar bestekoa da 2030eko estaldura-proposamena betetzeko. Haatik, estaldura apalenak agertzen dituzten eskualdeei so, Debabarrenan 15 plaza gehiago beharko lirateke 2030ean proiektatutako plaza aldetiko premia asetzeko, eta Bidasoan 22.

19. grafikoa. Adin txikikoentzako egoitza-zentroetako (2.4.4) estaldura 2023an, eta 2030ean estaldura-proposamena erdiesteko horietako plaza kopuruaren egokitzapena.



Oharra: egokitzapenak zerbitzu horretarako eremu jakin batean behar diren plaza gehigarriak adierazten ditu, 2030. urteari begira ezarritako estaldura-proposamenetara iristeko xedez. Balio positibo batek baliabide gehiago behar direla adierazten du, eta balio negatibo batek adierazten du gaur egungo zuzkidura nahikoa dela dagokion helburua betetzeko.

Zerbitzuak eremuka

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-pisuei (1.9.2.1) dagokienez, eremuen erdia baino gehiagok (13tik 8) gaur egun EAEko Mapak adierazten duen estaldura-proposamena betetzen du edo gainditu egiten du. Proposatutako atalasearen azpitiko estaldura dutenen kasuan, Oarsoaldea eta Urola Garaia dira urrunen kokatzen direnak. Azken horretan, gainera, ez dago mota horretako plazarik.

Egindako proiekzioen arabera, jadanik estaldura-proposamena betetzen den eremuetan, ez da plaza gehigarririk beharko 2030. urteari begira. Are gehiago, egungo zuzkidurarekin urte honetan betetzeko premiak gainditukо lirateke jadanik. Aitzitik, estaldura apalena duten eremuetarako, plaza gehigarrien premia aurreikusten da. Ildo horretatik, gehien areagotuko litzatekeena Oarsoaldea da, 9 plaza gehiago proiektatzen baitira.

20. grafikoa. Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-pisuetako (1.9.1.2) estaldura 2023an, eta 2030ean estaldura-proposamena erdiesteko horietako plaza kopuruaren egokitzapena.



Oharra: egokitzapenak zerbitzu horretarako eremu jakin batean behar diren plaza gehigarriak adierazten ditu, 2030. urteari begira ezarritako estaldura-proposamenetara iristeko xedez. Balio positibo batek baliabide gehiago behar direla adierazten du, eta balio negatibo batek adierazten du gaur egungo zuzkidura nahikoa dela dagokion helburua betetzeko.

4.5 Gizarte-bazterkeriaren esparrua

4.5.1 Lurralde Historikorako ikuspegi orokorra

Gipuzkoa osoari dagozkion datuek adierazten dutenez, bazterkeriaren esparruko zerbitzu gehienak EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Mapan Gipuzkoan 2030. urteari begira ezarritako estaldura-mailetatik hurbil edo gainetik kokatzen dira. Abiapuntu nahiko mesedegarri hori lagungarri da, 2030erako, estaldura-proposamenak betetzen jarraitzeko beharrezkoa den plaza aldetiko bolumena handiegia izan ez dadin. Are gehiago, zerbitzu jakin batzuetan, gaur egun, 2030ean estaldurara iristeko proiektatzen direnak baino plaza gehiago daude. Hurrengo taulan emaitza horiek jasotzen dira modu laburtuan.

22. taula. Estaldura-arrakalak eta EAEko GZ Mapako proposamenetara iristeko beharrezkoak diren baliabideen proiekzioa. Gizarte-bazterkeriaren esparrua 2023-2030.

	Estaldura		Plazak/orduak/prestazioak			
	2023	Proposamena 2030. urteari begira	2023	Proiekzioa 2030[1]	Distantzia[2]	Defizita
Bazterkeria artatzeko EZ (1.7.2) [Plazak]	% 0,035	% 0,042	151	180	% 84	-29
Gaueko harrera (1.8) [Plazak]	% 0,030	% 0,033	181	206	% 88	-25
Gizarte-larrialdirako pisua (1.9.1.1) [Plazak]	% 0,060	% 0,046	361	287	% 126	74
Bazterkeria artatzeko babespeko etxebizitza (1.9.2) [Plazak]	% 0,036	% 0,026	153	110	% 139	43
Gizarteratzeko EZ (2.2.3) [Plazak]	% 0,055	% 0,054	235	230	% 102	5
Gizarteratzeko gaueko zentroa (2.3.2) [Plazak]	% 0,002	% 0,004	12	28	% 43	-16
Bazterkeria artatzeko egoitzak (2.4.5) [Plazak]	% 0,097	% 0,080	578	500	% 116	78

Oharrak:

(1) 2030ean estaldura-proposamenak lortzeko beharrezkoak den plaza kopurua adierazten du. Balioa EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan erabilitako metodologiarekin bat etorriz eskuratzen da.

(2) 2023ko plaza/ordu kopuruaren eta 2030era begira guztira proiektatzen denaren arteko aldea neurtzen du. 2030. urteari begira proiektatzen diren plazei dagokienez, gaur egun zer proportzio estaltzen den adierazten duen portzentaje gisa ematen da. Adibidez, distantzia edo aldea % 80koa bada, esanahi du gaur egungo gaitasuna 2030. urteari begira proiektatutako plaza/orduen % 80aren baliokide dela.

Aurrekoa bazter utzita, itxarote-zerrendei buruzko informazioak zuhurtziaz jokatzea gomendatzen du. Datu horietatik, bi ondorio bereziki garrantzitsu ateratzen dira. Alde batetik, ikusten denez, itxarote-zerrenden bolumena oso adierazgarria da datuak eskuragarri dituzten bi zerbitzuetan: bigarren mailako arretarako eguneko zentroetan (2.2.3) 2023ko abenduaren 31n itxarote-zerrendan zeuden pertsonen portzentajea % 20,0koa zen plazekiko, eta egoitza-zentroetan portzentaje hori % 37,2koa zen plaza guztiekiko. Beste alde batetik, bilakaeraren ikuspegi batetik, eguneko zentroetako (2.2.3) itxarote-zerrenden bolumenaren igoera azpimarratu behar da, 2019an erregistratutako mailekin alderatuta bederen.

23. taula. Itxarote-zerrendak gizarte-bazterkeriaren esparruko zerbitzu eta prestazioetan. Egungo egoera eta bilakaera 2019-2023.

	Itxarote-zerrendan dauden pertsonak 2023/12/31	Plazak 2023/12/31	Ratioa 2023 (%) [itxarote zerrenda /plazak]	Ratioaren bilakaera 2019-2023 (p.p.)[1]
Gizarteratzeko EZ (2.2.3)	47	235	% +20,0	▲ +6,0 p.p.
Bazterkeriarako egoitzak (2.4.5)	215	578	% 37,2	▲ +2,4 p.p.

Iturriak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Saila.

Oharra: (1) bilakaera portzentajezko puntutan adierazten da.

4.5.2. Bazterkeriaren esparruko zerbitzuen banaketa lurraldearen arabera

Aztertutako bazterkeria arloko zerbitzuen lurralde-eremuaren araberako hedapenari dagokionez, arau argi bati jarraitzen zaio. Lehen mailako arreta osatzen duten zerbitzuak gizarte zerbitzuen eremuka antolatzen dira, eta bigarren mailako arretakoak, gehienbat, gizarte zerbitzuen sektoreka antolatzen dira. Gizarteratzeko premiak artatzeko gaueko harrera zentroak (2.3.2) dira salbuespena, horien hedapenerako Lurralde Historikoa aintzatesten baita.

36-38 tauletan eta 1 eta 2 Mapetan lurralde-eremu horien osaera zehazten da. Halaber, Eranskineko 31 zenbakidun taulan azterketa hori berresten duen informazio oro jasotzen da.

Azalpena zerbitzu horiek hedatzeko aintzatetsitako lurralde maila ezberdinen arabera antolatzen da.

Sektore-esparruko zerbitzuak

Hala eguneko zentroetan (2.2.3) nola egoitza-zentroetan (2.4.5) lurraldearen araberako hedapen asimetrikoa ageri da, baliabideak ekialdeko sektorean metatzen direlarik modu nabarian. Bi zerbitzuen kasuan, sektore horretan identifikatutako estaldura-mailek 2030erako ezarritako estaldura-proposamenak gainditzen dituzte argi eta garbi. Mendebaldeko sektorean guztiz kontrakoa gertatzen da. Aztergai diren bi zerbitzuetarako, lurralde-eremu honetan, gaur egun, estaldurari dagokionez arrakala oso esanguratsuak ikusten dira.

Prospekzioaren ikuspegi batetik, desoreka horrek zuzkidura aldetiko premia oso ezberdinak dakartza 2030. urteari begirako estaldura-proposamenetara iristeko. Ekialdeko sektorearen kasuan, dagoen plaza kopurua behar bestekoa izango litzateke estaldura epe ertainera betetzea bermatzeko. Are gehiago, egungo zuzkidurarekin, planteatutako estaldurara iristeko behar direnak baino 36 eta 157 plaza gehiago egongo lirateke eguneko zentroetan (2.2.3) eta egoitza-zentroetan (2.4.5), hurrenez hurren. Aitzitik, bi zerbitzu horietarako, aurreikuspenen arabera, 2030erako 31 eta 78 plaza gehiago beharko lirateke, hurrenez hurren, mendebaldeko sektorean.

21. grafikoa. 2023an gizarte zerbitzuen sektore mailan planifikatutako gizarte-bazterkeriaren esparruko gizarte zerbitzuen estaldura eta 2030ean estaldura-proposamenetara iristeko bere plaza kopuruen egokitzapena.



Oharra: egokitzapenak zerbitzu baterako eremu jakin batean behar diren plaza gehigarriak adierazten ditu, 2030. urteari begira ezarritako estaldura-proposamenetara iristeko xedez. Balio positibo batek baliabide gehiago behar direla adierazten du, eta balio negatibo batek adierazten du gaur egungo zuzkidura nahikoa dela dagokion helburua betetzeko.

Bestalde, gizarte zerbitzuen sektorekako itxarote-zerrendei buruzko informazioak ez du bi zerbitzuen estaldurarako ikusitako lurraldearen araberako asimetria islatzen. Gizarteratzeko eguneko zentroen kasuan (2.2.3), erabilgarri dauden plazen araberako pertsonen itxarote-zerrendaren portzentajea ekialdeko sektorean (% 21,6) altuagoa da mendebaldeko sektorean baino (% 16,2). Bizitegi-zentroen kasuan (2.4.5.), aitzitik, kontrako egoera ematen da. Itxarote-zerrendan dauden pertsonen portzentajea % 36,4koa da plazekiko ekialdeko sektorean, eta portzentaje hori % 40,4koa da mendebaldeko sektorean. Edonola ere, garrantzitsua da azken bi adierazle horiek perspektiban ipintzea, batez ere, kontuan izanik bi sektoreen artean estalduran dauden aldeak oso esanguratsuak direla.

Emaitza horiek adierazten dutenez, bi zerbitzuetarako, itxarote-zerrenden lurraldeen araberako mailak estaldura-mailetatik haragoko faktoreen baitan daude (adibidez, zerbitzu horiekin lotutako gizarte-premia handiagoak edo txikiagoak, edo gizarte-premia horiek asetzeko zerbitzu zehatz batekiko lehentasuna).

Informazio hori guztiori xehetasunez jasotzen da Eranskineko 32 zenbakidun taulan.

22. grafikoa. Gizarte-bazterkeriaren esparruko bigarren mailako arreta-zerbitzuetako itxarote-zerrendetako ratioaren (pertsonak/plazak) eta estalduraren arteko erlazioa 2023ko abenduaren 31n. Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sektoreak.



Eskualde-esparruko zerbitzuak

Bazterkeriaren esparruko lehen mailako arreta-zerbitzuei dagokienez, Lurralde Historikoko panorama deskribatzeko aldez aurretik helarazitako datuek jadanik islatzen zuten alojamendu zerbitzuak (1.9.1.1 eta 1.9.1.2) direla garatuena, estaldurari begira, behinik behin. Eskualde mailan, oro har, esan daiteke, eskualde guztietan dagoela estaldura txukuna, nahiz eta zenbaitetan 2030erako ezarritako proposamenetara iristen ez diren mailak ikusten diren. Zerbitzu horien azterketan sakontzean agerian geratzen da harrera-pisuetan (1.9.1.1) homogeneotasun gehiago eta estaldura-maila handiagoak daudela, eta babespeko etxebizitzen kasuan (1.9.2) lurraldeen araberako alde nabarmenagoak ikusten dira. Azken zerbitzu horri dagokionez, hurrengo orrialdeko grafikoak erakusten duenez, 2030ean estaldurari dagozkion helburuak betetzeko beharrezkoak diren plazen proiekzioak adierazgarriak dira eskualde batzuetan. Esate baterako, aurreikuspenen arabera, Donostian 33 plaza gehiago beharko dira, eta Goierrin 20.

Bestalde, gaurko harrera-zerbitzuan (1.8), eta zehazki, bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzuan (1.7.2), garapena mugatuagoa da. Soilik hiru eskualdek dituzte zerbitzu mota horretarako plazak (Bidasoa, Donostia eta Oarsoaldea): Gaueko harrera-zerbitzuari dagokionez, garapen handiagoa agertu arren, oraindik zerbitzua hedatzeke duten zenbait eskualde ikusten dira (Buruntzaldea, Debabarrena, Debagoiena eta Goierri). 2030. urteari begira helburuak betetzea bermatzeko xedez, Bidasoa, Donostia eta Oarsoaldea eskualdeak salbuetsita, gainerakoan, proiekzioen arabera, plaza gehiago behar dira aipagai ditugun bi zerbitzuetan.

23. grafikoa. 2023an aztertutako bazterkeriaren esparruko lehen mailako arreta-zerbitzuen estaldura eta 2030ean estaldura-proposamenak erdiesteko horietako plaza kopuruaren egokitzapena.



Gizarte larrialdi-egoerak artatzeko harrera-pisuak (1.9.1.1)





Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako babespeko etxebizitzak (1.9.2)





Eranskina

24. taula. Azterketan sartzen diren GZES sistemako zerbitzu eta prestazioak eta horietako populazio hartzailea EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Maparekin 2023-2026 bat etorriz.

Zerbitzu/prestazio ekonomikoa	Populazio hartzailea
MENDEKOTASUNA ETA ADIN NAGUSIKO PERTSONAK	
Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua – ELZ (1.2) Adin nagusikoentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.1) Adin nagusikoentzako alojamendu-zerbitzua (1.9.3, 1.9.4) Autonomiarekin zerikusia duten murriztapenetatik eratorritako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa (2.2.1.1) Adin nagusikoentzako egoitza-zentroak (2.4.1) LPPE (3.1.1) FIZPE (3.2.1)	65 urte eta gehiagoko biztanleria
DESGAITASUNA	
Autonomiarekin zerikusia duten murriztapenetatik eratorritako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa pertsona desgaituentzat (2.2.1.2/3) Autonomiarekin zerikusia duten murriztapenetatik eratorritako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzat (2.2.1.4) Okupazio-zerbitzu edo -zentroa (2.2.2) Pertsona desgaituentzako egoitza-zentroak (2.4.2) Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.3)	18-64 urte bitarteko biztanleria
Arreta Goiztiarreko esku-hartze Sozialeko Zerbitzua (2.7.4)	0-6 urte bitarteko biztanleria
BABESGABETASUNA	
Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-pisua (1.9.1.2)	18 urte eta gehiagoko emakumeak
Adin txikikoentzako egoitza-zentroak (2.4.4)	0-17 urte bitarteko biztanleria
Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste zenbait bizitegi-zerbitzu (2.4.6)	18 urte eta gehiagoko emakumeak
Familia-harreraren sustapen eta laguntza teknikorako Zerbitzua (2.7.6.1)	Populazio osoa
GIZARTE-BAZTERKERIA	
Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.2)	18-64 urte bitarteko biztanleria
Gaueko harrera-zerbitzua (1.8) Gizarte larrialdi-egoerak artatzeko harrera-pisua (1.9.1.1)	18 urte eta gehiagoko biztanleria
Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako babespeko etxebizitza (1.9.2) Gizarteratzearekin lotutako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa (2.2.3)	18-64 urte bitarteko biztanleria
Gizarteratzearekin lotutako premiak artatzeko gaueko harrera-zentroa (2.3.2) Bazterkeria- edo marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.5)	18 urte eta gehiagoko biztanleria

25. taula. 2030. urteari begira Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen sareko baliabide aldetiko premien proiekzioa aztertzeko erabilitako biztanleriaren proiekzioak.

Populazio-multzoak	Biztanleria 2023 (2023/01/01)	Proiekzioa 2030 (2031/1/1)
Populazio osoa	719.875	738.400
18-64 urte bitarteko biztanleria	430.852	428.500
65 urte eta gehiagoko biztanleria	168.003	197.700
0-6 urte bitarteko biztanleria	38.276	42.100
18 urte eta gehiagoko biztanleria	598.855	626.200
0-17 urte bitarteko biztanleria	121.020	112.200
Populazio osoa (emakumeak)	368.549	378.800
18 urte eta gehiagoko emakumeak	310.063	324.000

26. taula. Estaldura-arrakalak eta EAEko GZ Mapako proposamenetara iristeko beharrezkoak diren baliabideen proiekzioa. Mendekotasunaren esparrua. Gipuzkoa, 2023-2030.

	Estaldura		Orduak/plazak/prestazioak			
	2023	Proposamena 2030. urteari begira	2023	Proiekzioa 2030	Distantzia	Defizita
Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua – ELZ (1.2) [orduak]						
Gipuzkoa	**7,556**	**8,432**	**1.269.506**	**1.666.973**	**% 76**	**-397.468**
Bergaraldea	9,806	**8,432**	41.481	41.971	% 99	-491
Bidasoaldea	4,181		76.483	181.498	% 42	-105.015
Buruntzaldea	7,75		123.332	157.893	% 78	-34.562
Deba Erdia	5,14		40.456	78.098	% 52	-37.642
Deba Kosta	6,89		38.793	55.862	% 69	-17.070
Donostia	8,423		393.515	463.579	% 85	-70.065
Iraurgi	9,178		60.752	65.676	% 93	-4.923
Leintz Ibarra	7,78		85.864	109.502	% 78	-23.638
Oarsoaldea	7,381		122.055	164.075	% 74	-42.020
Oria Garaia	7,916		73.631	92.287	% 80	-18.656
Tolosaldea	9,854		101.398	102.100	% 99	-702
Urola Garaia	8,767		55.265	62.550	% 88	-7.285
Urola Kostaldea	6,099		56.480	91.880	% 61	-35.401
Adin nagusikoentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.1) [plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,34**	**% 0.32**	**569**	**626**	**% 91**	**-57**
Bergaraldea	% 0,28	% 0.32	12	16	% 76	-4
Bidasoaldea	% 0,11		20	68	% 29	-48
Buruntzaldea	% 0,46		73	59	% 123	14
Deba Erdia	% 0,00		0	29	% 0	-29
Deba Kosta	% 0,21		12	21	% 57	-9
Donostia	% 0,14		64	174	% 37	-110
Iraurgi	% 1,28		85	25	% 345	60
Leintz Ibarra	% 0,35		39	41	% 95	-2
Oarsoaldea	% 0,44		72	62	% 117	10
Oria Garaia	% 0,57		53	35	% 153	18
Tolosaldea	% 0,79		81	38	% 211	43
Urola Garaia	% 0,44		28	23	% 119	5
Urola Kostaldea	% 0.32		30	34	% 87	-4

	Estaldura		Orduak/plazak/prestazioak			
	2023	Proposamena 2030. urteari begira	2023	Proiekzioa 2030	Distantzia	Defizita
Adin nagusikoentzako alojamendu-zerbitzua (1.9.3, 1.9.4) [plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,39**	**% 0,33**	**652**	**661**	**% 99**	**-9**
Bergaraldea	% 0,38	% 0,33	16	17	% 96	-1
Bidasoaldea	% 0,12		22	72	% 31	-50
Buruntzaldea	% 0,45		71	63	% 113	8
Deba Erdia	% 0,03		2	31	% 6	-29
Deba Kosta	% 0,11		6	22	% 27	-16
Donostia	% 0,58		272	184	% 148	88
Iraurgi	% 0,50		33	26	% 127	7
Leintz Ibarra	% 0,15		17	43	% 39	-26
Oarsoaldea	% 0,16		27	65	% 42	-38
Oria Garaia	% 0,24		22	37	% 60	-15
Tolosaldea	% 0,61		63	40	% 156	23
Urola Garaia	% 0,33		21	25	% 85	-4
Urola Kostaldea	% 0,86		80	36	% 220	44
Autonomiarekin zerikusia duten murriztapenetatik eratorritako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa mendekotasun-egoeran dauden adin nagusiko pertsonentzako (2.2.1.1) [plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,95**	**% 0,97**	**1.597**	**1.912**	**% 84**	**-315**
Bergaraldea	% 1,56	% 0,97	66	48	% 137	18
Bidasoaldea	% 0,53		97	208	% 47	-111
Buruntzaldea	% 1,00		159	181	% 88	-22
Deba Erdia	% 0,60		47	90	% 52	-43
Deba Kosta	% 1,16		65	64	% 101	1
Donostia	% 0,87		404	532	% 76	-128
Iraurgi	% 1,25		83	75	% 110	8
Leintz Ibarra	% 0,95		105	126	% 84	-21
Oarsoaldea	% 1,09		180	188	% 96	-8
Oria Garaia	% 1,13		105	106	% 99	-1
Tolosaldea	% 0,94		97	117	% 83	-20
Urola Garaia	% 1,43		90	72	% 125	18
Urola Kostaldea	% 1,07		99	105	% 94	-6

	Estaldura		Orduak/plazak/prestazioak			
	2023	Proposamena 2030. urteari begira	2023	Proiekzioa 2030	Distantzia	Defizita
Adin nagusikoentzako egoitza-zentroak (2.4.1) [plazak][1]						
Gipuzkoa	**% 2,83**	**% 2,83**	**4.762**	**5.590**	**% 85**	**-828**
Bergaraldea	% 2,45	% 2,83	103	141	% 74	-37
Bidasoaldea	% 2,55		466	609	% 77	-143
Buruntzaldea	% 2,41		384	530	% 73	-146
Deba Erdia	% 3,91		307	262	% 117	45
Deba Kosta	% 1,81		102	187	% 54	-85
Donostia	% 3,17		1.483	1.555	% 95	-72
Iraurgi	% 3,19		211	220	% 96	-9
Leintz Ibarra	% 3,53		390	367	% 106	23
Oarsoaldea	% 2,46		407	550	% 74	-143
Oria Garaia	% 2,96		275	309	% 89	-35
Tolosaldea	% 2,35		242	342	% 71	-100
Urola Garaia	% 2,42		153	210	% 73	-57
Urola Kostaldea	% 2,58		239	308	% 78	-69
LPPE (3.1.1) [Prestazioak]						
Gipuzkoa	**% 3,79**	**% 3,92**	**6.364**	**7.751**	**% 82**	**-1.387**
Bergaraldea	% 2,62	% 3,92	111	195	% 57	-84
Bidasoaldea	% 3,72		680	844	% 81	-164
Buruntzaldea	% 3,55		565	734	% 77	-169
Deba Erdia	% 5,58		439	363	% 121	76
Deba Kosta	% 2,79		157	260	% 60	-103
Donostia	% 3,51		1.641	2.155	% 76	-514
Iraurgi	% 5,03		333	305	% 109	28
Leintz Ibarra	% 3,21		354	509	% 70	-155
Oarsoaldea	% 3,55		587	763	% 77	-176
Oria Garaia	% 4,92		458	429	% 107	29
Tolosaldea	% 4,21		433	475	% 91	-42
Urola Garaia	% 4,66		294	291	% 101	3
Urola Kostaldea	% 3,37		312	427	% 73	-115

	Estaldura		Orduak/plazak/prestazioak			
	2023	Proposamena 2030. urteari begira	2023	Proiekzioa 2030	Distantzia	Defizita
FIZPE (3.2.1) [Prestazioak]						
Gipuzkoa	**% 5,10**	**% 4,68**	**8.570**	**9.258**	**% 93**	**-688**
Bergaraldea	% 5,58	% 4,68	236	233	% 101	3
Bidasoaldea	% 3,85		704	1008	% 70	-304
Buruntzaldea	% 5,89		937	877	% 107	60
Deba Erdia	% 4,73		372	434	% 86	-62
Deba Kosta	% 5,83		328	310	% 106	18
Donostia	% 3,86		1.801	2.575	% 70	-774
Iraurgi	% 8,19		542	365	% 149	177
Leintz Ibarra	% 5,78		638	608	% 105	30
Oarsoaldea	% 5,16		853	911	% 94	-58
Oria Garaia	% 6,72		625	513	% 122	112
Tolosaldea	% 5,67		583	567	% 103	16
Urola Garaia	% 6,55		413	347	% 119	66
Urola Kostaldea	% 5,81		538	510	% 105	28

Oharra: (1) Adin nagusikoentzako egoitza-zentroetako plazen banaketa geografikoa bi maila ezberdinen arabera egiten da: plaza soziosanitarioak Sektore mailan (ekialdea, mendebaldea) zehazten dira, eta oinarrizko plazak eta psikogeriatrikoak Eremu mailan esleitzen dira. Bestalde, 2030. urteari begirako estaldura-proposamena kalkulatzeko hiru plaza motak batzen dira. Eremu bakoitzean dauden defizitak ebaluatzeko, bakoitzari plaza soziosanitario kopuru bat esleitzea erabaki da, gaur egun, beren gizarte zerbitzuetako Sektorean dagoen plazen estalduraren arabera. Horrek esanahi du estaldura-mailak eta plaza aldetiko premiak zehazteko ez dela oinarritzat hartzen eremu bakoitzean plaza soziosanitarioen egungo kokapena. Horren ordez, eremu bakoitzari plaza kopuru bat esleitzen zaio, aintzatetsiz horiek modu proportzionalean banatzen direla sektore berdina osatzen duten eremu ezberdinen artean.

(2) Zerbitzu/prestazio bakoitza berau txertatzeko esleitutako lurralde-eremuaren arabera banakatzen da. Salbuespenak dira ELZ (bere lurralde-eremua oinarrizko zonaldea da), eta LPPE eta FIZPE prestazioak (horien helburuak Lurralde Historiko mailan ezartzen dira). Hala badagokio, banakapena azterketa helburuekin burutu da.

27. taula. Itxarote-zerrendak aztertutako mendekotasunaren esparruko bigarren mailako arreta-zerbitzuetan. 2023/12/31.

	Itxarote-zerrendan dauden pertsonak (2023/12/31)	Plazak (2023/12/31)	Ratioa (%) [itxarote-zerrendan dauden pertsonak /plazak]
Autonomiarekin zerikusia duten murriztapenetatik eratorritako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa mendekotasun-egoeran dauden adin nagusiko pertsonentzako (2.2.1.1)			
Gipuzkoa	**359**	**1.597**	**% +22,5**
Bergaraldea	4	66	% 6,1
Bidasoaldea	28	97	% 28,9
Buruntzaldea	55	159	% 34,6
Deba Erdia	29	47	% 61.7
Deba Kosta	10	65	% 15,4
Donostia	65	404	% +16,1
Iraurgi	6	83	% 7,2
Leintz Ibarra	19	105	% 18,1
Oarsoaldea	25	180	% 13.9
Oria Garaia	18	105	% 17,1
Tolosaldea	14	97	% 14.4
Urola Garaia	23	90	% 25,6
Urola Kostaldea	63	99	% 63,6
Adin nagusikoentzako egoitza-zentroak (2.4.1)			
Gipuzkoa	**856**	**4.762**	**% 18,0**
Bergaraldea	23	99	% 23,2
Bidasoaldea	79	452	% 17,5
Buruntzaldea	70	372	% 18,8
Deba Erdia	42	347	% 12,1
Deba Kosta	16	96	% 16,7
Donostia	290	1521	% +19,1
Iraurgi	20	204	% 9,8
Leintz Ibarra	46	378	% 12,2
Oarsoaldea	89	395	% +22,5
Oria Garaia	46	265	% 17,4
Tolosaldea	37	231	% 16,0
Urola Garaia	37	173	% 21,4
Urola Kostaldea	61	229	% 26,6

28. taula. Estaldura-arrakalak eta EAEko GZ Mapako proposamenetara iristeko beharrezkoak diren baliabideen proiekzioa. Desgaitasunaren esparrua. Gipuzkoa, 2023-2030.

	Estaldura		Plazak/erabiltzaileak urtean			
	2023	Proposamena 2030. urteari begira	2023	Proiekzioa 2030	Distantzia	Defizita
Autonomiarekin zerikusia duten murriztapenetatik eratorritako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa pertsona desgaituentzat (2.2.1.2/3) [plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,193**	**% 0,219**	**833**	**937**	**% 89**	**-104**
Ekialdea	% 0,219	% 0,219	539	534	% 101	5
Mendebaldea	% 0,159		294	403	% 73	-109
Autonomiarekin zerikusia duten murriztapenetatik eratorritako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzat (2.2.1.4)						
Gipuzkoa	**% 0,055**	**% 0,071**	**239**	**302**	**% 79**	**-63**
Ekialdea	% 0,056	% 0,071	137	172	% 80	-35
Mendebaldea	% 0,055		102	130	% 79	-28
Okupazio-zerbitzu edo -zentroa (2.2.2) [Plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,239**	**% 0,260**	**1.024**	**1.116**	**% 92**	**-92**
Bergaraldea	% 0,301	% 0,260	27	27	% 98	0
Bidasoaldea	% 0,202		91	121	% 75	-30
Buruntzaldea	% 0,092		43	118	% 36	-75
Deba Erdia	% 0,380		59	46	% 129	13
Deba Kosta	% 0,000		0	37	% 0	-37
Donostia	% 0,374		433	282	% 153	151
Iraurgi	% 0,192		35	50	% 70	-15
Leintz Ibarra	% 0,317		74	68	% 109	6
Oarsoaldea	% 0,217		89	115	% 78	-26
Oria Garaia	% 0,194		52	68	% 76	-16
Tolosaldea	% 0,159		47	75	% 63	-28
Urola Garaia	% 0,202		30	39	% 78	-9
Urola Kostaldea	% 0,166		44	70	% 63	-26
Pertsona desgaituentzako egoitza-zentroak (2.4.2) [plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,228**	**% 0,247**	**984**	**1.058**	**% 93**	**-74**
Ekialdea	% 0,297	**% 0,247**	730	603	% 121	127
Mendebaldea	% 0,137		254	455	% 56	-201
Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.3) [plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,080**	**% 0,096**	**343**	**411**	**% 84**	**-68**
Ekialdea	% 0,080	% 0,096	197	234	% 84	-37
Mendebaldea	% 0,079		146	177	% 83	-31
Arreta Goiztiarreko esku-hartze Sozialeko Zerbitzua (2.7.4) [erabiltzaileak urtean]						
Gipuzkoa	**% 4,326**	**% 4,824**	**1.656**	**2.031**	**% 82**	**-375**

Oharra: Zerbitzu/prestazio bakoitza berau txertatzeko esleitutako lurralde-eremuaren arabera banakatzen da.

29. taula. Itxarote-zerrendak aztertutako desgaitasunaren esparruko bigarren mailako arreta-zerbitzuetan. 2023/12/31.

	Itxarote-zerrendan dauden pertsonak (2023/12/31)	Plazak (2023/12/31)	Ratioa (%) [itxarote-zerrendan dauden pertsonak /plazak]
Autonomiarekin zerikusia duten murriztapenetatik eratorritako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa pertsona desgaituentzat (2.2.1.2/3)			
Gipuzkoa	**37**	**833**	**% 4,44**
Ekialdea	24	539	% 4,45
Mendebaldea	13	294	% 4,42
Autonomiarekin zerikusia duten murriztapenetatik eratorritako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzat (2.2.1.4)			
Gipuzkoa	**7**	**239**	**% 2,93**
Ekialdea	4	137	% 2,92
Mendebaldea	3	102	% 2,94
Okupazio-zerbitzu edo -zentroa (2.2.2)			
Gipuzkoa	**10**	**1.024**	**% 0,98**
Bergaraldea	0	27	% 0,00
Bidasoaldea	0	91	% 0,00
Buruntzaldea	1	43	% 2,33
Deba Erdia	0	59	% 0,00
Deba Kosta	2	0	Plazarik ez
Donostia	5	433	% 1,15
Iraurgi	0	35	% 0,00
Leintz Ibarra	0	74	% 0,00
Oarsoaldea	0	89	% 0,00
Oria Garaia	0	52	% 0,00
Tolosaldea	0	47	% 0,00
Urola Garaia	0	30	% 0,00
Urola Kostaldea	2	44	% 4,55
Pertsona desgaituentzako egoitza-zentroak (2.4.2)			
Gipuzkoa	**108**	**984**	**% 10,98**
Ekialdea	77	730	% 10,55
Mendebaldea	31	254	% 12,20
Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.3)			
Gipuzkoa	**35**	**197**	**% 17,77**
Ekialdea	16	146	% 10,96
Mendebaldea	51	343	% 14,87

30. taula. Estaldura-arrakalak eta EAEko GZ Mapako proposamenetara iristeko beharrezkoak diren baliabideen proiekzioa. Babesgabetasunaren esparrua. Gipuzkoa, 2023-2030.

	Estaldura		Plazak/erabiltzaileak urtean			
	2023	Proposamena 2030. urteari begira	2023	Proiekzioa 2030	Distantzia	Defizita
Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-pisua (1.9.1.2) [plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,031**	**% 0,031**	**96**	**99**	**% 97**	**-3**
Bergaraldea	% 0,040		3	2	% 125	1
Bidasoaldea	% 0,018		6	11	% 56	-5
Buruntzaldea	% 0,025		8	10	% 80	-2
Deba Erdia	% 0,045		6	4	% 142	2
Deba Kosta	% 0,059		6	3	% 186	3
Donostia	% 0,033		28	27	% 105	1
Iraurgi	% 0,046	% 0,031	6	4	% 145	2
Leintz Ibarra	% 0,032		6	6	% 99	0
Oarsoaldea	% 0,003		1	10	% 10	-9
Oria Garaia	% 0,011		2	6	% 35	-4
Tolosaldea	% 0,060		12	6	% 189	6
Urola Garaia	% 0,000		0	3	% 0	-3
Urola Kostaldea	% 0,064		12	6	% 201	6
Adin txikikoentzako egoitza-zentroak (2.4.4) [plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,356**	**% 0,362**	**431**	**406**	**% 106**	**25**
Bidasoa	% 0,154		19	41	% 46	-22
Buruntzaldea	% 0,396		53	45	% 118	8
Debabarrena	% 0,172		16	31	% 51	-15
Debagoiena	% 0,347		37	36	% 104	1
Donostia	% 533	% 0,362	143	90	% 159	53
Goierri	% 0,537		70	44	% 160	26
Oarsoaldea	% 0,310		37	40	% 93	-3
Tolosaldea	% 0,100		9	30	% 30	-21
Urola Kosta	% 0,325		47	49	% 97	-2
Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste zenbait bizitegi-zerbitzu (2.4.6) [plazak][1]						
Gipuzkoa	**% 0,015**	**% 0,016**	**45**	**52**	**% 87**	**-7**
Ekialdea	% 0,018	% 0,016	32	30	% 107	2
Mendebaldea	% 0,010		13	22	% 60	-9
Familia-harreraren sustapen eta laguntza teknikorako Zerbitzua (2.7.6.1) [erabiltzaileak urtean]						
Gipuzkoa	**% 0,047**	**% 0,068**	**341**	**504**	**% 68**	**-163**

Oharra: (1) Tratu txarren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroetako plazen banaketa geografikoa bi maila ezberdinen arabera egiten da: egonaldi laburretarako plazak Lurralde Historiko mailan zehazten dira, eta iraupen ertaineko plazak sektore mailan esleitzen dira. Bestalde, 2030. urteari begirako estaldura-proposamena kalkulatzeko bi plaza mota horiek batzen dira. Sektore bakoitzean dauden defizitak ebaluatzeko, bakoitzari egonaldi laburreko plaza kopuru bat esleitzea erabaki da, gaur egun, Lurralde Historiko osoan plaza horiei dagokienez dagoen estalduraren arabera. Horrek esanahi du estaldura-mailak eta plaza aldetiko premiak zehazteko ez dela oinarritzat hartzen sektore bakoitzean egonaldi laburreko plazen egungo kokapena. Horren ordez, sektore bakoitzari plaza kopuru bat esleitzen zaio, aintzatetsiz horiek modu proportzionalean banatzen direla Lurralde Historikoa osatzen duten bi sektoreen artean.

(2) Zerbitzu/prestazio bakoitza berau txertatzeko esleitutako lurralde-eremuaren arabera banakatzen da.

31. taula. Estaldura-arrakalak eta EAEko GZ Mapako proposamenetara iristeko beharrezkoak diren baliabideen proiekzioa. Bazterkeriaren esparrua. Gipuzkoa, 2023-2030.

	Estaldura		Plazak/erabiltzaileak urtean			
	2023	Proposamena 2030. urteari begira	2023	Proiekzioa 2030	Distantzia	Defizita
Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.2) [Plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,035**	**% 0,042**	**151**	**180**	**% 84**	**-29**
Bidasoa	% 0,129		60	19	% 309	41
Buruntzaldea	% 0,000		0	19	% 0	-19
Debabarrena	% 0,000		0	13	% 0	-13
Debagoiena	% 0,000		0	15	% 0	-15
Donostia	% 0,055	% 0,042	60	46	% 132	14
Goierri	% 0,000		0	17	% 0	-17
Oarsoaldea	% 0,070		31	18	% 168	13
Tolosaldea	% 0,000		0	12	% 0	-12
Urola Kosta	% 0,000		0	19	% 0	-19
Gaueko harrera-zerbitzua (1.8) [Plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,030**	**% 0,033**	**181**	**206**	**% 88**	**-25**
Bidasoa	% 0,045		29	22	% 130	7
Buruntzaldea	% 0,000		0	21	% 0	-21
Debabarrena	% 0,053		24	16	% 153	8
Debagoiena	% 0,000		0	18	% 0	-18
Donostia	% 0,050	% 0,033	78	54	% 145	24
Goierri	% 0,000		0	20	% 0	-20
Oarsoaldea	% 0,064		39	21	% 186	18
Tolosaldea	% 0,018		7	13	% 52	-6
Urola Kosta	% 0,006		4	21	% 19	-17
Gizarte larrialdi-egoerak artatzeko harrera-pisua (1.9.1.1) [Plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,060**	**% 0,046**	**361**	**287**	**% 126**	**74**
Bidasoa	% 0,089		58	31	% 186	27
Buruntzaldea	% 0,039		24	30	% 81	-6
Debabarrena	% 0,084		38	22	% 174	16
Debagoiena	% 0,048		25	25	% 100	0
Donostia	% 0,046	% 0,046	72	75	% 96	-3
Goierri	% 0,088		50	27	% 184	23
Oarsoaldea	% 0,033		20	29	% 69	-9
Tolosaldea	% 0,122		48	19	% 255	29
Urola Kosta	% 0,042		26	30	% 87	-4

	Estaldura		Plazak/erabiltzaileak urtean			
	2023	Proposamena 2030. urteari begira	2023	Proiekzioa 2030	Distantzia	Defizita
Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako babespeko etxebizitza (1.9.2) [Plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,036**	**% 0,026**	**153**	**110**	**% 139**	**43**
Bidasoa	% 0,011		5	22	% 22	-17
Buruntzaldea	% 0,072		33	21	% 156	12
Debabarrena	% 0,050		16	16	% 102	0
Debagoiena	% 0,011		4	18	% 22	-14
Donostia	% 0,019	% 0,026	21	54	% 39	-33
Goierri	% 0,000		0	20	% 0	-20
Oarsoaldea	% 0,059		26	21	% 124	5
Tolosaldea	% 0,107		31	13	% 230	18
Urola Kosta	% 0,037		17	21	% 79	-4
Gizarteratzearekin lotutako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa (2.2.3) [Plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,055**	**% 0,054**	**235**	**230**	**% 102**	**5**
Ekialdea	% 0,068	% 0,054	167	131	% 128	36
Mendebaldea	% 0,037		68	99	% 69	-31
Gizarteratzearekin lotutako premiak artatzeko gaueko harrera-zentroa (2.3.2) [Plazak]						
Gipuzkoa	**% 0,002**	**% 0,004**	**12**	**28**	**% 43**	**-16**
Bazterkeria- edo marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.5) [Plazak][1]						
Gipuzkoa	**% 0,097**	**% 0,080**	**578**	**500**	**% 116**	**78**
Ekialdea	% 0,129	% 0,080	443	286	% 155	157
Mendebaldea	% 0,053		135	213	% 63	-78

Nota: (1) Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetako plazen banaketa geografikoa bi maila ezberdinen arabera egiten da: egoera kronifikatua duten pertsonentzako plazak Lurralde Historikoa mailan zehazten dira, eta laguntzak eskaintzen dituzten etxebizitzei eta gizarteratzeko egoitza-zentroei dagozkien plazak Sektore mailan esleitzen dira. Bestalde, 2030. urteari begirako estaldura-proposamena kalkulatzeko hiru plaza mota horiek batzen dira. Sektore bakoitzean dauden defizitak ebaluatzeko, bakoitzari egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako plaza kopuru bat esleitzea erabaki da, gaur egun, Lurralde Historiko osoan plaza horiei dagokienez dagoen estalduraren arabera. Horrek esanahi du estaldura-mailak eta plaza aldetiko premiak zehazteko ez dela oinarritzat hartzen egoera kronifikatuan dauden pertsonekin lotutako plazen egungo kokapena. Horren ordez, sektore bakoitzari plaza kopuru bat esleitzen zaio, aintzatetsiz horiek modu proportzionalean banatzen direla Lurralde Historikoa osatzen duten bi sektoreen artean.

(2) Zerbitzu/prestazio bakoitza berau txertatzeko esleitutako lurralde-eremuaren arabera banakatzen da.

32. taula. Itxarote-zerrendak aztertutako gizarte-bazterkeriaren esparruko bigarren mailako arreta-zerbitzuetan. 2023/12/31.

	Itxarote-zerrendan dauden pertsonak (2023/12/31)	Plazak (2023/12/31)	Ratioa (%) [itxarote-zerrendan dauden pertsonak /plazak]
Gizarteratzearekin lotutako premiak artatzeko zerbitzua edo eguneko zentroa (2.2.3)			
Gipuzkoa	**47**	**235**	**% 20,00**
Ekialdea	36	167	% 21,56
Mendebaldea	11	68	% 16,18
Gipuzkoa	**215**	**578**	**% 37,20**
Ekialdea	169	464	% 36,42
Mendebaldea	46	114	% 40,35

5. LURRALDEAREN ANTOLAKETAN ERABILITAKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

5.1 Lurraldearen antolamendua zehazteko erabilitako irizpideak

5.1.1 Antolamendurako oinarrizko irizpideak

GZL legeko 36.1 artikuluarekin bat etorriz, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapak *"Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatzeko eginkizuna du. Horretarako, katalogoan zehazten diren zerbitzuak ezartze aldera, biztanleriari dagozkion irizpiderik egokienak zehaztuko ditu, honako ezaugarri hauen arabera: zerbitzu horien izaera, zerbitzu hori eska dezaketen pertsonen kopurua, eta ahalik eta hurbilekoenak izan daitezen bermatzeko beharra, erabiltzaileak beren ohiko gizarte-ingurunean integratze aldera".*

Bestalde, GZL legeko artikulu berean adierazten den eran, adierazitako antolamendurako irizpideak aplikatzeko banaketa geografikoak foru- eta toki-administrazioek zehaztuko dituzte. Ildo horretatik, GZL legeko 41. artikuluan ezartzen denez, foru organoen eskumena izango da "*beren lurraldean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman bere eskumenekoak diren zerbitzuak antolatzea, eta geografia-hurbiltasuna eta baliabideak ahalik eta zuzenen erabili beharra gogoan harturik -printzipioak baitira-, mankomunitateak edo beste udal-elkarte batzuk osatzeko sustapen-lana eta bultzada, gizarte-zerbitzuak eskaintzeko".*

Eskumen hori garatuz, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan banaketa geografiko bakoitzeko zentroen hedapenerako irizpide orokorrak ezartzen dira, ardura duten instituzioek, lurraldean beren eskumeneko zentroen sarea hedatzeko orduan, kontuan izateko orientabideak direla adieraziz.

Horri dagokionez, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan zera ezartzen da:

a) zerbitzu motak, hurbiltasun-mailaren arabera.

b) zerbitzuak edo "populazio-eremuak" (populazio-bolumenak dira, baina ez banaketa edo mugaketa geografikoak) txertatzeko egokien ikusten diren populazio aldetiko irizpideak.
c) banaketa geografikoak edo "lurralde- edo geografia-eremuak".

Eta hiru alderdi horiek honako koadro honekin bat etorriz elkarlotzen ditu.

33. taula. EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan egokien jotako populazio-irizpideak

Hurbiltasun maila	Populazio eremua (Populazio kopurua)		Mugapen Geografikoa
Zentralizatuak	400.001 lurralde historikoko edo EAEko biztanleria osoa		Lurralde Historikoa edo EAE
Hurbiltasun txikia	200.001 - 400.000		Sektorea
Hurbiltasun ertaina	50.001-200.000		Eskualdea
Hurbiltasun altua	15.000-50.000		Eremua
Hurbiltasun oso altua	Oinarrizko hiri eremua	5.000 biztanle	Udalerria edo Udalerri-elkartea
	Oinarrizko landa eremua	3.000 biztanle	

5.1.2 Irizpide orokorren aplikazioa Gipuzkoan

Gipuzkoan zerbitzu bakoitza txertatzeko egokien modura ikusten diren geografia-eremuak zein diren zehazteko, lehenik eta behin, hurbiltasun-maila bakoitzari populazio-eremu bat esleitu behar zaio, eta bigarrenik, lurraldea banatzeko mugapen geografikoen proposamenean erabiltzen diren irizpideak zehaztu behar dira.

Irizpide horiekin bat etorriz, eta horri dagokionez 2017an Gipuzkoako udalek Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Mahaian erdietsitako akordioaren ondoren, Gipuzkoarako zerbitzu bakoitzerako lurralde-eremuen honako esleipena proposatzen da.

a) Zerbitzu eta lurralde-eremuetarako hurbiltasun-mailak esleitzea

Honako hau da EAEko Mapan zerbitzu moten artean aurreikusten den elkarrekikotasuna, beren hurbiltasun-maila eta lurralde-eremuak kontuan izanik.

34. taula. Hurbiltasun-mailen eta lurralde-eremuen arteko elkarrekikotasuna

Hurbiltasun-maila	Lurralde-eremua
Zerbitzu zentralizatuak	Lurralde Historikoa edo Autonomia Erkidegoa
Hurbiltasun urriko zerbitzuak	Gizarte Zerbitzuen Sektorea
Hurbiltasun ertaineko zerbitzuak	Administrazio-eskualdea
Hurbiltasun handiko zerbitzuak	Gizarte Zerbitzuen Eremua
Hurbiltasun handieneko zerbitzuak	Gizarte Zerbitzuetako Oinarrizko Zonaldea

b) Lurralde-eremua ezberdinak zehazteko ezarritako irizpideak

Katalogoko zerbitzu bakoitza gerora Gipuzkoa lurralde-eremu zehatzetan banatzeko aukera emango duten lurralde-eremu orokorretara esleitzeko, era berean, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako irizpideak aplikatu dira.

35. taula. Katalogoko zerbitzu bakoitzari esleitutako lurralde-eremua

Zerbitzuak	Lurralde eremua
1. LEHEN MAILAKO ARRETAKO GIZARTE-ZERBITZUAK	
1.1. Informazio, balioespena, diagnostiko eta orientabide zerbitzua	Oinarrizko eremua
1.2. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua	Oinarrizko eremua
1.3. Gizarte eta hezkuntza esparruko esku hartze zein esku hartze psikosozialeko zerbitzua	Oinarrizko eremua
1.4. Zaintzaileei laguntza emateko zerbitzua	Oinarrizko eremua
1.7. Eguneko arreta zerbitzuak	
1.7.1. Eguneko arreta zerbitzuak: adinekoak	eremua
1.7.2. Eguneko arreta zerbitzuak: bazterketa (eguneko zentroak eta jangelak)	Eskualdea
1.8. Gaueko harrera zerbitzuak: bazterketa (aterpetxeak eta neguko aterpetxeak)	Eskualdea
1.9.1. Ostatu-zerbitzuak	
1.9.1.1. Harrera etxebizitzak: (gizarte larrialdia eta indarkeria matxista)	eremua
1.9.2. Etxebizitza babestuak: bazterketa	Eskualdea
1.9.3. y 1.9.4. Ostatu zerbitzuak: adinekoak	eremua
2. BIGARREN MAILAKO ARRETAKO GIZARTE ZERBITZUAK	
2.2.1. Eguneko zerbitzuak edo zentroak	
2.2.1.1. Autonomia mugatuaren ondorioz sortzen diren premiei arreta emateko eguneko zerbitzu edo zentroa: adinekoak eta mendekotasuna	eremua
2.2.1.2. Autonomia mugatuaren ondorioz sortzen diren premiei arreta emateko eguneko zerbitzu edo zentroa: helduak eta desgaitasuna	Sektorea
2.2.2. Zerbitzu edo zentro okupazionala	eremua
2.2.3. Gizarteratze premiei arreta emateko zerbitzua edo eguneko zentroa	Sektorea
2.3.1. Gaueko harrera zentroak	
2.3.1.1. Autonomia mugatuaren ondorioz sortzen diren premiei arreta emateko gaueko zentroa	Lurralde Historikoa
2.3.2. Gizarteratze premiei arreta emateko gaueko harrera zentroa	Lurralde Historikoa
2.4. Egoitza zentroak	
2.4.1. Adinekoentzako egoitza zentroak	eremua
Egoitza zentro soziosanitarioak (*)	Sektorea
2.4.2. Desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza zentroak	
2.4.2.1. Laguntzadun etxebizitzak desgaitasunen bat duten duten pertsonentzat	Eskualdea
2.4.2.2. Desgaitasuna dutenentzako egoitza zentroak	Sektorea
2.4.3.Gaixotasun mentala dutenentzako egoitza zentroak	
2.4.3.1. Laguntzadun etxebizitzak gaixotasun mentala duten pertsonentzat	Eskualdea
2.4.3.2. Gaixotasun mentala dutenentzako egoitza zentroak	Sektorea
2.4.4. Babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako egoitza zentroak	Eskualdea
2.4.5. Bazterkeria eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroak	
2.4.5.1. Egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako egoitza zentroak	Lurralde Historikoa
2.4.5.2. Gizarteratzeko egoitza zerbitzuak	
2.4.5.2.1 Gizarteratzeko etxebizitzak laguntzekin	Eskualdea
2.4.5.2.2 Gizarteratzeko egoitza zentroak	Sektorea
2.4.6. (1) Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako egoitza zentroak eta emakumeentzako bestelako egoitza zerbitzuak: berehalako harrera zentroak	Lurralde Historikoa
2.4.6. (2) Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako egoitza zentroak eta emakumeentzako bestelako egoitza zerbitzuak: epe ertain eta luzeko egonaldirako zentroak	Sektorea

(*) Bigarren mailako arreta-zerbitzuen artean jasotzen dira egoitza-zentro soziosanitarioko arreta, katalogoan jasotzen ez den arren, ematen den baliabidea baita.

Jarraian lurralde-eremu bakoitza zehazteko irizpideak azaltzen dira.

b.1) Lurralde Historikoa

EAEko Mapan aipatzen den moduan, eremu gisa Lurralde Historikoa osoa duten zerbitzuak oso urriak izan behar dira derrigorrean.

b.2) Gizarte Zerbitzuen Sektorea

Gizarte Zerbitzuen Sektorearen xedea tamaina handiko eta biztanleria oso ugariko (edonola ere, Lurralde Historikoa baino txikiagoak) zonaldeak sortzea da, horietan ezaugarri hauek dituzten zerbitzuak ezartzeko: a) gaur egun hiriburuetan eman ohi direnak, Lurralde Historikoko biztanle guztiei zuzenduak izan arren; b) estaldura eta intentsitateari dagokionez tasa handirik eskatzen ez dutenak eta, horrenbestez, zentro oso espezifikoen bidez eman daitezkeenak; eta c) deszentralizatzea komeni da, hein batean bederen. Sektore horietako bakoitzaren tamaina, biztanleriari dagokionez, 200-000 eta 400.000 biztanle artekoa izan daiteke.

b.3) Eskualdeak

Erreferentziako udalerriz gaindiko lurralde-unitateak dira, arloko jarduketa publiko ezberdinak, horien artean, gizarte zerbitzuak, garatzeko sortuak. Ez da biztanleria aldetiko bolumen jakinik esleitze, izan ere, historikoki, udalerriz gaindiko administrazio-eremu gisa dauden onartuta; haatik, EAEko Mapan eskualde eta populazio-eremuaren banaketa geografikoa 50.001-199.999 biztanle bitartean ezartzen da hurbiltasun-maila ertaineko zerbitzuetarako.

b.4) Gizarte Zerbitzuen Eremua

Hurbiltasun handiko zerbitzuak Gizarte Zerbitzuen Eremuen bidez egituratzen dira. Horiek, oro har, udalerriz gaindiko unitateak dira, hurbiltasun-maila handia eskatzen

duten zerbitzuetarako, eta hainbat oinarrizko zonalde tarteko tamaina duten populazio-eremutan multzokatzeko diseinatuak. Horrenbestez, elkarren alboko oinarrizko zonalde ugariren multzokatzearen ondorioz eratuko dira, irisgarritasunaren, eraginkortasunaren eta efizientziaren ikuspegi batetik, programa jakin batzuk partekatu ahal izan daitezen edota horiek emateaz arduratzen direnei laguntza teknikoak emateko.

b.5) Gizarte Zerbitzuetako Oinarrizko Zonaldeak

Oinarrizko Zonaldeak oinarrizko gizarte zerbitzuen populazio-eremuak dira, eta baita Gizarte Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arreta-zerbitzu jakin batzuen lurralde-eremua ere. Udalek eurek zehaztuko dute, esleituta dituzten eskuduntzen arabera.

5.2 Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan proposatzen den lurraldearen egituraketa

Mapa honek oinarrizko lurralde-egitura proposatzen du.

- **Gizarte Zerbitzuen Sektorea**

1. Mapan islatzen den eran, Gipuzkoako Lurralde Historikoa bi sektoretan banatzen da:

- **EKIALDEKO sektorean** sartzen dira Bidasoa, Buruntzaldea, Donostia eta Oarsoaldea; hau da, Lurraldeko dentsitate hiritar handieneko zonaldea, **413.657** biztanlerekin.

- **MENDEBALDEKO sektorean** sartzen dira Urola Kosta, Debabarrena, Debagoiena, Goierri eta Tolosaldea, eta **313.055** biztanle ditu.

1. Mapa. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Sektoreak

- **Eskualdeak**

2018-2021 Mapan ezarritako banaketa mantentzen da. Gipuzkoa bederatzi eskualdetan banatzen da: Bidasoa, Buruntzaldea, Debabarrena, Debagoiena, Donostia, Goierri, Oarsoaldea, Tolosaldea eta Urola Kosta.

2. Mapa. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Eskualdeak (2024-2030 Mapa).

Biztanleria horrela dago banatuta, eskualdearen arabera:

36. taula. Gizarte Zerbitzuen eskualdeak eta biztanleak

Eskualdeak	Biztanleak	%
Bidasoa	79.741	11
Buruntzaldea	74.250	10
Donostia	188.136	26
Debabarrena	55.090	8
Debagoiena	62.604	9
Goierri	70.284	10
Oarsoaldea	71.530	10
Tolosaldea	48.629	7
Urola Kosta	76.448	11
GUZTIRA	726.712	100

Iturria: EIN, udal errolda, 2023ko urtarrilaren 1ean

- **Gizarte Zerbitzuen Eremua**

Eremuak zehazteko, lurraldea eskualde-azpiataletan banatzeko ezarritako irizpideak aplikatu dira. EAEko Mapan ezartzen denez, hurbiltasun handiko zerbitzuak, oro har, udalerriz gaindiko unitateak diren eremuen bidez egituratuko dira, hurbiltasun-maila handia eskatzen duten zerbitzuen lurralde-eremua zehazteko, eta hainbat oinarrizko zonalde tarteko tamaina duten populazio-eremutan multzokatzeko diseinatuak. 13 dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko eremuak.

37. taula. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Eremuak

Eremuak	Biztanleak
Bergaraldea	17.697
Bidasoaldea	79.741
Buruntzaldea	74.250
Deba Erdia	30.921
Deba Kosta	24.169
Donostia	188.136
Iraurgi	32.005
Leintz ibarra	44.907
Oarsoaldea	71.530
Oria Garaia	44.958
Tolosaldea	48.629
Urola Garaia	25.326
Urola Kostaldea	44.443

Iturria: EIN, udal errolda, 2023ko urtarrilaren 1ean.

Bidasoaldea, Oarsoaldea, Donostia eta Buruntzaldea eremuetan gehienez ezarritako 50.000 biztanle kopurua gainditzen den arren, 150 km²-tik beherako azalera izanik eta hiritarren dentsitatea handia denez, egokitzat jotzen da Eremu bakarrean eratzea.

Mugaketa hori honako zerbitzu hauetarako erabiliko da Mapa honetan:

1.- Adin nagusikoentzako eguneko zentroa (2.2.1. 1 mota- Zorro Dekretua)

2.- Okupazio-zerbitzu edo -zentroa (2.2.2. Zorro Dekretua)

3.- Adin nagusikoentzako egoitza-zentroak (2.4.1. Zorro Dekretua)

3. Mapa. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Eremuak

38. taula. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Eremuak udalerriekin

Eremuak	Udalerriak
Bidasoaldea	Hondarribia Irun
Oarsoaldea	Errenteria Lezo Oiartzun Pasaia
Donostia	Donostia
Buruntzaldea	Andoain Astigarraga Hernani Lasarte-Oria Urnieta Usurbil
Urola Kostaldea	Aia Getaria Orio Zarautz Zumaia
Iraurgi	Aizarnazabal Azkoitia Azpeitia Beizama Errezil Zestoa
Deba Kosta	Deba Elgoibar Mendaro Mutriku
Deba Erdia	Eibar Soraluze

Eremuak	Udalerriak
Bergaraldea	Antzuola Bergara Elgeta
Leintz Ibarra	Aretxabaleta Arrasate Eskoriatza Leintz-Gatzaga Oñati
Urola Garaia	Ezkio-Itsaso Legazpi Urretxu Zumarraga
Oria Garaia	Altzaga Arama Ataun Beasain Gabiria Gaintza Idiazabal Itsasondo Lazkao Legorreta Mutiloa Olaberria Ordizia Ormaiztegi Segura Zaldibia Zegama Zerain

Eremuak	Udalerriak
Tolosaldea	Abaltzisketa Aduna Albiztur Alegia Alkiza Altzo Amezketa Anoeta Asteasu Baliarrain Belauntza Berastegi Berrobi Bidania-Goiatz Elduain Gaztelu Hernialde Ibarra Ikaztegieta Irura Larraul Leaburu Lizartza Orendain Orexa Tolosa Villabona Zizurkil

- **Gizarte Zerbitzuetako Oinarrizko Zonaldea**

Udalerriak izango dira, beren antolakuntza-autonomiaren arabera, gizarte zerbitzuetako oinarrizko zonaldeak zedarrituko dituztenak.

6. LEHENTASUNEZKO PLAZAK 2024-2030 EPEALDIRAKO GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO GIZARTE ZERBITZUETAKO SARE PUBLIKOAN

6.1 Sarrera

Gizarte Zerbitzuetako Euskadiko Maparen defizit teorikoak 3 faktore kontuan izanik ezarri dira:

1.- Agertoki demografikoa
2.- Lurraldeen arteko konbergentziarako mekanismo baten aplikazioa
3.- Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioaren ondotik identifikatutako irizpideen aplikazioa

Aurretiaz adierazi ditugun defizitak EAEko Mapan adierazitako estalduren arabera finkatu dira.

Mendekotasunaren esparruan, EAEko Mapan baterako estaldurak ezartzen dira egoitza-zerbitzuetarako edo eguneko zerbitzuetarako eta Zerbitzura Lotutako Prestazio Ekonomikoan (ZLPE); bazterkeriaren eta babesgabetasunean dauden adin txikikoen esparruan, gutxienez aurreikusitako estaldurak gaur egun dagoeneko Gipuzkoan gainditu egiten dira lurralde mailan, baina ez eskualde edota sektore artean, horietan desberdintzak hautematen baitira.

Bestalde, plazak egikaritzeko erritmoa kudeaketarekin lotuta dago, eta kudeaketa horren barruan sartzen dira lursailen erabilgarritasuna, higiezinak, aurrekontu-erabilgarritasuna, udal-lizentziak, arauzko eskakizunak, egokitzapen-obren atzerapenak, etab. Bestalde, abian ditugu lurralde-eremu defizitarioak hartzen dituzten proiektuak, baita defizitarioak ez direnak eta amaitu behar ditugunak ere. Horrek guztiorrek lehentasunezko plazen proposamena baldintzatuko du.

Faktore horiek guztiak kontuan izanik, Saileko arreta-zerbitzu ezberdinetako aurreikuspenez gain, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapako lehentasunezko plazen zerrenda emango dugu jarraian 2024-2040 epealdirako jardute-eremu ezberdinetan.

6.2 Mendekotasun-egoeran dauden adin nagusiko pertsonak.

Zahartze gero eta handiagoak eta mendekotasun-egoeren igoerak egoitza-arreta indartzea eskatzen dute. Egoitza-zentroen bertsio hobetu bat ezinbestekoa izango da komunitatearen arretari soilik begiratu ezin dion ekosistema berri batean. Hori dela eta, EAEko Mapako helburuetako bat, GZES sistema 2030eko hamarkadari begira egokitzearekin lotuta, egoitza-zentroak egokitzea da.

Adin nagusiko pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.1) egokitzeko prozesu bat bultzatu nahi da, horiek etxe baten modura aintzatetsi, diseinatu eta kudeatuz gehiago, horien tamaina eta bertan jasotzen diren unitateen tamaina murriztuz, eta horiek dibertsifikatuz, gizarte zein osasun mailako prestazioen intentsitatea zentro bakoitzean eta, oro har, sarean, pertsona erabiltzaileen premien bilakaerara egokituz, arretaren jarraipen eta pertsonalizazio handiagoa lortze aldera.

Bizitegi-eredu berri horrek plazen galera dakar berekin; izan ere, espazioak baterako zonaldez hornitutako bizikidetza-unitate bihurtuta eta bakarkako gelak lehenetsiz, pertsona erabiltzaile bakoitzarentzat erabilgarri dagoen espazioa areagotu egin behar da, baina horrek plazen galera dakar ondorio modura, eredu horretara egokitutako ekipamendu berriak eraikiz konpentsatu beharko duguna.

6.2.1 Egoitzak

EAEko Mapak **5.590 plazetara** (egoitzetako plazak + ZLPE) iristea aurreikusten du, 2030. urteari begira. Plaza horiei ZLPE prestazioari dagozkion 308 plazako estimazio bat kenduta, **668** plaza sortu beharko dira mendekotasun egoeran dauden adin nagusiko pertsonentzako egoitzetan 2024-2030 epealdiari so.

Zentroak egokitzean, egoitzetako plazen % 5 inguru galduko da. Beraz, beharrezkoa da ekipamendu berriak sortzea, 2030. urteari begira sortzea aurreikusita daudenetatik harago.

2024-2030 epealdian dagoeneko onartuta dauden **684** plaza sortuko ditugu, eta 299 plaza kenduko dira zentro ezberdinetan; eta horren ondorioz pertsona erabiltzaile batzuk beste zentro batzuetara mugitu beharko dira.

39. taula. Plazen aurreikuspen partziala adin nagusiko pertsonentzako egoitzetan 2024-2030

Eremuak	Sortu beharreko plazak	Lekualdaketak	Saldo Netoa
Bidasoaldea	130	68	62
Buruntzaldea	108	57	51
Deba Kosta	87	48	39
Iraurgi	125	86	39
Oarsoaldea	124	40	84
Urola Kostaldea	110	0	110
Guztira	**684**	**299**	**385**

Defizitak ebaluatu ondoren, eta Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzuaren aurreikuspenekin bat etorriz, **lehentasunezko 757 plaza GARBIREN** azken proposamen bat egin da. **EAEko Mapan** finkatzen den estaldura **2,828koa** da. Kanpoan utzi ditugu ezarritakoa baino estaldura handiagoa duten eremuak, Iraurgi izan ezik, 3,06ko estaldura izan arren, 39 plaza areagotzea dakarren plangintza bat aurreikusten duena. Urola Kostaldean, defizitak 70 plaza areagotzea eskatzen badu ere, indarreko plangintzak 110 plaza areagotzea aurreikusten du. Gainerako eremuetan, plazen kalkulua estaldura-defizita duten biztanleen artean 668 plaza defizitarioak esleitzearen ondorio da. Emaitzak 2024-2030 epealdian sortzeko lehentasunezko plazen kopurua ematen digu.

40. taula. Plazak eta estaldurak adin nagusiko pertsonen mendekotasunaren esparruan. Egoitzak. 2023/12-2030

Eremuak	Populazioa >=65 Eustat 22/1/1/	Plazen egoera 2023-12	Plaza baim. eta hitz. arteko aldea	Estaldura 2023/12	EJ Sortu beharrekoak 2024-2030	Lehent. Plazak
Adinekoentzako egoitzak (2.4.1)	**165.261**	**4.614**	**637**	**2,79**	**668**	**757**
Bergaraldea	4.257	99	1	2,33	33	33
Bidasoaldea	17.693	452	91	2,55	139	119
Buruntzaldea	15.765	372	10	2,36	124	124
Deba Erdia	7.746	299	7	3,86	0	0
Deba Kosta	5.542	96	0	1,73	43	43
Donostia	45.526	1.448	380	3,18	0	80
Iraurgi	6.675	204	9	3,06	0	39
Leintz Ibarra	10.919	378	36	3,46	0	0
Oarsoaldea	16.573	395	6	2,38	130	120
Oria Garaia	9.155	265	45	2,89	0	0
Tolosaldea	10.173	231	22	2,27	80	50
Urola Garaia	6.257	146	9	2,33	49	39
Urola Kostaldea	8.980	229	21	2,55	70	110

Iturria: Berez eratua

Adin nagusiko pertsonentzako egoitzetako plazak areagotzeko proposamen horrez gain, lehentasunezkotzat joko dira egungo egoitza-zentroaren eredua eraldatuko duten baliabide berriak, horien tipologia profil eta eskari berrien arabera dibertsifikatuz eta espezializatuz, arreta narriadura kognitiboa eta bestelako dementziak dituzten mendekotasun-egoera larrian diren pertsonen profil anitzetara egokitzeko xedez.

Halaber, lehentasunezkotzat joko dira, era berean, adin nagusiko pertsonei komunitatean laguntza ematen dieten alojamendu-zerbitzu berrien plazak, belaunaldi berrien premia eta iguripenetara edota hiri- zein landa-ingurunera egokitutako alternatibak bultzatuko dituztenak, alternatibak dibertsifikatuz eta beste zerbitzu batzuekin konbinatuz.

Unitate psikogeriatrikoei (UPSI) dagokienez, plaza guztiekiko % 13 inguruko igoerako helburua planteatu genuen.

6.2.2 Eguneko zentroak

EAEko Mapan ezartzen den eran, beren etxean bizi direnentzako lehen mailako eta bigarren mailako arreta bultzatu behar da. Zentro horiek, funtsean, beren familietan bizi diren mendeko pertsonei daude zuzenduta.

Adin nagusiko pertsonen % 85ak bere etxean mantendu nahi du, eta horretarako, prestazioak zein zerbitzuak ahalbidetu behar dira, eta funtsezkoa da eguneko zentroko plaza baterako sarbidea bermatzea hala behar duten adin nagusiko mendeko pertsona guztiei, modu horretan, pertsona hori bere etxean mantentzea ahalbidetuz.

EAEko Mapak **1.912 plazetara** (plazak + ZLPE) iristea aurreikusten du, 2030. urteari begira. Plaza horiei ZLPE prestazioari dagozkion 4 plazako estimazio bat kenduta, **311** plaza sortu beharko dira mendekotasun egoeran dauden adin nagusiko pertsonentzako eguneko zentroetan 2024-2030 epealdiari so.

2024-2030 epealdian dagoeneko onartuta dauden **130** plaza sortuko ditugu, eta 60 plaza kenduko dira zentro ezberdinetan; horren ondorioz pertsona horiek zentro berrietara aldatuko dira.

41. taula. Plazen aurreikuspen partziala adin nagusiko pertsonentzako eguneko zentroetan 2024-2030 epealdiari begira

Eremuak	Sortu beharreko plazak	Lekualdaketak	Saldo Netoa
Bidasoaldea	30	0	30
Buruntzaldea	30	25	5
Deba Kosta	40	20	20
Oarsoaldea	30	15	15
Guztira	**130**	**60**	**70**

Itxarote-zerrendan dauden pertsona kopuruak gora egin arren, batez beste itxaro beharreko denbora bi hilabetekoa, halako zerbitzu mota batean onargarri deritzoguna.

Defizitak ebaluatu ondoren, eta Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzuaren aurreikuspenekin bat etorriz, **lehentasunezko 235 plaza GARBIREN** azken proposamen bat egin da. **EAEko Mapan** finkatzen den estaldura **0,967koa** da, eta ezarritakoaren gainetiko estaldura duten eremuak kanpoan utzi ditugu, Buruntzaldea, Deba Kosta, Oarsoaldea eta Urola Kostaldea izan ezik. Azken horien kasuan, finkatutakoa baino estaldura handiagoa izan arren, 5, 20, 15 eta 40 plaza areagotzea dakarren plangintza bat dute aurreikusita, hurrenez hurren. Gainerako eremuetan, plazen kalkulua egiteko, eremu defizitarioei 2024-2030 epealdian onargarri diren plazak esleitu behar zaizkie.

42. taula. Plazak eta estaldurak adin nagusiko pertsonen mendekotasunaren esparruan. Eguneko zentroak. 2023/12-2030

Eremuak	Populazioa >=65 Eustat 22/1/1/	Plazen egoera 2023-12	Plaza baim. eta hitz. arteko aldea	Estaldura 2023/12	EJ Sortu beharrekoak 2024-2030	Lehent. Plazak
Mendekotasun adinekoentzako eguneko zentroak (2.2.1)	**165.261**	**1.597**	**274**	**0,97**	**311**	**235**
Bergaraldea	4.257	66	0	1,55		
Bidasoaldea	17.693	97	48	0,55	60	30
Buruntzaldea	15.765	159	61	1,01	0	5
Deba Erdia	7.746	47	3	0,61	26	13
Deba Kosta	5.542	65	20	1,17	0	20
Donostia	45.526	404	55	0,89	154	77
Iraurgi	6.675	83	0	1,24		
Leintz Ibarra	10.919	105	18	0,96	37	18
Oarsoaldea	16.573	180	22	1,09	0	15
Oria Garaia	9.155	105	15	1,15		
Tolosaldea	10.173	97	35	0,95	34	17
Urola Garaia	6.257	90	0	1,44		
Urola Kostaldea	8.980	99	19	1,10		40

Iturria: Berez eratua

Asteburu eta jaiegunetako plazei dagokienez, Zerbitzuak emandako informazioaren arabera, eskaria areagotzea aurreikusten da. Beraz, plaza berrien, gutxienez **40ak**, **asteburuan eta jaiegunetan** eman beharko du zerbitzua.

43. taula. Plazak eta estaldurak adin nagusiko pertsonen mendekotasunaren esparruan. Eguneko zentroak. Asteburuak eta jaiegunak. 2023/12-2030.

Eremuak	Populazioa >=65 Eustat 22/1/1	Plazen egoera 2023-12	Estaldura 2023/12	Lehent. Plazak
Adinekoentzako eguneko zentroak. Asteburuak eta jaiegunak (2.2.1)	**165.261**	**703**	**0,43**	**94**
Bergaraldea	4.257	25	0,59	
Bidasoaldea	17.693	57	0,32	12
Buruntzaldea	15.765	62	0,39	2
Deba Erdia	7.746	30	0,39	5
Deba Kosta	5.542	10	0,18	8
Donostia	45.526	172	0,38	31
Iraurgi	6.675	46	0,69	0
Leintz Ibarra	10.919	30	0,27	7
Oarsoaldea	16.573	56	0,34	6
Oria Garaia	9.155	40	0,44	0
Tolosaldea	10.173	49	0,48	7
Urola Garaia	6.257	73	1,17	0
Urola Kostaldea	8.980	53	0,59	16

Azkenik, eta aurreko atalean adierazten den moduan, lehentasunezkotzat joko dira, era berean, narriadura kognitibotik eta bestelako dementzietatik eratorritako arazo larriak dituzten mendekotasun-egoera larrian diren pertsonei zuzendutako arreta-eskari gero eta ugariagoaren aurrean eguneko arreta-baliabideek beregain hartzen dituzten esku-hartzeak.

6.3 Esparru soziosanitarioa

Euskadin, arreta soziosanitarioaren helburua pertsonen osasuna eta autonomia hobetzea, beren ongizate orokorra bultzatzeko xedez, gizarte zerbitzuetako eta osasun arloko sistemen jarduketa koordinatuaren bidez.

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 legearekin bat etorriz, ***"Osasun-arazo larriak direla-eta, edo eginkizunen arloko mugak direla-eta, eta/edo gizartetik baztertirik geratzeko arriskua dela-eta, pertsona batzuek behar dituzten zainketek osatzen dute arreta soziosanitarioa, osasun-arreta eta gizarte-arreta aldi berean***

biltzen dituena, koordinatua eta egonkorra, arreta jarraituaren printzipioarekin bat datorrena".

Esparru horretan Bizitegi Unitate Soziosanitarioak funtsezko baliabidea dira. Autonomia funtzionalaren galeraren aurrean arreta soziosanitarioa ematen duten unitate espezializatuetako plazak dira, gaitasun funtzionala hobetzeko helburua dutenak, eta bizitzaren azken fasean dauden pertsonen kasuan, beren bizi-kalitatea ahalik eta gehien hobetzea. Halaber, ospitaleratzeko modukoak izan gabe, arreta soziosanitarioko premia handiak izateagatik, pertsona etxean edo mendeko pertsonentzako egoitzetan mantentzea zaila den kasuetan arreta emateko baliabidea dira. Gaur egun hiru unitate ditugu Donostian, Zumarragan eta Eibarren kokatuta, guztira 148 plazarekin.

Baliabide horretarako eskaria zehazteko garaian, Saileko arreta-zerbitzuek helarazitako arreta-premien aurreikuspena hartzen da abiapuntu gisa, ekialdeko sektorean **40 plaza** gehiago aurreikusten dutenak.

6.4 Pertsona desgaituak.

EUSTAT erakundearen proiekzio demografikoen arabera, 2030ean, 18-64 urte bitarteko biztanleriak, zein, oso bereziki, 0-6 urte bitarteko biztanleriak behera egingo dute EAEn, % 4,5 eta % 7,2 hurrenez hurren, 2019. urtearekiko.

Hasiera batean, horrek berekin ekarriko luke mendekotasunaren esparruko zerbitzu eta prestazio guztietan plaza kopuruak behera egitea, edo bestela, pertsona erabiltzaile edo jasotzaile kopuruak behera egitea 2030ean. Haatik, EAEko Mapan pertsona desgaituentzako zerbitzuak bultzatzearen alde egiten da, hedapen-irizpide modura plazetan **% 10eko** igoera bat ezarriz; izan ere, uste denez, bilakaera demografikoa ez da berekin ekartzen ari zerbitzuen eskariak eta premiak behera egitea esparru honetan.

6.4.1 Egoitzak eta etxebizitzak

Defizitak ebaluatu ondoren, eta Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzuaren aurreikuspenekin bat etorriz, **lehentasunezko 100 plaza GARBIREN** azken proposamen bat egin da. **EAEko Mapak** finkatutako estaldura **0,247koa** da. Ekialdeko sektorean estaldura hori gainditu egiten da, baina ez mendebaldean.

44. taula. Plazak eta estaldurak desgaitasunaren esparruan 2023/12-2030. Egoitzak eta etxebizitzak.

Sektoreak	Populazioa 18-64 Eustat 22/1/1	Plazen egoera 2023-12	Plaza baim. eta hitz. arteko aldea	Estaldura 2023/12	EJ Sortu beharrekoak 2024-2030	Lehent. Plazak
Desgaituentzako egoitzak (2.4.2.1)	**432.229**	**984**	**76**	**0,23**	**74**	**100**
Ekialdeko Sektorea	246.625	730	60	0,30		46
Mendebaldeko Sektorea	185.604	254	16	0,14	74	54

Iturria: Berez eratua

6.4.2 Eguneko zentroak

EAEko Mapak 2030. urteari begira 937 plazetara iristea aurreikusten du. Beraz, **104 plaza** sortu beharko lirateke EAEko Mapan aurreikusitako gutxieneko estaldurara iristeko.

Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzuak emandako informazioaren arabera, eskariak gora egitea aurreikusten da; izan ere, urtero Hezkuntza Sailetik nahiz Gureak elkartetik eratorritako pertsonak hartu behar dira. Beraz, komenigarritzat jotzen da **lehentasunezko 90 plaza** ituntzea. Hori izango litzateke 2024-2030 epealdirako plaza kopuru onargarria.

45. taula. Plazak eta estaldurak desgaitasunaren esparruan 2023/12-2030. Eguneko zentroak.

Sektoreak	Populazioa 18-64 Eustat 22/7/1	Plazen egoera 2023-12	Plaza baim. eta hitz. arteko aldea	Estaldura 2023/12	EJ Sortu beharrekoak 2024-2030	Lehent. Plazak
Desgaituentzako eguneko zentroak (2.2.1.2/2.2.1.3)	**432.229**	**833**	**94**	**0,19**	**104**	**90**
Ekialdeko Sektorea	246.625	539	43	0,22		30
Mendebaldeko Sektorea	185.604	294	51	0,16	104	60

Iturria: Berez eratua

6.5 Gaixotasun mentala duten pertsonak

Osasun metalaren arazo konplexua Osasun sistemaren eta zerbitzuen zein gizarte arloko hirugarren sektoreko erakundeen arteko koordinazioa zein komunitatearen beraren aktibazioa eta konexioa aintzat hartuta jorratzen dugu. Plaza horiek EAEko Gobernuaren Osasun Sailaren koordinazioarekin eta elkarren arteko finantzaketarekin eskaintzen dira.

Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitzetan eta etxebizitzen dauden plazez gain, baditugu osasun mentaleko beste zenbait baliabide espezifiko bazterkeriaren eta babesgabetasun-egoeran dauden adin txikiko pertsonen esparruan.

Sarea sendotu eta hedatzea nabarmentzeko, EAEko Mapan, irizpide modura, gaixotasun mental kronikoko esparruan zerbitzu guztietan plazak**% 15** areagotzea aplikatzen da.

6.5.1 Egoitzak eta etxebizitzak

EAEko Mapan, 2024-2030 epealdirako, gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitzetan **68** plaza sortzea aurreikusten da, **411** plazako kopurura iritsi arte. Ongi deritzogu aurreikuspen horri.

46. taula. Plazak eta estaldurak osasun mentalaren esparruan 2023/12-2030. Egoitzak eta etxebizitzak.

Sektoreak	Populazioa 18-64 Eustat 22/7/1	Plazen egoera 2023-12	Plaza baim. eta hitz. arteko aldea	Estaldura 2023/12	EJ Sortu beharrekoak 2024-2030	Lehent. Plazak
Gaixotasun mentaleko egoitzak (2.4.3)	**432.229**	**343**	**9**	**0,08**	**68**	**68**
Ekialdeko Sektorea	246.625	197	2	0,08	39	39
Mendebaldeko Sektorea	185.604	146	7	0,08	29	29

Iturria: Berez eratua

6.5.2 Eguneko zentroak

EAEko Mapak **302 plazetara** iristea aurreikusten du, 2030. urteari begira. Gaur egun, 239 plaza ditugu gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroetan. Beraz, EAEko Mapan aurreikusitako gutxienekoetara iristeko, **63 plaza** sortu beharko lirateke.

2023ko abenduaren 31n soilik 7 pertsona zeuden itxarote-zerrendan. Defizitak ebaluatu ondoren, eta zerbitzuaren aurreikuspenaren arabera, 2024-2030 epealdirako **lehentasunezko 24 plaza GARBI** da plaza kopuru onargarria. **EAEko Mapak** finkatutako estaldura **% 0,071ekoa** da. Baliabide honetan, sektoreen araberako estaldura orekatua dago.

47. taula. Plazak eta estaldurak gaixotasun mentalaren esparruan 2023/12-2030. Eguneko zentroak.

Sektoreak	Populazioa 18-64 Eustat 22/7/1	Plazen egoera 2023-12	Plaza baim. eta hitz. arteko aldea	Estaldura 2023/12	EJ Sortu beharrekoak 2024-2030	Lehent. Plazak
Gaixotasun mentalaleko eguneko zentroak (2.2.1.4)	**432.229**	**239**	**11**	**0,06**	**63**	**24**
Ekialdeko Sektorea	246.625	137	3	0,06	36	13
Mendebaldeko Sektorea	185.604	102	8	0,05	27	11

Iturria: Berez eratua

6.6 Okupazio-zentroak

Zerbitzu hori Gureak elkartearekin lankidetza-hitzarmena eginda ematen da, eta pertsona desgaituen garapen pertsonala du xede, gizarte eta lan arloko konpetentziak praktikan jartzeko aukera ematen duten egiazko ekoizpen-jardueretan parte hartuz.

EAEko Mapan okupazio-zentroetan **92** plaza sortzea aurreikusten da 2024-2030 epealdirako, **1.116** plazetara iritsi arte.

EAEko Mapan ezarritakoaz azpitiko estaldura duten eremuetan defizitak ebaluatu ondoren, eta Gureak elkartearekin dagoen hitzarmenean plaza kopurua areagotzeko aurreikuspenak aitzat hartuz, **lehentasunezko 40 plaza GARBIREN** azken proposamena egin da. **EAEko Mapak** finkatutako estaldura **% 0,260koa** da. Plaza horiek, funtsean, dagoeneko okupazio-zentroen zuzkidura duten eremuetan sortuko dira.

48. taula. Plazak eta estaldurak desgaitasunaren esparruan 2023-2030. Okupazio-zentroak.

Eremuak	Populazioa 18-64 Eustat 22/1/1	Plazen egoera 2023-12	Estaldura 2023/12	EJ Sortu beharrekoak 2024-2030	Lehent. Plazak
Zentro okupazionalak (2.2.2)	**432.229**	**1.024**	**0,24**	**92**	**40**
Bergaraldea	10.697	27	0,25		
Bidasoaldea	46.965	91	0,19	16	4
Buruntzaldea	45.485	43	0,09	16	12
Deba Erdia	17.860	59	0,33		
Deba Kosta	14.279	0	0,00	5	
Donostia	109.932	433	0,39		6
Iraurgi	19.356	35	0,18	7	4
Leintz Ibarra	26.144	74	0,28		
Oarsoaldea	44.243	89	0,20	15	5
Oria Garaia	26.301	52	0,20	9	
Tolosaldea	28.883	47	0,16	10	4
Urola Garaia	14.965	30	0,20	5	2
Urola Kostaldea	27.119	44	0,16	9	3

Iturria: Berez eratua

6.7 Bazterkerian dauden pertsonak

EAEko II. Plan Estrategikoak 5 ardatz hartzen ditu. Gizarteratzearen ardatzean kokatutako helburu estrategikoa honako hau da: bazterkeria-sarea indartzea eta sare hori deszentralizatzeko urratsak ematea, baita lehen eta bigarren mailako arreta artikulatzeko eta jarraitzeko, arreta malgutzeko eta pertsonalizatzen eta prebentziozko ikuspegia emateko ere, beste sistema batzuekin lankidetzan aurrera eginez inklusioaren mesedetan.

Sarea sendotu eta hedatzea nabarmentzeko, EAEko Mapan, irizpide modura, bazterkeriaren esparruan zerbitzu guztietan plazak**% 15** areagotzea aplikatzen da.

6.7.1 Egoitzak eta etxebizitzak

EAEko Mapak 2030. urteari begira **500** plaza egotea aurreikusten du, bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitzetan. 2023ko abenduan 578 plaza zeuden, aurreikusita baino 78 plaza gehiago.

Itxarote-zerrenden ebaluazioa egin ondoren, **lehentasunezko 85 plaza GARBIREN** azken proposamena egin da. Horrek itundutako plazak % 15 areagotzea dakar. **EAEko Mapak** finkatutako estaldura**0,080koa** da. EAEko Maparen aurreikuspenekin alderatuz estaldurari dagokionez superabita orokorra egon arren (0,13), lurraldearen araberako desoreka nabaria da; estaldura hori sektoreka aztertzen badugu, mendebaldeko sektorean estalduraren defizita adierazgarria da (0,06). Zerbitzuko aurreikuspenak kontuan izanik, mendebaldeko sektorean 60 plaza (EAEko Mapan aurreikusitako estaldura gainditzea suposatuko luke) eta ekialdeko sektorean 25 plaza sortzea proposatzen da.

49. taula. Plazak eta estaldurak bazterkeriaren esparruan 2023/12-2030. Egoitzak eta etxebizitzak.

Eremuak	Populazioa 18-64 Eustat 22/7/1	Plazen egoera 2023-12	Plaza baim. eta hitz. arteko aldea	Estaldura 2023/12	EJ Sortu beharrekoak 2024-2030	Lehent. Plazak
Gizarteratzeko egoitzak (2.4.5-2)	**432.229**	**578**	**34**	**0,13**	**0**	**85**
Ekialdeko Sektorea	246.625	464	16	0,19	_	25
Mendebaldeko Sektorea	185.604	114	18	0,06	_	60

Iturria: Berez eratua

6.7.2 Eguneko zentroak

EAEko Mapak 2030. urteari begira 230 plaza egotea aurreikusten du, bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan. 2023ko abenduan **235** plaza zeuden. Beraz, aurreikusitako gutxienekoa gainditu egiten da.

Itxarote-zerrenden ebaluazioa egin ondoren, eta Inklusio Zerbitzuaren aurreikuspenak kontuan izanik, **lehentasunezko 35 plaza GARBIREN** azken proposamena egin da. Horrek itundutako plazak % 15 areagotzea dakar. **EAEko Mapak** finkatutako estaldura **0,054koa** da.

50. taula. Plazak eta estaldurak bazterkeriaren esparruan 2023/12-2030. Eguneko zentroak.

	Populazioa 18-64 Eustat 22/7/1	Plazen egoera 2023-12	Plaza baim. eta hitz. arteko aldea	Estaldura 2023/12	EJ Sortu beharrekoak 2024-2030	Defizita/ Superabita	Lehent. Plazak
Gizarteratzeko eguneko zentroak (2.2.3)	**430.267**	**235**	**17**	**0,05**	**230**	**-5**	**35**
Ekialdeko Sektorea	245.324	167	17	0,07	131	-36	5
Mendebaldeko Sektorea	184.943	68	0	0,04	99	31	30

Iturria: Berez eratua

6.7.3 Gaueko Harrera Zentroak

EAEko Mapak 2030. urteari begira 28 plaza egotea aurreikusten du, bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan.

Inklusio Zerbitzuak emandako informazioaren arabera **6 plaza** irekitzea aurreikusten da, susperraldira bideratuak, dagoen eskariari aurre egin ahal izateko.

6.8 Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta instituzio arteko Aurre Planari jarraituz hedatu da. Plan honen ardatzak dira prebentzioa, prestakuntza, arreta eta ikerketa; eta zeharkako izaera du.

Egonaldi ertain eta berehalako harrera-zentroetan ematen den arretaz gain, indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako laguntza sozial-juridiko eta psikosozialeko zerbitzu bat ere ematen da, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeko, esku-hartze psikosozialeko eta, hala badagokio, terapeutikoko premiei modu integralean heltzen diena, baita

indarkeria matxistaren balizko ekintzetatik eratorritako aholkularitza soziojuridikoko premiei ere, edozein eremutan gertatu direla ere.

EAEko Mapak 2030. urteari begira 52 plaza egotea aurreikusten du, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroetan. 2023ko abenduan 45 plaza zeuden. Beraz, **7 plaza** sortu behar da Mapan aurreikusitako gutxienekora iristeko.

Zerbitzuaren aurreikuspenak kontuan izanik, **lehentasunezko 10 plaza GARBIREN** azken proposamena egin da. Horrek itundutako plazak % 22 areagotzea dakar. **EAEko Mapak** finkatutako estaldura **0,016koa** da. Ikus daitekeenez, lurraldearen arabera desoreka agerikoa da. Beraz, proposatutako plazak mendebaldeko sektorean sortu beharko lirateke.

51. taula. Plazak eta estaldurak babesgabetasunaren esparruan 2023/12-2030. Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitzak.

	Emakumeen Populazioa >=18 Eustat 22/7/1	Plazen egoera 2023-12	Estaldura 2023/12	EJ Sortu beharrekoak 2024-2030	Lehent. Plazak
Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak (2.4.6)	**308.486**	**45**	**0,015**	**7**	**10**
Ekialdeko Sektorea	179.374	40	0,022		
Mendebaldeko Sektorea	129.112	5	0,004	7	10

Iturria: Berez eratua

Bestalde, Indarkeria Matxistaren Biktima den Emakumea Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzuak emandako informazioaren arabera, laster sexu-indarkeriaren osoko arretarako 3 zentro irekitzea aurreikusten da.

6.9 Babesgabetasunean dauden adin txikikoak

Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuan Haurtzaroari eta Nerabezaroari buruzko Ekintza Plana (2023-2029) zehaztu dute. Plan horrek sektore ugari eta diziplinarteko

izaera du, eta lurraldeko eragile eta administrazio ezberdinen orientazio eta ekintzak uztartu eta koordinatzen ditu.

Babesgabetasun-egoeran dauden adin txikikoengan osasun mentaleko arazoek gora egin dutela ikusita, 2023an Bizigazte izeneko zentro soziosanitarioa jarri da martxan, babesik gabeko eta osasun mentaleko arazoak dituzten adin txikiko pertsonentzat Arrasateko San Joan Jainkoaren ospitalean. Zentro horren xedea da arreta psikiatriko intentsiboa eskatzen duten konplexutasun eta zaurgarritasun handiko egoeran dauden haurren eta nerabeen arreta pertsonalizatu eta errehabilitaziokoa eskaintzea.

Arretarako baliabide guztietan eskariak gora egiten jarraitzen du, eta esku-hartzearen denbora ere areagotu egin da. Haurrak eta nerabeak denbora gehiagoan artatzen dira, eta horrek Zerbitzura iristen den eskari osoa hartzeko zailtasunak dakartza.

Eustat erakundearen proiekzio demografikoko aurreikuspenen arabera 2030ean 18 urtetiko beherako pertsona kopuruak modu adierazgarrian behera egingo duen arren, bilakaera demografiko horrekin esparru horretan dauden eskariak eta zerbitzu aldetiko premiak ez direla behera egiten ari uste da.

6.9.1 Egoitzak eta etxebizitzak

EAEko Mapak 2030. urteari begira **406** plaza egotea aurreikusten du, babesgabetasun-egoeran dauden adin txikiko pertsonentzako egoitzetan. 2023ko abenduan 431 plaza zeuden. Beraz, Mapan eskatzen den gutxienekoa gainditu egingo litzateke.

Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuaren aurreikuspenak kontuan izanik, **lehentasunezko 60 plaza GARBIREN** azken proposamena egin da. Horrek itundutako plazak % 15 areagotzea dakar. Plaza aldetiko defizita ageri duten eskualdeetan esleitu dira proposatutako plazak. **EAEko Mapak** finkatutako estaldura **0,362koa** da.

52. taula. Plazak eta estaldurak babesgabetasun-egoeran dauden adin txikiko pertsonen esparruan 2023/12-2030. Egoitzak eta etxebizitzak

	Populazioa 0-17 Eustat 22/1/1	Plazen egoera 2023-12	Plaza baim. eta hitz. arteko aldea	Estaldura 2023/12	EJ Sortu beharrekoak 2024-2030	Lehent. Plazak
Adingabeentzako egoitzak (2.4.4)	**111.718**	**431**	**9**	**0,39**	**0**	**60**
Bidasoa	11.570	19	1	0,16		20
Buruntzaldea	12.165	53		0,44		
Debabarrena	8.865	16		0,18		15
Debagoiena	9.854	37		0,38		
Donostia	24.602	143	7	0,58		
Goierri	11.960	70	1	0,59		
Oarsoaldea	10.867	37		0,34		3
Tolosaldea	8.350	9		0,11		20
Urola Kosta	13.485	47		0,35		2

Iturria: Berez eratua

6.9.2 Eguneko zentroak

Ez dago estaldurari buruzko proiekziorik zentro mota honentzat EAEko Mapan.

Zerbitzuak emandako informazioa kontuan izanik, plazak **% 10** areagotzea aurreikusten da. Horrek, Lurraldean **3 plaza** sortzea dakar.

Lehentasunezko plazen proposamenari buruzko atal honi amaiera emateko, mendekotasunaren, bazterkeriaren eta desgaitasunaren esparruan arreta-sareak berriro diseinatzea ere proposatzen da, komunitateko arretaren ikuspegia kontuan izanik eta lehen eta bigarren arreten arteko lotura indartuz, bereziki, komunitatean. Baliabide berri horietako plazak lehentasunezkotzat joko dira Mapa egikaritu ahala.

7. ONDORIOAK

7.1 Plazen proposamena

Aurretiaz aipatu dugun eran, plazen inguruko proposamen bat egiteko garaian, proposamen hori baldintzatuko duten zenbait alderdi jorratu behar dira. Alderdi garrantzitsu bat erabilgarri dagoen aurrekontuarena da, baina ez da faktore erabakigarri bakarra. Funtsezkoa beste alderdi bat kudeaketarena da. Plazen egikaritzeari dagokion erritmoa kudeaketarekin dago lotuta, eta esperientziak erakutsi digunez, kudeaketan eragina duten eta aurreikusitako erritmoa moteltzea dakarten zenbait faktore daude, barnekoak zein kanpokoak. Kontrolez kanpoko dauden eta aurreikusitako plangintza moteltzen duten agertokiak dira. Administrazio-izapideez ari gara, esate baterako, udal-lizentziak, arauzko eskakizunak, egokitzapen-obretako atzerapenak, etab.

Dauden defizitak ebaluatu ondoren, eta azaldutako baldintzatzaileak aintzat hartu eta gero, **1.553 plazako** azken proposamena egin da. Horrek, batez beste, urtean **222** plaza suposatzen ditu.

53. taula. 2024-2030 epealdirako proposatutako plazak

		2.2. Eguneko Zentroak							2.3. GHZ	2.4. Egoitza Zentroak								Guztira
		2.2.1. Mendekotasuna E.Z.	2.2.1. Mendekotasuna E.Z. Asteburuak eta Jaiegunak	2.2.1. Mendekotasuna E.Z.	2.2.1. Gaixotasun Mentala E.Z.	2.2.1. Adingabeak E.Z.	2.2.2. Zentro Okupazionala	2.2.3. Gizarteratzea E.Z.	2.3.2. G.H.Z. Gizarteratzea	**2.4.1. Adinekoentzako egoitzak**	Egoitza Soziosanitarioak	2.4.2. Desgaituentzako egoitzak	2.4.3. Gaixotas. mentala egoitzak	2.4.4. Adingabeentzako egoitzak	2.4.5. (2) Gizarteratzea egoitzak	2.4.6. (1) B.H.Z. Emakume Biktimak	2.4.6. (2) E.E/L.Z Emakume Biktimak	**Guztira**
L.H.	Lur. Historikoa					3			20									**23**
Sektore	Ekialdea			30	13			5			40	46	39		25			**198**
	Mendebaldea			60	11			30				54	29		60		10	**254**
Eskualdea	Bidasoa													20				**20**
	Oarsoaldea													3				**3**
	Donostia																	**0**
	Buruntzaldea																	**0**
	Debabarrena													15				**15**
	Debagoiena																	**0**
	Goierri																	**0**
	Tolosaldea													20				**20**
	Urola Kosta													2				**2**
Eremua	Bidasoa	30	12				4			**119**								**165**
	Oarsoaldea	15	6				5			**120**								**146**
	Donostia	77	31				6			**80**								**194**
	Buruntzaldea	5	2				12			**124**								**143**
	Urola kostaldea	40	16				3			**110**								**169**
	Iraurgi	0					4			**39**								**43**
	Deba kosta	20	8							**43**								**71**
	Deba erdia	13	5							**0**								**18**
	Bergaraldea	0								**33**								**33**
	Leintz Ibarra	18	7							**0**								**25**
	Urola garaia	0					2			**39**								**41**
	Oria garaia	0								**0**								**0**
	Tolosaldea	17	7				4			**50**								**78**
Plazen Defizita		**235**	**94**	**90**	**24**	**3**	**40**	**35**	**6**	**757**	**40**	**100**	**68**	**60**	**85**	**0**	**10**	**1.553**

8. ESTALDURA ETA DEFIZITEN HELBURUEN KALKULUA KOKAPEN FISIKO JAKINIK BEHAR EZ DUTEN BESTE ZERBITZU ETA PRESTAZIO BATZUETAN ETA JARDUKETEN PROPOSAMENA

8.1 Bestelako zerbitzuak eta prestazioak. Mendekotasuna eta desgaitasuna

8.1 1 Balorazio zerbitzua

EAEko Mapak adierazten duenez, ezinbestekoa da mendekotasuna, desgaitasuna, bazterkeria eta babesgabetasuna balioetsi eta diagnosia egiteko zerbitzua indartzea.

Halaber, Mapak balorazioetan % 10eko igoera aurreikusten du, biztanleria orokorraren bilakaera demografikoa beherakorra izan arren, adin nagusikoen eta immigrazioaren garrantzia gero eta handiagoa baita; eta horrek zerbitzu horiek handitzea eta egokitzea eskatuko du.

EAEko Plan Estrategikoak pertsona helduen babesgabetasun-egoerak baloratzeko tresna bat diseinatu eta abiaraztea aurreikusten du.

2023an mendekotasun-balorazioak egin zaizkie 13.431 pertsonei; desgaitasunarena 8.372 pertsonei; RAI balorazioa egin zaie 3.893 pertsonei eta bazterkeriaren balorazioa 346 pertsonei.

Balorazio, Orientazio eta Kalifikazio Sekziotik egokitzat jotzen da **% 10eko** igoera egitea EAEko Mapan proposatutako balorazioetan.

8.1.2 Atsedenaldirako zerbitzua

8.1.2.1 Adin nagusiko pertsonentzako atsedenaldirako zerbitzua

EAEko Mapan, hedapenerako irizpide gisa, Gizarte Zerbitzuetako I. Plan Estrategikoaren ebaluazioaren ondotik, adin nagusiko pertsonentzako atsedenaldirako zerbitzuetako pertsona erabiltzaile kopurua **% 50ean** areagotzea aurreikusten da.

Zerbitzu hori bertan behera egon da pandemian zehar. Beraz, azken urteotako bilakaera ezin dugu kontuan hartu.

Saileko arreta-zerbitzuek plazen premiari buruz helarazitako aurreikuspena hartzen da abiapuntutzat.

2023ko abenduaren 31n adin nagusiko pertsonentzako aldi baterako egonaldiko **19 plaza** arrunt zeuden.

Zerbitzuaren pertsona erabiltzaile kopuruak modu esanguratsuan egin du behera pandemiaren ondoren: 2016an 773 pertsonek erabili zuten zerbitzu hori (548 emakumeak); eta 2023an 258 pertsonek (197 emakumeak).

EAEko Mapan 2030erako 668 pertsona artatzea aurreikusten da. Zerbitzu hori behar bezala artatzeko, **33 plaza** ituntzea aurreikusten da.

8.1.2.2 Pertsona desgaituentzako atsedenaldirako zerbitzua

EAEko Mapan, hedapenerako irizpide gisa, Gizarte Zerbitzuetako I. Plan Estrategikoaren ebaluazioaren ondotik, pertsona desgaituentzako atsedenaldirako zerbitzuetako pertsona erabiltzaile kopurua **% 15ean** areagotzea aurreikusten da.

Zerbitzu hori bertan behera egon da pandemian zehar. Beraz, azken urteotako bilakaera ezin dugu kontuan hartu.

Saileko arreta-zerbitzuek plazen premiari buruz helarazitako aurreikuspena hartzen da abiapuntutzat.

2023ko abenduan **42 plaza** zeuden zerbitzu hori eskaintzeko.

Zerbitzu horretan plaza kopurua zein pertsona erabiltzaileena areagotu egin dira. 2023an zehar 197 pertsona (84 emakumeak) artatu ziren, eta 2016an 27 pertsona (13 emakumeak).

EAEko Mapan 2030erako 285 pertsona artatzea aurreikusten da. Zerbitzu hori behar bezala artatzeko, **13 plaza** ituntzea aurreikusten da 2024-2030 epealdian.

8.1.2.3 Gaixotasun mentala duten pertsonentzako atsedenaldirako zerbitzua

EAEko Mapan, hedapenerako irizpide gisa, Gizarte Zerbitzuetako I. Plan Estrategikoaren ebaluazioaren ondotik, gaixotasun mentala duten pertsonentzako atsedenaldirako zerbitzuetako pertsona erabiltzaile kopurua % 15ean areagotzea aurreikusten da.

Saileko arreta-zerbitzuek plazen premiari buruz helarazitako aurreikuspena hartzen da abiapuntutzat.

2023ko abenduan **2 plaza** zeuden zerbitzu hori eskaintzeko. Zerbitzu hori behar bezala artatzeko, gaixotasun mentala duten pertsonentzako aldi baterako egonaldiko **5** plaza ituntzea aurreikusten da.

8.1.2.4 Bizitza independentea bultzatzeko zerbitzua

Gizarte Zerbitzuetako I. Plan Estrategikoaren ebaluazioak azpimarratzen du beharrezkoa dela desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentea eta autonomia- eta autodeterminazio-printzipioak orain arte baino intentsitate handiagoz bultzatzea, GZES sistema osoak partekatzen duen eredu batetik eta desgaitasunaren esparruko erakundeak egituratzen dituen sareekin.

Bizitza independentearen eredua bultzatzea desgaitasunaren esparruko sareen asmoa da, bereziki desgaitasun fisikoari begira; baina autonomiaz gizarteratzeko laguntzak, harreman erakoak edo bestelakoak, behar dituzten pertsona guztien premia da.

Sailean, alde batetik, bizitza independentea bultzatzeko zerbitzua ematen dugu, desgaitasun intelektualaren edota gaixotasun mentalaren ondorioz mugak dituzten pertsonentzat, "Bakarrik Programa" izenekoen bidez, non **61** pertsona artatzen baitira (29 emakumeak), eta baita Programa psikoedukatiboaren bidez, non **135** pertsona artatzen baitira. Bestalde, bizitza independenteko prestazio ekonomiko bat dago, desgaitasun fisikoa duten pertsonei zuzendua. Bertan **27** pertsona onuradun daude (12 emakumeak)".

EAEko Mapan 2030erako zerbitzu hori 372 pertsonei eskaintzea aurreikusten da. Zerbitzu hori behar bezala artatzeko, zerbitzua beste **149** pertsonei eskaintzea aurreikusten da 2024-2030 epealdian.

8.1.2.5 Arreta Goiztiarreko esku-hartze Sozialeko Zerbitzua

2023an zehar, beren garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten 0-6 urte bitarteko 1.636 haur (527 neskatoak) izan dira arreta goiztiarreko esku-hartze sozialeko zerbitzuaren erabiltzaile, arreta osasuna, hezkuntza eta gizarte arloa barne hartzen dituen diziplinarteko ikuspegi batetik jasoz.

EAEko Mapan 2030erako 2.031 pertsona artatzea aurreikusten da. Zerbitzu hori behar bezala artatzeko, 2030erako urtean zehar gaur egun baino **395** haur gehiago artatzea aurreikusten da.

8.1.2.6 Gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzeko neurriak

2023an 742 pertsonei eman zaizkie laguntzeko neurriak (% 46 emakumeak). EAEko Mapan 2030erako 831 pertsona artatzea aurreikusten da. Zerbitzu hori behar bezala artatzeko, zerbitzu hau beste **200** pertsonei eskaintzea aurreikusten da 2024-2030 epealdian.

8.1.2.7 Laguntza teknikoen zerbitzua

2023an 3.512 pertsonei eman zaizkie laguntza teknikoak (% 61 emakumeak). Guztira, 8.912 laguntza eman dira. EAEko Mapan 2030erako 2.878 pertsona artatzea aurreikusten

da. Zerbitzu hori behar bezala artatzeko, zerbitzu hau beste **400** pertsonei eskaintzea aurreikusten da 2024-2030 epealdian.

8.1.2.8 Bestelako zerbitzuak eta prestazioak. Gizarteratzea

8.1.2.8.1 Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua

Bere ezaugarriak direla medio, zaila da zerbitzua kuantifikatzea; izan ere, gertatzen diren gizarte-larrialdiko egoerei berehalako arreta ematen zaie.

Saileko arreta-zerbitzuek arreta-premiei dagokienez emandako aurreikuspena hartzen da abiapuntu gisa, non 2024-2030 epealdian artatutako pertsona kopuruak **% 15** gora egingo duela uste baita.

8.1.2.8.2 Gizarteratzeko laguntza zerbitzua

Gaur egun, Zerbitzuak prestazio hau eskaintzen du, 2.7.3 fitxan babes juridikotzat duena, bi modalitateren bidez. Bat historikoa, hain zuzen, laguntza espezializatuaren programa (LAES); eta duela urtebetetik hona, eskualde mailako laguntzarako foru zerbitzu berri bat dago (SEFAC) lurralde osoan estaldura ematen duena, eskualde mailako presentzia izanik. Bi zerbitzu oso garrantzitsu dira, eskari handia dutena; eta eskari horrek ez du behera egingo; aitzitik, kontrakoa gertatzea espero da, alojamendu-plazak liberatzeko izan dezakeen inpaktu positiboa kontuan izanik, zein plaza horien eskaerak gora egiten jarrai ez dezan.

Zerbitzu honen estaldura % 40 haztea espero da.

8.1.2.9 Bestelako zerbitzuak eta prestazioak. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak

8.1.2.9.1 Esku-hartze psikosozial eta soziojuridikoa

Saileko arreta-zerbitzuek arreta-premiei dagokienez emandako aurreikuspena hartzen da abiapuntu gisa, non 2024-2030 epealdian artatutako pertsona kopuruak **% 40** gora egingo duela uste baita.

8.1.2.10 Bestelako zerbitzuak eta prestazioak. Babesgabetasun-egoeran dauden adin txikikoak

8.1.2.10.1 Familia Harrera Espezializatuko Zerbitzua

EUSTAT erakundearen proiekzio demografikoen arabera 2030ean 18 urtetik beherako pertsona kopuruak modu adierazgarrian behera egingo duen arren, EAEko Mapan beharrezkotzat jotzen da familia-harrera bultzatzen jarraitzea eta arreta instituzioetatik ateratzeko pausoak ematen jarraitzea babesgabetasun-egoeran dauden adin txikikoen esparruan. Horregatik, zerbitzu honen estaldura % 10 haztea aurreikusten dute.

Defizita zenbatesteko, Saileko arreta-zerbitzuek arreta-premiei dagokienez emandako aurreikuspena hartzen dugu abiapuntu gisa, non 2024-2030 epealdian artatutako pertsona kopuruak **% 20** gora egingo duela uste baita.

8.1.2.10.2 Familiekin esku hartze psikoedukatibo eta psikosozialeko zerbitzua

Saileko arreta-zerbitzuek arreta-premiei dagokienez emandako aurreikuspena hartzen da abiapuntu gisa, non 2024-2030 epealdian artatutako pertsona kopuruak **% 20** gora egingo duela uste baita.

I. ERANSKINA: MEMORIA EKONOMIKOA

1.- Metodologiari buruzko oharrak.

Memoria Ekonomiko honek xedatzen ditu Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2024-2030 Mapak zehaztutako estaldura helburuak heinean-heinean ezartzeak sortzen dituen kostu ekonomikoen inguruko aurreikuspenak. Horretarako, maparen aplikazioak inbertsioaren eta gastu arrunten esparruan Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuan sortzen duen eragin ekonomikoa zehazten da memoria honetan.

Edonola ere, argitu beharra dago aipaturiko Departamentuko ekitaldi bakoitzeko aurrekontuaren erabilgarritasun erreala izango dela Mapa honen hedapena zehaztuko duena.

Memoria Ekonomikoa interpretatzeko orduan, metodologiari buruzko ohar hauek hartu behar dira kontuan:

- Mapak foru ardurapeko egoitza zentroetarako eta zentro komunitarioetarako proposatutako plaza berriak abian jartzeko gastuak aurreikusten ditu soilik; baita ekonomikoki kuantifikagarriak diren helburu operatiboak betetzeko gastuak ere: 2030. urtean egungo estaldura mantentzeko zerbitzu jakin batzuetan egin beharreko handitzeak eta foru sareko zentroak indarrean dagoen araudira egokitzeko gastuak. Beraz, Memoria Ekonomiko honetan aipatutako aurreikuspen guztiak egungo aurrekontu mailaren handitzeak dira, baina ez dira aurrekontuan eragina duten bestelako esku hartze eta estrategiek sorrarazitako handitzeak kontuan hartzen, hain zuzen ere mapa honekin zerikusirik ez dutenak.

- Gastu arrunten zenbatekoa eta beharrezko inbertsio gastuen zenbatekoa zehazten ditu memoriak.

- Gastu arrunten barne daude plaza berriak mantendu eta exekutatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak —ordainketak, ondasun eta zerbitzuak, transferentzia arruntak—. Inbertsio gastuen barne daude sistema ezartzeko beharrezkoak diren

zentroetan edo ekipamenduetan benetako inbertsioa eta kapital transferentziak egiteko gastu guztiak.

- Zerbitzu ezberdinen kostu osoa honela zehazten da: 2024-2030 eperako aurreikusitako plaza berri kopuru osoa eta zerbitzu bakoitzaren batez besteko unitate kostua. Bi kopuru horiek kalkulatzeko, kontzeptu hauek hartu dira oinarritzat: gaur egun Gipuzkoa mailan plaza bakoitzerako eta inbertsio edo zerbitzu mota bakoitzerako aplikatutako moduluak eta urteko batez besteko kostuak.

- Egungo kostu horiek hartu dira kontuan etorkizuneko aurrekontu ekitaldietako gastuak kalkulatzeko, baina ez da aurreikusi ituntze irizpideetan, lan hitzarmenetan eta abarretan egon daitezkeen aldaketek sor dezaketen eragina.

- 2024-2030 epe osorako zerbitzu eta prestazio ezberdinen kostua zehazten da, eta maparen exekuzio epeen edo erritmoen inguruko aurreikuspenak ere jasotzen dira agiri honetan. Era berean, 2030 ekitaldian Mapak proposatutako plazen mailakatutako irekierak 2031 ekitaldian izango duen aurreikusitako gastuaren eragin ekonomikoa barneratzen da.

- Aurrekontu handitzerako aurreikusitako gehienezko zenbatekoari egiten dio erreferentzia kalkulatutako gastuak. Halaber, ez dira kontuan hartu lurralde eremu batzuetan plaza gehiegi egoteagatik egon daitezkeen konpentsazioak.

- Eskainitako plazen eta artatutako pertsonen gehikuntzagatik beste zenbait erakundeetatik jaso daitekeen finantzaketa posiblearen kalkulua egin da.

- Azkenik, gizarte zerbitzuek beren inguruneko garapen ekonomikoan eragin positiboa izateko duten gaitasunari dagokionez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ekoizpenean, errentan, enpleguan eta zergetan aurreikusitako gastuaren eragin ekonomikoaren zenbatespena egin da. Horretarako, EHUk 2009. urtean egindako "*Gipuzkoako Foru Aldundiaren gizarte politikaren gastuaren eragin ekonomikoa*" azterlanean zehaztutako oinarrizko adierazleak edo eragin biderkatzaileak erabili

dira. Kontuan hartu behar da adierazle horietako batzuek ez dituztela kontuan hartzen zerga tasa berriak. Beraz, zenbatespen horiek gutxienekotzat jo behar dira.

2.- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2024-2030 Maparen aplikazioa dela eta sortzen den aurrekontu handitzearen zenbatespena.

2.1.- Aurrekontu handitzearen zenbatekoa, guztira.

2024-2030 epean Gizarte Zerbitzuen Mapa aplikatzearen ondorioz sortzen den zenbateko metatua **241.854.269 euro** da guztira. Zenbateko horren % 74 gastu arruntak dira, eta % 26 inbertsio gastuak dira.

1.taula. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2024-2030 Maparen zenbateko osoaren banaketa

Jarduketak	Gastu arrunta	%
Zentroetako plaza berriak	149.912.018	61,98%
Beste zerbitzuetako plaza berriak	29.849.669	12,34%
Gastu arruntak, guztira	**179.761.686**	**74,33%**
Jarduketak	**Inbertsioa**	**%**
Zentroetako plaza berriak eta zentroen egokitzapena araudi berrira: Obrak eta kapital inbertsioak	62.092.583	25,67%
Inbertsioa, guztira	**62.092.583**	**25,67%**
Guztira	**241.854.269**	**100,00%**

2.2.- Aurrekontu handitze osoaren banaketa aurrekontu ekitalditan.

Aurrekontu handitzea aurrekontu ekitaldietan nola banatzen den kalkulatzeko orduan, esku hartze ezberdinetarako aurreikusitako exekuzio epe eta erritmoen inguruko egungo aurreikuspenak, bestelako zerbitzuen aurreikuspenak eta zerbitzuen onuradunen areagotzearen aurreikupen eta metatuak kontutan hartu dira. Plaza berrien exekuzio erritmoa eta inbertsio osoaren banaketa kalkulatzeko orduan, 2024ko aurrekontuaren exekuzioari buruzko aurreikuspenak hartu dira kontuan, eta 2025eko, 2026ko, 2027ko, 2028ko, 2029ko eta 2030eko ekitaldietan banatu da gainerako kostua. Era berean kontutan izan da 2031 ekitaldiko aurreikusitako eragin ekonomikoa. Egikaritze-erritmo hori gutxi gorabeherakoa da, eta, neurri handi batean, ekitaldi bakoitzerako onartutako aurrekontuaren araberakoa izango da.

Horren guztiaren arabera, mapak proposatutako esku hartzeek Gizarte Politikako Departamentuaren aurrekontuan izango duten eragina hau dela zenbatetsi da:

2.taula. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan aurreikusitako gastuaren handitze osoaren banaketa, ekitalditan

2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Guztira 2024-2030
Gastua	Gastua	Gastua	Gastua	Gastua	Gastua	Gastua	Gastua
5.877.074	18.333.549	26.482.416	34.878.409	43.228.042	52.142.442	60.912.338	**241.854.269**

*(*) Kontutan hartu behar da 2030 ekitaldian zehar Mapak proposatutako plaza berrien mailakatutako irekierak aurrez ikusitako gastu arrunten **2.920.504** euroko gehikuntza sortuko duela **2031 ekitaldian**.*

2.3.- Jarduera bakoitzari dagokion gastu handitzea.

Zerbitzuen izaera kontuan hartuta, aurreikusitako metatutako zenbateko osoaren banaketa hau da:

2.3.1.- Mapak egoitza zentroetarako eta zentro komunitarioetarako proposatutako plaza berriak direla eta sortzen den gastuaren handitzea.

Gizarte zerbitzuen zentro motei dagokienez, egoitza eta ostatu zerbitzuak dira gastu gehien sortzen dutenak, hain zuzen ere aurreikusitako zenbatekoaren % 82 osatzen

baitute. Eguneko arreta zerbitzu eta zentroek, berriz, aurreikusitako gastuen % 18 osatzen dute.

3.taula. Mapak egoitza zentroetarako eta zentro komunitarioetarako proposatutako plaza berriak direla eta sortzen den gastu arrunten handitzea

ZENTROAK	Mapak proposatutako plazak	Gastu arruntaren handitzea	%
2.2. Eguneko zentroak	**427**	**26.323.383**	**17,56%**
2.2.1. Autonomia mugatuko pertsonentzat eguneko zentroak:			
2.2.1.(1) Adineko pertsonentzako E.Z.	235	14.771.909	9,85%
2.2.1.(2) Desgaitasuna duten pertsonentzako E.Z.	90	6.735.358	4,49%
2.2.1.(3) Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako E.Z.	24	1.296.204	0,86%
2.2.1.(4) Babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako E.Z.	3	490.714	0,33%
2.2.2. Zentro okupazionalak	40	1.164.698	0,78%
2.2.3. Gizarteratzeko E.Z.	35	1.864.500	1,24%
2.3. Gaueko harrera zentroak	**6**	**835.671**	**0,56%**
2.3.2. Gizarteratzeko gaueko harrera zentroak	6	835.671	0,56%
2.4. Egoitza zentroak	**1.120**	**122.752.963**	**81,88%**
2.4.1. Adineko pertsonentzako egoitzak	757	58.018.136	38,70%
Egoitza zentro sozio sanitarioak	40	6.713.545	4,48%
2.4.2. Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak	100	15.417.045	10,28%
2.4.3. Buruko gaixotasuna duten pertsonentzat egoitza zentroak	68	9.750.793	6,50%
2.4.4. Babesgabetasun egoeran dauden adingabeenztako egoitza zentroak	60	20.043.468	13,37%
2.4.5. Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroak	85	11.103.152	7,41%
2.4.6. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako egoitza zentroak			
2.4.6.(2) Berehalako harrera zerbitzuak	10	1.706.824	1,14%
Plaza berrien kostua, guztira	**1.553**	**149.912.018**	**100,00%**

4. taula. Mapak egoitza zentroetarako eta zentro komunitarioetarako proposatutako plaza berriak direla eta sortzen den gastu arrunten handitze metatuaren banaketa, sektoreka

Kontingentzia	Gastu arrunta	%
Mendekotasuna	79.503.590	53,03%
Desgaitasuna	34.364.099	22,92%
Babesgabetasun egoeran dauden adingabekoak	20.534.182	13,70%
Gizarte bazterketa eta indarkeria matxistaren emakume biktimak	15.510.147	10,35%
Guztira	**149.912.018**	**100,00%**

5.taula. Mapak egoitza zentroetarako eta zentro komunitarioetarako proposatutako plaza berriak direla eta sortzen den gastu arrunten handitze metatuaren eta inbertsioaren banaketa, ekitaldika

2024		2025		2026		2027	
Gastu arrunta	Inbertsioa	Gastu arrunta	Inbertsioa	Gastu arrunta	Inbertsioa	Gastu arrunta	Inbertsioa
1.506.564	3.196.721	6.551.990	9.744.021	13.480.339	9.889.021	20.799.713	9.872.915
4.703.285		**16.296.011**		**23.369.360**		**30.672.628**	

2028		2029		2030	
Gastu arrunta	Inbertsioa	Gastu arrunta	Inbertsioa	Gastu arrunta	Inbertsioa
28.161.470	9.750.441	35.802.476	9.895.441	43.609.466	9.744.021
37.911.912		**45.697.918**		**53.353.487**	

*(*) Kontutan hartu behar da 2030 ekitaldian zehar Mapak proposatutako plaza berrien mailakatutako irekierak aurrez ikusitako gastu arrunten **2.920.504** euroko gehikuntza sortuko duela **2031 ekitaldian**.*

2.3.2.- Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen Zerbitzu Katalogoan barne dauden bestelako foru zerbitzuetan areagotzeak direla eta sortzen den gastua.

6. taula. Foru eskaintzaren bestelako zerbitzuen areagotzeak direla eta sortzen diren gastu metatuak

Beste zerbitzuetako plaza berriak eta hobekuntzak	Kopurua	Gastu arrunta
Mendekotasuna duten pertsonen atsedenaldirako plazak areagotzea	33	2.729.464
Desgaitasuna duten pertsonentzako atsedenaldirako plazak areagotzea	13	1.961.335
Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako atsedenaldirako plazak areagotzea	5	805.989
Bizitza independentea bultzatzeko zerbitzua areagotzea	149	3.968.914
Arreta goiztiarra zabaltzea	395	2.392.473
Tutoretza zerbitzua zabaltzea	200	1.777.547
Laguntza teknikoen zerbitzua zabaltzea	400	603.072
Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua zabaltzea	66	5.904.488
Gizarterako laguntza zerbitzua zabaltzea	146	2.209.374
Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako arreta psikosozialeko eta soziojuridikoko zerbitzua zabaltzea	149	812.360
Familia harrera zerbitzua	92	2.570.464
Familiekin esku hartze psikoedukatibo eta psikosozialeko zerbitzua	303	4.114.189
Plaza berrien eta hobekuntzen kostua, guztira	**1.951**	**29.849.669**

7.taula. Foru eskaintzaren bestelako zerbitzuen areagotzeak direla eta sortzen diren metatutako gastu arrunten banaketa, sektoreka

Kontingentzia	Gastu arrunta	%
Mendekotasuna	3.332.536	11,16%
Desgaitasuna	10.906.258	36,54%
Babesgabetasun egoeran dauden adingabekoak eta gizarte larrialdia	6.684.653	22,39%
Gizarte bazterketa eta indarkeria matxistaren emakume biktimak	8.926.221	29,90%
Guztira	**29.849.669**	**100,00%**

8. taula. Foru eskaintzaren bestelako zerbitzuen areagotzeak direla eta sortzen den metatutako gastu arrunten banaketa, ekitaldika

2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Guztira
Gastu arrunta	Gastu arrunta	Gastu arrunta	Gastu arrunta	Gastu arrunta	Gastu arrunta	Gastu arrunta	Gastu arrunta
1.173.789	2.037.538	3.113.055	4.205.782	5.316.130	6.444.525	7.558.850	**29.849.669**

3.- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2024-2030 Mapak ekoizpenean, errentan, enpleguan eta zergetan izango duen eragin ekonomikoaren zenbatespena.

9. taula. Mapan aurreikusitako gastuaren eragin ekonomikoa

Aurreikuspenak	Zenbatespena	Adierazlea
Handitzearen zenbatekoa ekoizpenean	**483.708.539 €**	2€ /zenbatetsitako gastuaren euro bakoitzeko
Handitzearen zenbatekoa errentan	**246.691.355 €**	1,02 €/zenbatetsitako gastuaren euro bakoitzeko
Lanpostu berri kopurua	**6.046**	25 lanpostu / zenbatetsitako gastuaren 1.000.000 euroko
Handitzearen zenbatekoa diru-bilketan	**106.415.878 €**	Zenbatetsitako gastuaren %44 Zergak eta gizarte kotizazioak barne
Handitzearen zenbatekoa GFAren zerga bidezko diru-bilketan	**63.849.527 €**	Diru-sarreren areagotzearen %60

4.- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2024-2030 Mapa ezartzearekin zerikusia duten diru sarrera ekonomikoen zenbatespena.

4.1.Arreta soziosanitarioagatiko diru sarrera metatuak areagotzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak lankidetza hitzarmen bat dute sinatuta mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako unitate soziosanitarioetan, buruko gaixotasun larriak dituzten pertsonentzako egoitza unitateetan eta buruko gaixotasuna duten pertsonen arretarako birgaitze psikosozialerako eguneko zentroetan osasun asistentzia emateko finantzaketan parte hartzeko. Indarrean dauden modulu ekonomiko hitzartuen arabera, Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako Foru Aldundiari zenbateko hauek esleitzea dago aurreikusita:

Adineko pertsonak: Egoitza unitate soziosanitarioak

	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Guztira
Plaza kopuruaren hazkundea	4	6	6	6	6	6	6	**40**
Zenbatekoa	73.065	182.663	365.326	730.653	1.461.305	2.922.611	5.845.222	**11.580.845**

Buruko gaixotasuna duten pertsonak: Buru nahasmendu larria duten pertsonentzako egoitza unitateak eta errehabilitazio psikosozialerako eguneko zentroak

	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Guztira
Plaza kopuruaren hazkundea	5	14	14	15	15	15	14	**92**
Zenbatekoa	40.259	295.987	591.975	1.202.215	2.404.431	4.808.862	9.599.457	**18.943.185**

	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Guztira
Guztira EUS, NMLEU, EPZ	113.324	478.650	957.301	1.932.868	3.865.736	7.731.472	15.444.678	**30.524.030**

4.2. Mendekotasunaren arretagatiko diru sarrera metatuak areagotzea.

39/2006 Legeak, abenduaren 14koak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, xedatutakoaren esparruan eta aurreko urteetako parametroak jarraituz, aurreikuspenen arabera, Estatuak zenbateko hauek esleituko dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari:

	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Guztira
Onuradun kopuruaren hazkundea	438	460	470	480	490	520	530	**3.388**
Zenbatekoa	204.713	419.709	639.379	863.722	1.092.739	1.335.778	1.583.490	**6.139.531**

4.3. Babesgabetasun egoeran dauden adingabekoen arretagatiko diru sarrerak.

Estatuak Gipuzkoako Foru Aldundiari aldizka esleitzen diren zuzeneko dirulaguntza bidez zenbateko hauek esleituko dizkiola aurreikusten da, inoren kargura ez dauden eta harreran hartutako adingabe atzerritarrei arreta emateagatik:

	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Guztira
Zenbatekoa	200.000	200.000	200.000	200.000	200.000	200.000	200.000	**1.400.000**

4.4. Diru sarreren aurreikuspen osoa.

	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Guztira
Osasun Sailaren autonomia erkidego mailako finantzaketa, adineko pertsonei eta buruko gaixotasuna duten pertsonei arreta soziosanitarioa emateko	113.324	478.650	957.301	1.932.868	3.865.736	7.731.472	15.444.678	**30.524.030**
Estatuaren finantzaketa, mendekotasunari arreta emateko	204.713	419.709	639.379	863.722	1.092.739	1.335.778	1.583.490	**6.139.531**
Estatuaren finantzaketa, bakarrik dauden atzerritar adingabekoei arreta emateko	200.000	200.000	200.000	200.000	200.000	200.000	200.000	**1.400.000**
Guztira	**518.037**	**1.098.360**	**1.796.680**	**2.996.590**	**5.158.475**	**9.267.250**	**17.228.169**	**38.063.561**

5.- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa 2024-2030 eragindako gastu publikoa

5.1. Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa

15/2015 Foru Dekretuz arautzen da mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa, eta 3.1 artikuluan jasotakoa betetzeko, urtero onartzen dira erabiltzaileek egin beharreko ekarpen ekonomikoen gehieneko zenbatekoak.

2023ko datu ekonomikoetan oinarrituta zentro mota bakoitzaren finantzaketa honela banatzen da:

ZENTROAK	GFA (%)	Erabiltzaileak (%)	Erabiltzaileak (€)
2.2. Eguneko zentroak			**3.685.457**
2.2.1. Autonomia mugatuko pertsonentzat eguneko zentroak:			
2.2.1.(1) Adineko pertsonentzako E.Z.	77,4%	22,6%	3.338.451
2.2.1.(2) Desgaitasuna duten pertsonentzako E.Z.	97,6%	2,4%	161.649
2.2.1.(3) Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako E.Z.	85,7%	14,3%	185.357
2.4. Egoitza zentroak			**26.625.503**
2.4.1. Adineko pertsonentzako egoitzak	58,3%	41,7%	24.193.563
Egoitza zentro sozio sanitarioak	88,4%	11,6%	778.771
2.4.2. Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak	94,4%	5,6%	863.355
2.4.3. Buruko gaixotasuna duten pertsonentzat egoitza zentroak	91,9%	8,1%	789.814
Erabiltzaileen ekarpena			**30.310.960**

ATSEDENALDIRAKO PLAZAK	GFA (%)	Erabiltzaileak (%)	Erabiltzaileak (€)
Mendekotasuna duten pertsonen atsedenaldirako plazak areagotzea	58,3%	41,7%	1.138.187
Desgaitasuna duten pertsonentzako atsedenaldirako plazak areagotzea	94,4%	5,6%	109.835
Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako atsedenaldirako plazak areagotzea	91,9%	8,1%	65.285
Erabiltzaileen ekarpena			**1.313.306**

Beraz, erabiltzaileen guztizko ekarpena 31.624.266 eurokoa izango dela aurreikusten da.

5.2. Europako funtsak

Mapa honetan barneratutako hainbat plaza berri BEEP Europako Funtsekin finantziatzea aurreikusita dago.

Funts hauekin finantziatuko den inbertsio zatia 12.206.768,83 eurokoa izango dela aurreikusten da.

5.3. Gastu publikoagan mapa ezartzeak izango duen eragin ekonomiko garbia

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa 2024-2030 hedatzeak eragingo duen gehieneko gastua 241,9 milioitakoa izango dela aurreikusten den arren, horietatik 31,6 milioi erabiltzaileen ekarpenekin ordainduko da, eta beraz, 210,3 milioi izango da GFA-rentzat aurreikusitako gastu publikoa.

Bestalde, zerbitzu guzti hauek eskaintzeagatik, GFAko Zainketa eta Gizarte Politiketako departamentuan iturri ezberdinetatik 38,1 milioitako transferentzia arruntak jasoko direla aurreikusten da.

Mapan aurreikusitako plaza berriak sortzeko eta araudi berrietara egokitzeko memoria ekonomiko honetan hainbat inbertsio gastu aurreikusi da. Inbertsio horiek kofinantziatzeko BEEP Europako funtsetik 12,2 milioitako inbertsio transferentziak aurreikusten dira.

Azkenik, zerga bilketan, zerbitzu gehigarri hauek hedatzearen ondorioz, Gipuzkoako Finantza eta Ogasuneko departamentuak 63,8 milioi jasoko dituela aurreikusten da.

Ondorioz, zerbitzu gehigarri hauen hedapenari aurre egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak 2024-2030 epealdian beregain hartu beharreko gastu garbia 96,1 milioitakoa izango dela aurreikusten da.

Gehieneko gastu osoa	**241.854.269**
Erabiltzaileen ekarpena	**-31.624.266**
Transferentzia arruntengatik diru-sarrerak	**-38.063.561**
Zerga-bilketa	**-63.849.527**
BEEP Europako funtsak	**-12.206.769**
Gastu publiko garbia	**96.110.146**

II. ERANSKINA: MAPAREN EBALUAZIOA ETA BETETZEN DEN IKUSTEKO JARRAIPENA EGITEA

1. taula- Maparen adierazleak

Helburu orokorrak		Helburu operatiboak	Adierazlea	2023-12		2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Xedea
1.- Estalduraren unibertsalizaziorantz aurrera egitea 2030. Urterako	1.1	Herritarrei arreta emateko egungo estalduraren % handitzea 2030. Urtean	arretaren estaldura osoaren %	4,33									4,6
			arretaren estaldura osoaren % /emakumeak	4,93									5,2
	1.2	Mendekotasun egoeran dauden biztanleen egungo estalduraren % mantentzea 2030. Urtean	1.mailako mendekotasuna duten pertsona artatuen %, balioetsitako 1.mailako pertsona guztiak oinarritzat hartuta / emakumeak	67,3 / 66,4									70
			2.mailako mendekotasuna duten pertsona artatuen %, balioetsitako 2.mailako pertsona guztiak oinarritzat hartuta / emakumeak	85,6 / 86,4									88
			3.mailako mendekotasuna duten pertsona artatuen %, balioetsitako 3.mailako pertsona guztiak oinarritzat hartuta / emakumeak	93,1 / 93,8									95
	1.3	Mendekotasun handiagoa duten biztanleen egungo estalduraren % mantentzea 2023. Urtean	3.mailako mendekotasuna duten adinekoen artatuen %, 3.mailako pertsona guztiak oinarritzat hartuta / emakumeak	93,6 / 94,4									95
	1.4	Baliabideen eskaintza areagotzea, ezarritako estaldura helburuen arabera	Sortutako plaza berrien kopurua, guztira										1.553
			Adinekoentzako E.Z.en plaza berrien kopurua										235
			Adinekoentzako E.Z.en plaza berrien kopurua. Asteb.										94
			Desgaitasuna. E.Z.etako plaza berrien kopurua										90
			Osasun mentaleko E.Z.etako plaza berrien kopurua										24
			Adingabeen E.Z.etako plaza berrien kopurua										3
			Plaza berrien kopurua tailer okupazionaletan										40
			Gizarteratzeko E. Z.etako plaza berrien kopurua										35
			Plaza berrien kopurua G.H.Z.										6
			Plaza berrien kopurua adinekoen egoitzetan										757
			Plaza berrien kopurua SOCSAN										40
			Plaza berrien kopurua desgaituen egoitza/etxeb.										100
			Plaza berrien kopurua osasun mentalerako egoitza/etxeb.										68
			Plaza berrien kopurua adingabeen egoitza/etxeb.										60
			Plaza berrien kopurua gizarteratzeko egoitza/etxeb.										85
			Plaza berrien kopurua emakumeen egoitza/etxeb.										10

Helburu orokorrak		Helburu operatiboak	Adierazlea	2023-12	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Xedea
1.- Estalduraren unibertsalizaziorantz aurrera egitea 2030. Urterako	**1.5**	Itxaron zerrendak murriztea (*)	Itxaron zerrenda adinekoentzako egoitzetan	392								**300**
			Itxaron zerrenda adinekoentzako eguneko zentroetan	209								**150**
			Itxaron zerrenda desgaituentzako egoitzetan	10								**20**
			Itxaron zerrenda osasun mentalerako egoitzetan	18								**25**
			Itxaron zerrenda gizarteratzeko egoitzetan	157								**120**
	1.6	LPPEaren bidez asistentzia pertsonala areagotzea	LPPE onuradunen %, FIZPE eta LPPEa jasotzen duten pertsona kopuruen artean	42,6								**45**
			LPPE onuradunen %, FIZPE eta LPPEa jasotzen duten pertsona kopuruen artean / emakumeak	49,9								**50**

(*) Itxarote zerrendaren adierazlea, itxarote zerrendari, itxarote zerrenda teknikoa kendu ondoren lortzen da, hau da, hitzartutako plazen %10a kenduta.

Helburu orokorrak		Helburu operatiboak	Adierazlea	2023-12	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Xedea
2.- Gipuzkoako gizarte baliabideen sare publikoaren eskaintza gizarte premien bilakaerara egokitzea eta lurralde oreka lortzea	2.1	Adinekoentzako baliabideen eskaintzan lurraldeen arteko desorekak murriztea, eremu bakoitzean Gipuzkoako batez besteko estaldurara iritsiz 80 urtetik gorako pertsonentzako egoitza zentroetako eta eguneko zentroetako plazetan	Eremuaren araberako estalduraren %, 80 urtetik gorako adinekoentzako egoitza zentroetako eta eguneko zentroetako plazetan	Bergaraldea 12,3								13
				Bidasoaldea 10,1								13
				Buruntzaldea 11,7								13
				Deba Erdia 13,1								13
				Deba Kosta 9,5								13
				Donostia 12,7								13
				Iraurgi 14,1								13
				Leintz Ibarra 14,2								13
				Oarsoaldea 11,6								13
				Oria Garaia 12,7								13
				Tolosaldea 11,1								13
				Urola Garaia 10,8								13
				Urola Kosta 13,8								
				Gipuzkoa 12,2								13
	2.2	Adineko pertsonentzako egoitzen eraginkortasuna optimizatzea	Adineko pertsonentzako egoitzetan artatutako 0 eta 1 mailako mendekotasuna duten pertsonen %, artatutako pertsona guztiak oinarritzat hartuta / emak.	14,1 / 10,0								12 / 9
	2.3	Zentroetako okupazioa maximizatzea	Adinekoen E.Z. okupazioa %	92								96
			Desgaituen E.Z. okupazioa %	93,9								96
			Osasun mentaleko E.Z. okupazioa %	91,2								94
			Gizarteratzeko E.Z. okupazioa %	85,1								90
			Adinekoen egoitza okupazioa %	97								98
			Desgaituen egoitza/etxeb. okupazioa %	96,7								98
			Osasun mentalerako egoitza/etxeb. okupazioa %	91,3								93
			Adingabeen egoitza/etxeb. okupazioa %	98,6								99
			Gizarteratzeko egoitza/etxeb. okupazioa %	93,4								94
			Emakume bikt. egoitza/etxeb. okupazioa %	93,3								95
	2.4	Erantzukizun publikoaren maila handia mantentzea	Plaza propioen edo itunduen %, adinekoentzako zentroetan baimendutako plaza kopuru osoa oinarritzat hartuta	Egoitzak: 87,9								86
				Eguneko z: 84,4								87

Helburu orokorrak		Helburu operatiboak	Adierazlea	2023-12		2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Xedea
3.- Zerbitzuen eta prestazioen eskaintzaren kalitatea hobetzea, pertsonen premien araberako arreta egokia, ahalik eta hurbilekoa bermatzeko	**3.1**	Itxarote zerrendan dauden pertsonen batez besteko denbora murriztea	Urtean zehar zentroetan sartu diren pertsonen batez besteko denbora egunak. Kanpoan geratzen dira itxaron zerrendan 2 urte baino gehiago daramatenak										
			Adinekoentzako egoitzak	124									**163**
			Adinekoentzako E.Z.	54									**54**
			Desgaituentzako egoitza /etxeb.	202									**180**
			Desgaituentzako E.Z.	154									**140**
			Osasun mentalerako egoitza/etxeb.	146									**140**
			Osasun mentalerako E.Z.	35									**40**
			Baliabide guztien batezbestekoa	102									**120**
			3. graduko MBB duten pertsonak	109									**120**
			2. graduko MBB duten pertsonak	100									**125**
	3.2	Jatorrizko lurralde eremuetan artatutako pertsonen proportzioa areagotzea	Jatorrizko esparruetan artatutako pertsonen %										
			guztira / emakumeak	78,14 / 81,01									**78**
			Adinekoentzako egoitzak / emakumeak	80,85 / 81,95									**82**
	3.3	Arreta premiak dituzten adinekoak etxean geratzen laguntzea	Beren etxean bizi diren ≥ 65 urteko artatutako pertsonen %a, zerbitzu guztietan artatutako adineko duten pertsona guztiekiko / emakumeekiko	75,05 / 74,58									**77**
	3.4	Arreta premiak dituzten pertsona desgaituei etxean geratzen laguntzea	Beren etxean bizi diren eta desgaitasuna duten artatutako pertsonen %, zerbitzu guztietan artatutako pertsona desgaitu guztiak oinarritzat hartuta / emakumeak	79,67 / 80,95									**80**
	3.5	Desgaitasuna duten pertsonentzako arreta urteko egun guztietara zabaltzea	365 eguneko arreta duten zentroen kopurua	91,6									**100**
	3.6	Irizpide orokor gisa ezartzea bertako adingabekoen harrera familia bidez egitea	Familia harreran dauden 0-7 urte bitarteko adingabeen % / neskak	84,6 / 92,4									**100**
			Familia harrera dauden adingabeen %, harrera dauden adingabe guztiak oinarritzat hartuta / neskak	49,7 / 59,6									**60**
	3.7	Gizarte eta hezkuntza esparruko esku hartze zein esku hartze psikosozialeko zerbitzuak sustatzea	Esku hartze programen erabiltzaileak eta babesik gabe daudenak / neskak	899 /418									**1.000**

Helburu orokorrak		Helburu operatiboak	Adierazlea	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Xedea
4.- Proposatutako helburu eta neurrien ondorengo jarraipena, ebaluazioa eta kontrol publikoa ahalbidetzea	**4.1**	Urteko ebaluazio-txostena egitea	Txostena egina								**Bai**
	4.2	Urteko ebaluazio-txostena zabaltzea	Txostena egina								**Bai**
	4.3	Amaierako ebaluazio-txostena egitea	Txostena egina								**Bai**
	4.4	Urteko ebaluazio-txostena zabaltzea	Txostena egina								**Bai**
	4.5	Maparen helburuak jarraipen- eta ebaluazio-planean ateratako ondorioetara egokitzea	Helburuen egokitzapena gauzatua								**Bai**

1. taula - EAEko Plan Estrategikoarekin zerikusia duten adierazleak

Ardatza	Helburu estrategikoa	Ekintzak	Adierazlea	2023-12	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Xedea
1.- Autonomia	1.1.- Erkidegoan bigarren mailako arreta indartzea kontingentzia guztietarako	Bigarren mailako arreta-eredua garatzea	altaren batezbesteko adina adinekoen egoitzetan	85,1			85,6					86,1
			altaren batezbesteko emakumeen adina adinekoen egoitzetan	86,9			86,9					87,4
		Euskadin berrikuntza eta iraupen luzeko zainketetarako proiektuak bultzatzea	Adinberri abian jartzea									Bai
	1.2.- Desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentearen eredua eta bizi-kalitatea sustatzea	Bizimodu independentearen eredua diseinatu eta bultzatzea, bizitzan zehar, beste sistema batzuekin batera babes-sarea bultzatzea	Bizimodu independentea babesteko zerbitzuak dituzten pertsonak	7.919			8.800					10.000
			Bizimodu independentea babesteko zerbitzuak dituzten emakumeak	5.102			5.630					6.400
	1.3.- Adinekoentzako egoitza-zentroak egokitzea	Egoitza-zentroak egokitzea (bereziki, adinekoentzat) eta bizikidetza-aukera kolektibo berritzaileak bultzatzea	Eredu berrira egokitutako zentroen %a	5			20					50
			< 125 plazak/guztira dituzten adinekoen egoitza kopurua	86			87					90
			Eredu berrira egokitutako tamaina duten ZIUen kopurua									
2.- Integrazioa	2.1.- Bazterketa-sarea indartzea	Bazterketa-sarearen deskontzentrazioa	Donostiatik kanpoko plazen % guztizkoarekiko	58			64					70
3.- Oreka	3.1.- Lidergo publikotik abiatuta zaintzen gizarte-antolaketa bultzatzea, eta erakunde-zaintzen pisua gehitzea	Gizarte Zerbitzuen Mapa zabaltzea	Plaza berrien sortutako kopuru guztira									1.508
			Plaza berrien kopurua adinekoen E.Z.									150
			Plaza berrien kopurua adinekoen E.Z. astebur.									60
			Plaza berrien kopurua desgaitasunaren E.Z.									60
			Plaza berrien kopurua osasun mentaleko E.Z.									12
			Plaza berrien kopurua adingabeen E.Z.									3
			Plaza berrien kopurua tailer okupazional.									40
			Plaza berrien kopurua gizarteratzeko E.Z.									32
			Plaza berrien kopurua G.H.Z.									20
			Plaza berrien kopurua adinekoen egoitzetan									786
			Plaza berrien kopurua SOCSAN									40
			Plaza berrien kopurua desgaituen egoitza/etxeb.									100
			Plaza berrien kop. osasun ment. egoitza/etxeb.									50
			Plaza berrien kop. adingabeen egoitza/etxeb.									60
			Plaza berrien kop. gizarteratzeko egoitza/etxeb.									85
			Plaza berrien kop. emakumeen egoitza/etxeb.									10
		Erakunde-zaintzaren bilakaera jarraitzea, zaintza guztien gainean	Adinekoen etxeko egonaldi tasa/ emakumeak	75,1/74,6			80					85
			Desgaituen etxeko egonaldi tasa / emakumeak	79,7/80,9			83					87
	3.2.- Familia-zaintza aukera bat izan dadin baldintzak sustatzea	Familia zaintzaileei laguntzeko estrategia soziosanitarioa zabaltzea	Zaintzen tokiko ekosistemen kopurua	14								30
			Egoitza unitate soziosanitarioko plaza kopurua	148								188

Ardatza	Helburu estrategikoa	Ekintzak	Adierazlea	2023-12	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Xedea
4.- Artikulazioa	4.1.- GZESaren kudeaketa integratu eta kolegiatuan aurrera egitea	Gizarte-berrikuntzako ekosistemen ekimena diseinatu eta abian jartzea	Diruz lagundutako berrikuntza-proiektuen kopurua	20			50					**100**
			Abian jarritako berrikuntza-proiektuen kopurua									**15**
			Egindako hedapen-jardunaldien kopurua	3			11					**27**
			Beste administrazio publikoekin egindako lankidetza kopurua				5					**5**
			EHUrekin egindako lankidetza kopurua				2					**2**
		Ebidentzian, ebaluazioaren kulturan eta kalitatearen ebaluazioan oinarritutako politiken kudeaketa sustatzea	Zerbitzuaren kalitateari buruzko galdetegien kopurua									
			Zentroak egokitu osteko kalitate-inkesta									**Bai**
			Adineko egoitzetan jasotako kexen kopurua									